

Makilari

24. ZENBAKIA • 2013KO APIRILA • GABIRIAKO ALDIZKARIA

ESKOLAK 100 URTE



3

Di-Da

4

Gabiriako eskola
eraiki zuten garaia

8

Nor da nor?

14

Eskolaren garrantzia
herriko hezkuntzan

16

Eskolako oroitzapenak
belaunaldiz belaunaldi

26

Boskotea

30

Antzinako jolasak

32

Mendeurrenaren
ekitaldia

42

Kafe tertulia

45

Haur hezkuntza

46

Han edo hemen
baina bizi

48

Erick Odriozola,
munduan zehar dantzan

51

Gerra Zibila,
zuen oroimenean

60

Amelia Jauregi,
emakume baserritarren ahotsa

62

Profesio txokoa,
txerri hiltzailea

63

Goruntz dantza taldea

64

Gabiriar berriak

66

Sukalde txokoa

67

Berriak labur

74

Makilakixki

AuR kiBi DeA

Makilari Gabiriako udal aldiz-
karia da, urtekaria.



JON GORROTXATEGI 16 urte

Herriko gazte gaizto hau, Alegiakoa denez, herrian ez dugu ikusten. Topatu nahi baduzu, lokalera edo paseora joan. Mutil lerdan honek GURI5-eko gitarraren sokan dardaraz zeruko baketik infernuko apokalipsian murgilduko zaitu.

Zaletasun bat?

Musika.

Musika talde bat?

GURI5.

Pelikula bat?

'Ali G'.

Liburu bat?

Ez zat gustatzen irakurtzea.

Leku bat?

Gabiri.

Oroitzapentxo bat?

Lehenengo kontzertue.

Lagunekin egiteko plan bat?

Aizalekua txangoa.

Juegarako leku bat?

Gabiri bea.

Gabiriatik gustuko duzuna?

Daukagun giroa.

Maniarik?

Ezta bate!

Zerk sortzen dizu jakin mina?

Zeatik egitten diazuen elkarrizketan nei. Jeje.

Ze musika estilo jotzen duzue?

SKA! (Taldekideen kekak...)

Gehien bat behintzat.

Gitarraz gain jotzen al duzu beste instrumenturik? Eta besterik ikasteko gogorik?

Trikitixea. Oaingoz ez.

Kontzertua emateko leku bat?

Zeama.

Non ikusten duzu zeure burua musikalari etorkizunean?

Musikatik bizi nahiko nuke, baino...

Amets bat?

Hemendik kanpo jotzea eta famea lortzea.

Di- Da

Iban Maiz

ANE MIREN AIZPURU

Ane Miren: Berez ez du aurkezpen beharrik hezkuntzan maisu den emakume honek. Iazko Makilari alean egin nahi izan genion DI-DA. Baina agenda oso estua zuelako (eskola umek egin zioten elkarrizketa) aurtengorako uztea erabaki genuen. Berak aurrez aurre esan zigun ezin irtengo zela beti bera Makilari-n, baina ez gintuen konbentzitu.

Zaletasun bat?

Bidaiaztea. Ahal danen.

Musika talde bat?

Ken Zazpi. Txikitán Bolerok. Jijijijiji. Julikin egitten non dantza.

Pelikula bat?

Osoik gutxitan ikusten dittut.

Liburu bat?

'Bilbao-New York-Bilbao'.

Leku bat?

Gabiri.

Oroitzapentxo bat?

Hong- Kong-eko egonaldie. Txinan erdi galdu ibilitakoa. jijijiji

Lagunekin egiteko plan bat?

Bazkaritxo bat eta paseo lasai bat.

Gabiriatik gustuko duzuna?

Lasaitasune.

Maniarik?

Ordena nahi ta ezin! Eta es-

negainik ezin ikusi! Pasadoren pasa behar esnea...

Pertsonaia historiko bat?

Neri eguneroko historie gustatzen zat, historie egunero egittea. Bueno historie Mikelentzako.

Zerk sortzen dizu jakin mina?

Uf! Gauza askok... Gure gerok...

Irakasteko gai bat?

Bizitza. Ni ez naiz gai hau edo hura...

Gehiago ikasiko zenukeen gai bat?

Ingelesa.

Gehien apreziatu duzun irakasle/ lankidea?

Mila Arrondo!!

Izan duzun ikaslerik aldrebesena?

Ez dauket oroitzapen txarrik.

Amets bat?

Patxada pixka bat hartzea!



Gabiriako eskolak 100 urte

GABIRIAKO HERRIA ESKOLA ERAIKI ZUTEN GARAIAN



Eskola publiko zaharrak, 1914an, gaur egun udaletxea den eraikina./ Indalecio Ojanguren



Herrigunearen bista, 1860ko hamarkadan. Didier Petit de Meurvillek egindako marrazkia

Eustaquio Balentzategik herrirako eskola-etxe berria eraikiarazteak aldaketa handiak eragin zituen. Nola herrian, hala beste zerbitzu publikoetan ere. Herri gunean bi eraikin nagusi —elizaz gainera— egotetik, hirura igaro zen herria 1912an. Horrek berrantolaketa bat egitea ekarri zuen. Eskolak Oroitz-Ona etxe berrira aldatu zituzten; haien tokian udaletxea egokitu zuten; eta udaletxea zen Ostatu Zahar etxea taberna, jatetxe eta alondegitarako utzi zuten.

Eskolen inaugurazioa iragartzeko prentsa-artikuluan, El Pueblo Vasco egunkariak 1912ko azaroaren 19an zera argitaratu zuen, eskola berriaren eraikuntzari buruz: “Llevadas a cabo con toda celeridad las obras bajo la acertada dirección del arquitecto don Antonio Aguirre, hoy se ve, en el mismo sitio que ocupaba el antiguo, un grandioso edificio de nueva planta (...)”. Ez zen hala. Lehenagoko eskola ez zegoen eraikin berria altxatu zuten orubean, Ostatu ondoan; han ez zegoen zuhaitzak besterik.

Beheko marrazkian begizta daiteke hori. Herri-kaskoaren ikuspegia da. Ostatu Zahar etxea nabaritzen da, eta eskuinerago zuhaitzak ikusten dira; eraikin laukia Erbie elkarte dagoena izango da. Marrazki hau Didier Petit de Meurvillek egina da, lapitzez, 1860ko hamarkadan (XIX. Mendeko albumetik):

Orduan, lehenago eskolak leku hartan bertan ez bazeuden, non zeuden? Gaur egun udaletxea den eraikinean. El Pueblo Vasco-ko kronikagileak dio lehenagoko eskola-etxea ikusi eta “penosa impresión” ematen zuela, “estado casi ruinoso” zegoelako.

Beheko argazki hau 1914koa da, Indalecio Ojangurenek ateratakoa. Gaur egungo udaletxea ageri da, egoera oso txarrean. Etxaurrean, balkoiaren gainaldean, “Escuelas Publicas” kartela dauka. Bestetik, herriko zaharrenek diote eskola lehenago “Eskola Txikian” zela. Udaletxearen ondoan zegoen etxetxo hori, bi isuriko teilatuarekin eta atzean komun publikoak zituen. Gerora, 1960 hamarkadaren bukaeran Osinalde elkarte sortu zutenean, han izan zuen lehenbiziko soziedadea. 1980ko hamarkadan bota zuten, udaletxea eraberritu zutenean.

Anita Zubizarretak (Uharketa, 1929) eta Nikolas Alustizak (Oñatibi Aundi, 1925) dotrina izaten zuten Eskola Txikian. Baztarrrikako Maria Pikasarrrik ere bere aurrekoak Eskola Txikian ibili zirela dio. Litekeena da, eskola berria egin aurreko urteetan haurrak han ibili izana, berezko ikastetxeak zeukan egoera tamalgarria ikusita. Bestetik, eskola “txikia” bereizi izana ere esanahitsua da; eskola handiago bat bazela adierazten du.

Gabiriako Udalbatzak 1911ko ekainaren 4ko batzarrean hartu zuen Balentzategiri lurra uzteko erabakia, “aho batez”. Francisco Urteaga Loinaz (Alkate zaharra izengoitiaz ezagutua gerora) zegoen alkate, Jose Atin alkateorde. Hauxe dio akordio hark:

“... el Ayuntamiento derribará todos los árboles del terreno destinado a dicho edificio y dejará estos a disposición del citado Sr. Balentzategui”.

Artikuluak dioten bezala, azkar eraiki zuten eskola-etxea. Proiektua Antonio Agirre arkitektoak egin zuen, 1911ko maiatzaren 2an, Ordizian. 349,87 metro kubo lur atera beharra aipatzen du, eta ez dio beste eraikinik zegoenik.

Eraikuntza

Etxearen orubeak 243 metro koadro hartu zituen, eta guztira 884,54 metro erabilgarri zeuzkan. Manposteriarako harriak "kalitate eta oinarri onekoa" izan behar zuen, "debiendo ser de las canteras de Irazola o de otras de la misma clase, y la sillería de las canteras de Igueldo o Ullia". Harlandua, beraz, Gabiriako Irazola baserri inguruko harrobitik atera zuten; gainontzekoa, Donostiatik.

Baldintza gehiago ere jarri zituen arkitektoak: "todas las maderas de su armazón, soliveria y cabrios serán de roble, de la región". Obra bukatzeko epea zortzi hilabetekoa zen; atzeratutako egun bakoitzeko 15 pezetako isuna jar ziezaiokeen jabeak kontratistari. Proiektuaren aurrekontua denera 32.088 pezetakoa zen. Obraren subasta 1911ko abuztuaren 27an egin zen, igande arratsaldeko lauretan. "Se pondrán a pública subasta por pliegos cerrados las obras de construcción de un edificio en el Casco de esta villa, cuyo presupuesto asciende a 32.088 pesetas" (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ateratako iragarkia, 1911-8-2an).

Proiektua honako hauek sinatu zuten: Eustaquio Balenzategik (jabea), Antonio Agirrek (arkitektoa), Jose Agirrezabalek (kontratista), eta Juan Bautista Maiz eta Juan Martin Murua gabiriarrek.

Lanek, beraz, urtebete doi-doi iraun zuten. Kontratistak %8,75eko beherapena agindu zuen aurrekontutik. Hala, eraikitze-lanen kostu osoa 29.534,97 pezetakoa izan zen. Atalka:

- Hargin lanak: 8.405,25 pezeta.
- Arotzeria: 6.009,14.
- Igeltseritza: 5.792,69.
- Obrako arotzeria: 6.673,13
- Pintaketa, hodiak, kristalak: 2.654,76 (ateen eta leihoen markoak "color rojo vivo" margotu ziren).

Gastuen artean badira bitxiak, Meliton

Larrea eskribauak zehatz-mehatz zenbatu zituenak. Andres Telleria ostalariak, adibidez, hainbat faktura-albaran igorri zizkion. 1911-11-20an, obretako langileei ateratako 11,5 litro ardo eta 12 libra ogi, adibidez (7,85 pezeta). Edo 28 langileren afariak emateagatik, trapala modura, 70 pezeta. Beste bi trapala ere egin ziren, gutxienez; batera sei igeltsero eta eskabazio lanetan jardun zutenak joan ziren. Azkeneko trapala eskola inauguratu bezperan egin zen, 1912ko azaroaren 23an, larunbata.

Jose Agirrezabal kontratistak epeka jaso zuen dirua. Lehen zatia 1912-1-6an ordaindu zion Meliton Larreak, Eustaquio Balenzategiren "ordezkariak". 9.700 pezeta. Bigarrena, martxoaren 12an, 10.300 pezetakoa.

Orubea prestatzeko lurrak mugitzen, eskabazio lanetan, lau gabiriar hauek ibili ziren: Jose Mari Ormazabal, Benito Arrondo, Jose Mari Oiarbide eta Antonio Artzelus. 1912-12-2an "presupuesto de excavacio-

Lan horrengatik 29,50 pezeta jaso zituzten 2012-9-30. Gurutze hori, 1992 inguruan mugitu zuten berriz, eta gaurko kokalekuan ipini zuten hirigintza lanen barruan.

Beste albo-lan bat ere egin behar izan zen: apaiztxeko horma ondotik lurra kendu, Andres Mujikaren etxearen (Erbie elkartea dagoena izango zen, seguru asko) eta eskolaren arteko estrata berdindu, eta gurutzaren eremuko lurra leundu zuten hiru eskabatzailak (Ormazabal, Arrondo eta Oiarbide). Irailaren 30ean 160,50 pezeta jaso zituzten horrengatik.

Altzariak eta eskolako materiala 3.241,75 pezeta kostatu ziren; horien garraioaren kostua (180,25 pezeta) barruan sartuta dago. Madril, Iruñea, Tolosa eta Zumarragatik ekarri zituzten gauzak. Tartean zeuden "Silencio y Aplicación" zioten bi kartel, "en tela barnizada", gela bakoitzerako bana (neskak eta mutilak); gaur egun oraindik gogoratzen dute adinekoek. 40 umerentzat tokia jarri zuten eskola



nes y traslado de tierra y cayuela" lanengatik 1.575,92 pezeta likidatu zizkieten.

Eskolaren eraikuntzak harrizko gurutzea (gaur egun Erbie elkartearen eta apaiztxearen artean dagoena) lekuz mugitzea ere eskatu zuen. Ez du zehazten ordu arte non zegoen zehazki. Apaiztxearen, elkartearen eta eskolaren atzean kokatu zuten Pablo Lasa, Martin Igartzabal harginek eta Jose Intxausti peoiak, Ignacio Intxausti itzainak eramanda.

bakoitzean, 24na bankurekin (16 bipertsonalak, zortzi bakarrarentzat).

Obrako kostu guztiak eta altzariak finantzatzeaz gain, Balenzategik beste 10.000 pezeta eman zizkion udalari, haien interesekin eskolan sortuko ziren matxurak eta puskatutakoak konpontzeko. Elizari 20.000 pezeta eman zizkion, helburu bererako.

Inaugurazioa

Eskola 1912ko azaroaren 24an inauguratu zuten. El Pueblo Vasco egunkariko artikuluan xeheki iragarri zuten eguneko egitaraua, baita zer agintari, talde, musikari eta pertsonalitate joango ziren ere.



Martes, 19 de noviembre de 1912
Crónica postal De Goyeri

“La pintoresca villa de Gaviria se apresta en estos momentos a celebrar con toda pompa y solemnidad la inauguración de las nuevas escuelas públicas que en ella acaban de construirse para niños de ambos sexos y que se deben a la munificencia y patriotismo del señor don Eustaquio Balanzategui hijo del referido pueblo, quien, después de 36 años de residencia en tierras cubanas, sintió sin duda la nostalgia por su patria chica y retornó a su querido pueblo natal. Lo primero que quizás llegó a contemplar él será la antigua casa-escuela, donde aprendiera a leer y escribir; y tal penosa impresión debió producirle el estado casi ruinoso de aquel centro de educación y moralidad, que esta circunstancia, unida al acendrado amor por el pueblo que le vio nacer; movióle a costear por su exclusiva cuenta un nuevo centro docente, ofreciéndoselo así al Ayuntamiento, quien aceptó gustoso la generosa oferta del donante.

Llevadas a cabo con toda celeridad las obras bajo la acertada dirección del arquitecto don Antonio Aguirre, hoy se ve, en el mismo sitio que ocupaba el antiguo, un grandioso edificio de nueva planta con dos amplios y hermosos salones-escuelas para niños y niñas independientemente, capaces para sesenta alumnos de cada sexo, y con lavabos, roperos, patios y parques cerrados de tapias para recreo de aquellos; también independientemente de las escuelas tiene hermosas habitaciones para los maestros con las mismas comodidades de retretes lavabos, etc., surtidos de agua abundante; adornando para fin de remate el edificio todo, elegantes y vistosas terrazas. Además el material completo para ambas escuelas, todo ello nuevo y de lo más moderno, ha sido también donado por el mismo señor Balanzategui.

Para la inauguración y entrega oficial al Ayuntamiento del edificio de que se trata y a cuyo acto concurrirán, además de las autoridades locales, el inspector provincial de enseñanza don Leopoldo Sanz, el arquitecto-director de las obras, su sobrestante don Teodoro Amunarriz, el contratista don José Aguirrezabala, el coronel del Cuerpo de miqueletes don Juan Pablo Lojendio, hijo a su vez, de Gaviria y otras distinguidas personalidades, se ha señalado el próximo domingo 24 del actual, en cuyo día, que será amenizado por la banda de música “Or-

dizia”, de Villafranca, y la de tamborileros de Legazpia, contratados al efecto por el Ayuntamiento, tendrán lugar los siguientes festejos:

A las nueve de la mañana, la bendición de las obras por el clero parroquial, en cuyo acto cantarán los niños de las escuelas un himno escolar compuesto por el profesor de música, hijo también de Gaviria, don Valentín Larrea.

Los propios niños, además, recitarán poesías en acción de gracias al bienhechor señor Balanzategui.

A continuación se dirá la Misa Mayor, de Gorriti, cantada por los músicos de la citada banda y acompañada al órgano por dicho profesor señor Larrea.

Después tendrá lugar el banquete que será servido en uno de los salones de las escuelas nuevas y amenizado por la banda de música ya referida.

Y para complemento de tan simpática fiesta, la misma banda de música alternando con la de tamborileros, ejecutará diferentes piezas, para solaz y divertimento de la gente joven, en la plaza pública, que estará iluminada a la veneciana.

Se me olvidaba decir que la banda “Ordizia” ejecutará también una marcha nueva titulada “La Perla del Océano” compuesta por el reputado profesor de música señor Larrea y dedicada al filántropo señor Balanzategui; y que llaman muy justamente la atención los arcos que van colocados junto al edificio de las escuelas cuya inauguración se trata por sus adornos de flores y de pintura debidos al valioso concurso de las distinguidas cuanto simpáticas señoritas hijas de don Melitón Larrea.

Prometo a los lectores de este apreciable diario ponerles al corriente del resultado de estas fiestas.”

Ekitaldi arranditsua izango zen herrirako. Ordura arteko handiena ziurrenik. Ostatu zuritu egin zuten. Zein ote zen ostatua (“posada”)? Gaur egungo ostatua orduan udaletxea zen. Han bertan egongo ote zen taberna ere? Ala eskolaren beste aldeko eraikina izango zen, Erbie elkarteak dagoena? Dakiguna da Andres Telleria izeneko bat zela ostalaria.

Ospakizun bazkaria eskolan bertan eman zuten. 33 bazkaltiar izan ziren (izen guztiak zerrendatuta utzi zituen Larreak), “y la comida del alguacil aparte”. Ostalariek ipini zituen kubiertoak, baina bazkaria maisuaren etxeko sukalde berrian prestatu zuten, herriko emakumeek. Orduan estreinatuko zuten sukaldea, eta, halabeharrez, harraska itxita geratu zen. Hurrengo egunetan konpondu behar izan zuten Pablo Lasak.

Agintariak, pertsonalitateak eta herriko kargudunek ez ezik, eskola-umeek ere nabaritu zuten festa usaina, egun hartan. Joxe Maizek haren aita Batista Maizi jaso da: “Gure aitak esaten zuten eskola inauguratu zuten egunean xerradarekin ogitartekoa eman zietela ume denei. 1905ean jaioa zen aita, eta hark orduan zazpi urte edukiko zituen. Orduan jateko handia omen zen xerrada”. Esan eta izan. Larrearen kontuetan azaltzen da, inauguratu bezperan (1912-11-23) nola hamar kilo haragi xerratan eta hiru litro Loydi (freskagarrien bat?) erosi zituzten, umei emateko.

Eskrituratzeta eta baldintzak

Eskritura 1916ko abenduaren 6an egin zuten, Ordiziako Victor Bárcena Gómez notarioaren aurrean. Balanzategik eta Francisco Urteaga alkateak sinatu zuten. Kuriositate gisa, Melitón Larrea idazkariak albo-ohar batean idatzi zuen eskriturak bere etxeko txakur txiki batek hondatu zituela, atzaparretan eta hortz artean erabilita.

Hainbat baldintza ipini zituen Balanzategik eskrituran zehaztuta. Honakoak dira batzuk:

1. “Don Eustaquio Balanzategui hace donación pura, perfecta e irrevocable intervivos al Ayuntamiento”.

2. No podrá destinarse dicho edificio a otro fin que el de Escuelas Públicas de ambos sexos de Gaviria”.

3. “El donante se reserva el derecho, para mientras viva, de efectuar en el mismo cuantas obras de reparación, aseo y conservación sea necesarias y tiendan a su mejoramiento”.

7. El valor de esta donación se estima en el coste de la edificación importante veinticinco mil pesetas.

9. La villa guardará a este [donante] eterna gratitud.

- Los locales destinados a vivienda o habitación de los Maestros, nadie más que ellos podrán ocuparlos, sin derecho por parte de estos ni por el Ayuntamiento a alquilarlos a otras personas, quedando también terminantemente prohibido el que los Maestros admitan pupilos en su casa.



Herriko amarraria, Ostatu Zihar etxean, lehenago udaletxea izana. // arteko Ojangueren

Aldaketak eraikin publikoetan

Lehen esan bezala, eskola-etxe berria edukitzearekin udalaren gaineratiko zerbitzuak ere lekuz aldatu zituzten. Ostatu Zahar etxeak hargatik dauka etxaurrean herriko armarrria, udaletxea zelako. 1918an jada gaur egun dagoen eraikina eraberritzen ari ziren. Serapio Mujika historialari ormaiztegiarrak horixe dio Geografía de Guipúzcoa liburuan, 1918an: "Tiene la casa consistorial en buen edificio, y en su fachada luce, labradas en piedra, las armas de la villa, que consisten en un águila coronada sobre un árbol que tiene en su raíz dos fajas de azul; y al lado del águila una estrella. En el día se está habilitando nueva casa consistorial, frente a la iglesia. Los electores son 209; los concejales, ocho".

Nikolas Alustizak, adibidez, ezagutu zuen Ostatua aurreko egiturekin, umetan. Honela deskribatu zuen, iazko maiatzaren 5ean, 1936ko gerrari buruz egin zen kafesolasaldian: "Lehenago diferente zen. Orain sartu eta baskula dagoen pareta horretan, barretetik gora eskailera zen. Gerora hiru aldakuntza eduki zituen eskailera horrek.

Lehenengo hura kendu, eta komuneko ate hartatik egon zen. Gero, berritu zuten garaietan, hura kendu zuten eta barruagotik jarri zuten. Baina, eskailera zaharra, lehenengo sartu atearen eta ezkerretara zen, behetik gora igotzeko, eskailera zahar handi bat. Orain jarri dute bereizgarri bat kome-dorera pasatzeko; han kartzelako atea zen. Kartzela zegoen han. Atea dagoen lekuan leihoa zen, kartzelako leihoa. Ni ezagututa nago hori. Obra egin eta sukaldea-eta behean ipini zituzten garaietan, kartzela kendu, leihoa kendu eta atea jarri zuten. Taberna goian zen, eskaileretan gora igota, horko leiho txiki batean txikitoak aterata. Leiho txiki bat zen mostradorea".

Beheko bi argazkien datarik ez dakigu. 1925 baino lehenagokoak behar dute, Jeronimo Aranda Ormaiztegiako eskolako maisua azaltzen delako, eta urte horretan joan zelako. Goikoan, "Ayuntamiento" kartela ageri da ate gainean. Biak txartel postal erako argazkiak dira, eta egun berean ateratakoak dirudite. Ez ote dira izango udaletxea Ostatu Zahar etxetik gaur egungo eraikineraino aldatu eta inauguratu zuten egunekoak?

Beraz, Nikolasek lehenengo Ostatu (udaletxe) zaharra ezagutu baldin bazuen, lehen eraldaketak 1930 inguruan egingo zituzten. Baskula, adibidez, 1936ko gerran

kokatu zuten han, nekazarien Sindikatotik konfiskatu eta udalak Ostatuan jarrarazita. Baskula bera 1935ean egin da.

Gabiriak eraldaketa sakona ezagutu zuen XX. mendeko hogeitertan, 1911-12tik 1930 aldera arte. Aro batetik beste baterako jauzia izan zen 1911-1930 bitartean. Arlo askotan modernizatu zen herria, azpiegiturak sortuz eta zerbitzuak hobetuz, kultura gaitakoak tartean. 1910ean 844 biztanle zituen; 1920an, 894.

Pasiotarrak, adibidez, 1911ko irailean hasi ziren haurrei eskolak ematen, lau urte aurretik etxea erosi eta Latinoamerikara bidaltzeko misiolariak prestatu zituzten bezala. Lehenago bainuetxea izan (1904an itxi zuten) eta utzita zegoen etxe eta inguru hartan bizia erne zen berriz.


Hilerri berria 1928an eraiki zuten, bestetik. Nitxoak zituen Estatuko bigarren hilerria izan omen zen, Bartzelonako kanposantu baten atzetik. Hura eraikitzeke dirua Jose Maria Osinalde amerikanoak eman zuen; hilerriko kaperan bere hilobia eta haren emaztearena daude. Herrira ura ekartzeko lanentzako ere lanak finantzatu zituen; bere omenez eraiki zuten plazako iturria, 1935ean. Osinalde eta Francisco Urteaga Loinaz koinatuak ziren, alkatea Osinalderen arreba Josefa Ignaciarekin ezkondu baitzen.

GABIRIAKO AUTORITATEAK ETA BIZTANLEAK 1925 INGURUAN.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Mari Odriozola (Gabiriako apaiza), Juan Joxe Peñagarikano (Gabirizarraundi), Frantzisko Goia (Itzaitegi aitona), ?, ? (atzean erdi ezkutatuta dagoena), Frantzisko Urteaga (Korostartzuazpikoa), Martin Maiz (Eguzkitza), Fernando Larrea (Larreaenea), Joxe Joakin Atin (Altzibar), Eduardo Zabaleta (Gabiriako apaiza), Joxe Antonio Goia (Itzaitegi), Joxe Manuel Ormazabal (Urruti), Frantzisko Gabiria (Bekoetxe), Fermin Gastesi (Madariagaerdikoa), Joxe Mari Txintxurreta (Txoko) eta Gregorio Zabaleta (Jauregi).

Erdiko ilaran ageri diren 2 emakumeak ezkerretik eskuinera: Kandida Alzueta (Izarrerdikoa) eta ?

Beheko ilaran ezkerretik eskuinera: ?, ?, Don Migel Odriozola (Aztiria auzoko apaiza), Jeronimo Aranda (Ormaiztegiako eskolako maisua), ?, ?, ?, Joxe Urkiola (Aunditegi) eta Andres Alustiza (Landeta).



NOR DA NOR?

Fernando Larrea



Fernando Larrea Iturbe 1880an jaio zen, Gabirian, eta Meliton Larrea Perez de Lazarragaren eta Tecla Iturbe Balenzategiren semeetan bigarrena zen. Eustaquio Balenzategi zuen aitabitxi, eta hark Kubara hots egin zion. 1891n, 11 urterekin, joan zen, Balenzategiren Matanzaseko azukrekainabera plantazioetara. "Tío y sobrino expandieron considerablemente sus propiedades", dio Cecilia Arrozarenak El

roble y la ceiba liburuan. "No olvidándose de su origen, financiarían la traída de aguas a Gabiria en 1914".

Fernando 1927an itzuli zen sorterrira, behin betiko, aita gaixorik zegoelako. Ez zen gehiago itzuli. Gabiriako alkate egon zen, hiru alditan: 1931-1933, 1933ko maiatzetik 1934ko azarora; eta 1936ko otsailetik irailera. Abertzalea zen. 1934an epaitu egin zuten, Goiazko alkatearekin batera, desobediencia delitu bat leporatuta. Zortzi hilabeteko inhabilitazioa et 300 pezetako isuna jarri zioten. Euskal Estatutua onartu nahi zen garaia zen.

Kuban urte askoan egon zen Eustaquio lehengusu-osabarekin, 1891tik 1927ra. Fausto Berazadiren esanetan, Eustaquioren "arrimuan". Argazkilaria edo argazkizalea ere bazen. Bere lanak Zarauzko Photo Museumen daude. Kubako finken eta arrantxoan argazkiak dira asko. "Teknika berria erabili zuen, adituen arabera. Panorámika zabalak, argazki zapalak eta bakarrean egindakoak dira. Balio artistikoa eta teknikoa dute", dio Maite Berzadik.

"Oso aberatsa" zen. "Legazpiko Patricio Etxeberria industrialariari diru piloa eman zion, hark bere lantegiak handitu zituen. Geroztik Larrea Enean ez omen zen ez

ikatzik, ez egurrik falta izan gehiago". Kami-oikadak ekartzen zizkieten Patriziorenetik.

1936ko gerra lehertu zenean Gabiriako alkate zen. "Falangistek etxea, kotxea eta ondasun denak konfiskatu zizkieten. Bi kotxe zituen, bat negurako eta bestea udarako, deskapotablea. Eta biak kendu zizkieten. Baita gabardina ere. Pena handiena huraxe kentzeak eman ziola esaten omen zuen", diote Berazadi Larrea anai-arrebek.

Fernando Larrea 1953an hil zen, Gabirian.

Hiru arreba neskazaharrak Larrea Enean bizi ziren. Anaia zaharrena Valentin zen (Gabiria, 1876 – Iruñea, 1970). Musikaria, piano-jotzailea eta organista zen. Baita konposatzailea ere. XX. mende hasierako euskal jaietan sari ugari irabazi zituen, piezekin. Hark konposatutako obra gutzia Eresbilen (Errenteria) dago jasota.

Berazadi Larreatarren aitona Valentin zen, Larrea Iturbetarretan senide zaharrena, musikaria. Haren alaba, Maria Luisa Larrea, zuten ama. 96 urterekin hil zen. "Pianoa jotzen zuen, aitzak bezala. Azkenera arte bikain jotzen zuen, gainera. Bere bizitzako azkeneko hamar urteetan Maria Luisa burua galduta egon zen, baina pianoa jotzeko gaitasuna bere horretan mantendu zuen, beti".

"Aitona Valentin urtero etortzen zen Gabiriara Andre Mari jaietara. Organoa berak jotzen zuen elizan. Batez ere San Roke Txiki eguna zuen oso gustuko", diote Berazadi Larreatarrek.

Larreatar anaiak ikastera Gasteizera eta Iruñera joan ziren. Hiri haiek ziren garai hartako euskal hiriburu "potenteak".



Valentin Larrea



Clemente Lasa Balentzategi

Clemente Lasa Balentzategi (Zaldibia, 1877-11-23), Eustaquioren iloba zen, arreba Valentinaren semea. Eustaquio hil zenean haren aberastasunen oinordeko bakar eta albacea testamentario bihurtu zen. Valentina Balentzategi Aranburu (Eustaquioren arreba) Zaldibiara ezkondu zen, Jose Maria Lasa Lardizabalekin. Gabirian ezkondu ziren, 1877ko otsailaren 12an.

Clemente Lasak 45.000 pezetako do-

haintza egin zion Gabiriako Udalari, 1932ko apirillean. Estatuaren baloreetan jarri zuten dirua, interesekin behartsuen artean laguntza banatzeko. Aurretik, Donostiako benefizentzia etxe bati, besteak beste, 84.000 pezeta eman zizkion, izenik aireratu gabe.

Udalak Clemente Lasaren ondorengoei erosi zien eskola-etxea, 1980ko hamarkadan.



Desde Gabiria

Hace unos días estuvieron en ésta, los señores don Clemente Lasa con su hijo mayor y el culto abogado don Guillermo Recondo. Vinieron con el objeto de hacer una entrega de 45.000 pesetas a este ilustre Ayuntamiento, cantidad que ha sido donada por don Clemente Lasa, único heredero y albacea testamentario, advirtiendo que parte de la fortuna fuese repartida en obras benéficas a voluntad de don Clemente. Y ahora, que ha llegado el momento ha pensado dar al pueblo de Gabiria 45.000 pesetas; habiéndose colocado dicho capital en valores del Estado para con sus intereses atender a los pobres verdaderamente necesitados.

Don Eustaquio Balanzategui anteriormente hizo donación de las hermosas escuelas que actualmente disfruta este pueblo y la cantidad de 10.000 pesetas, para que con sus intereses puedan arreglarse los desperfectos que se ocasionen en el edificio. A la iglesia entregó 20.000 ptas. con el mismo objeto parte de otras donaciones que no mencionamos, pues fueron muchas. ¡Qué satisfacción causa al pueblo un hijo que se acuerda de su "txoko", haciendo que progrese y de esta forma pueda levantar

la cabeza entre sus semejantes! ¡Y sus parientes, qué orgullosos tiene que estar al ver que uno de su sangre es el autor de tantas obras buenas!

Los que hemos visto todo esto, no podemos menos que ensalzarle y guardar un eterno recuerdo para su nombre.

Demos pues gracias, ya que no sabemos cómo pagar a don Clemente Lasa, el donante de las 45.000 ptas., quien también será bendecido de los pobres enfermos necesitados de esta villa, que gracias a ese capital pueden disfrutar y hacer que sea más llevadera la cruz que cada cual tenemos designada en este mundo. Gracias, mil gracias y sepa el señor Lasa que en estos corazones no se borrera jamás su nombre.

—o—

Después de leída esta carta de nuestro corresponsal en Gabiria, nos complace hacer constar que el mismo don Clemente Lasa es sin duda ninguna el donante, que ocultando su nombre, entregó hace pocos días un donativo de 84.000 pesetas para la Beneficencia de San Sebastián y otros también de importancia para el Asilo de Niñas Ciegas de San Rafael y para las Hermanitas de los pobres.

A pesar de que todos estos donativos más los que en la carta anterior se citan, los hace el señor Lasa esforzándose por conservar el anónimo, no ha podido evitar que los favorecidos con tal largueza le manifiesten públicamente su agradecimiento.

Nos parece muy justo.

MALEABLE AL CRISOL

A " S. A.

donación de piezas, según planos y os

E I B A E (GUIPUZCOA)



Eustaquio Balenzategi

Manuel Eustaquio Balenzategi Aranburu 1858an jaio zen, Gabirian, Agerre baserrian. Azaroaren 23an bataiatu zuten. Jose Lorenzo Balenzategi Elgarrista eta Juana Maria Aranburu Agirre zituen aita-amak. Zortzi seme-alaba izan zituzten: Francisco Maria (1842- 1862), Maria Teresa (1844), Jose Cruz (1847), Juana Maria (1849-1865), Josefa Eustasia (1854, urtebeterekin hila), Valentina (1851), Marcelina (1856-Ormaiztegi, 1892), Eustaquio

(1858) eta Maria Juana (1864).

Aitaren aldeko aitona-amonak Francisco Balenzategi Aztiria (1787-1850) eta Josefa Ygnacia Elgarrista Subillaga (1781-1825) ziren. Francisco bi aldiz ezkondu zen, Josefa Ygnaciarekin 1811-4-20an Gabirian, eta andrea hil zitzaionean (1825), bigarren aldiz 1827-4-19an Maria Luisa Ezpeleta Yarzarekin (Aretxabaleta-Larrino, 1801-Gabiria, 1882). Lehen ezkontzatik lau seme-alaba izan zituen Franciscok: Maria Ascension (1813), Jose Lorenzo (1817, Eustaquio-ren aita), Tecla (1819) eta Maria Bautista (1822).

Bigarren ezkontzatik beste sei seme-alaba izan zituen: Francisca (1828), Francisco

(1830), Jose Joaquin (1832), Joan Valentin (1834), Maria Lorenza (1839) eta Maria Manuela (1843). Maria Manuela izan zen Meliton Larrearen lehen emaztea; hura hil egin zen, eta emaztearen ahizpa zaharrena zen Franciscaren alaba Teclarekin ezkondu zen, bigarren aldiz Meliton; ilobarekin, alegia. Hau da, Melitonen lehen andrea (Maria Manuela) Eustaquioaren izeba zen, eta bigarrena (Tecla) lehengusua, Eustaquio baino hiru urte zaharragoa.

Kuban azukre kainabera landaketa handiak zituen Eustaquio. 1887ko maiatzean, esate baterako, Madruga herrian zegoen, La Habana probintziaren hego ekialdean; Laurac Bat euskaldun elkartearen ordezkaria zen herri hartan. Azukre zentral

(Kuban "ingenio" deituak) handien jabe zen. 1898ko independentziaren gerran, eta aurreko matxinadetan, bere lurrak defenditzea tokatu zitzaion. "Gure aitak kontatzen zuen bi azukre fabrika omen zituela. Iraultza garaian bat erre egin omen zioten, eta bestea bere mutilekin eta armerkin kontra eginda salbatu zuela. Gero dirua harekin egin zuela", gogoratzen du Joxe Maizek haren aita Batistaren kontakizunak.

Beste gertaera bat ere badu. "Anekdotak bat kontatzen zuen aitak. Kubatik etorritako batean, hemengo apaiz Don Inaziok -famosoa izan behar zuen, bizizale horietakoa- esan omen zion Eustaquiori: 'Kontxo, don Eustaquiori ere bigoteak zuritu egin zaizkiol'. Eta erantzun ziola: 'Zuri egun batean zurituko zitzaizkizun, ni bezala ibili izan bazina'. Apaiza izanagatik erantzun ziola, eta isilik utzi omen zuen".

Balentzategitarrek, Eustaquioren senideak ere, "kasta gogorrekoak" zirela kontatzen da. "Bat apaiza, inguruko herrietan sermolari ibiltzen omen zen. Beste bat, Karlisdaldiko gerran gudari ibilia, kapitain. Gure aitak esaten zuen Lizarra alde horretan ibilia zela. Militarra omen zen, oso kasta gogorreko bat. Denek oso indartsuak izan behar zuten, gogorrek. Jaiotzez Agerrekoak omen ziren".

Frantzisko Balentzategi izeneko bat Gabirian apaiz benefiziatu zen, 1858an. Norteko Trenbidea eraikitzeko 2.000

erreal eman zituen, urte hartako mar txoan.

Kuban aberastu, eta herrian hainbat ondasun bereganatu zituen Eustaquiok. Etxeak, adibidez. Errenteroen arteko baserri-suteen aurkako San Lorenzo sugaroan (Hermandad de socorros mútuos con trigo y maíz entre los vecinos de la villa de Gabiria), esaterako, hiru etxeren nagusi dela esaten da 1913ko abenduaren 31n. Bat, Agerre zen, Balentzategiren jaiotetxea; beste bat, Argindegi: "Argindegi baserria Agirreerripan [Agerre] bizi ziren Balentzategitarrena zen XIX. mendearen amaiera aldera", dio Jose Luis Ugarte ikertzaileak Lehengo Aztiri liburuan.

Herrian kontatzen denez, Eustaquio Genoveva Larreakin ezkontzekoa zen. Osaba-lobak ziren, odolekoak. Dena prestatuta zegoenean, Kubara alde egin zuen Eustaquiok, andregaiia utzita. Diotenez, ezkontzeko prestatuta zeukan soinekoarekin Andre Mari elizako Doloretako Amarentzat estalkia egin zuen Genovevak.

Kuban bizi arren, tartean-tartean etortzen zen jaioterrira. Larrea Enea etxea berak eraikia izango zela uste du Berazadi Larrea familiako Faustok. Baina, hala ere, Donostian egoten zen hemen egiten zituen egonaldietan. Maria Cristina hotelean bizi izaten zen, lehenengo; gero, Hotel Londresen. Hain aberatsa izan, ezen maletekin

arropa garraioan hara-hona ez ibiltzeagatik, Maria Cristinan gela bat edukitzen omen zuen uneoro beretzat hartuta, urte osoa ordainduta; nahiz bera han egon ez. Arropa eta gauzak han edukitzen omen zituen.

Donostiara etorritako batean, Maria Cristinako 'bere' gelan beste bezero bat omen zeukaten ostatu emanda. Detailea batere gustatu ez, eta handik Hotel Londresera alde egin omen zuen Eustaquiok. Geroztik hotel hartan edukitzen zuen gela ordainduta, eta han hartzen zuen ostatu.

Gabirian eskola egiterakoan, lehenengo asmoa beste bat zuela diote garai hartako iturriek. Elizalde baserriaren ondoan eraiki nahi omen zuen eskola, gero egin zutena baino handiagoa eta dotoreagoa, erloju-dorre eta guzti. Larreatarrek, ordea, aurkotasunak jarri omen zizkieten, diru gastu gehiegizkoa ote zelakoan.

1924ko otsailaren 20an Malagan egindako testamentuan, 10.000 pezeta utzi zizkion Gabiriako herriari, "para que se inviertan en valores y con sus rentas, agregadas a la cantidad que el Ayuntamiento de dicho pueblo consigne en sus presupuestos, atiende a la conservación de las escuelas para maestro y maestra, y sus habitaciones. Del capital no se podrá disponer bajo ningún concepto". (Meliton Larrea idazkariak eta Balentzategiren eskribauak idatzia, 1925-7-20).

Donostian hil zen, 1925eko ekainaren 16an.



Meliton Larrea


Meliton Larrea Perez de Lazarraga Zaldudon (Araba) jaio zen, 1838an. 1860ko hamarkadaren hasieran etorri zen Gabirara, udaletxeko idazkari, eskolako irakasle eta elizako organo-jotzaile izateko. Berrogeita hamar urtean izan zen udal idazkari.

1933ko abuztuaren 10ean hil zen, 95 urterekin.

Biharamunean El Dia egunkariak argitaratu zuen heriotza-oharrean dioenez, "Goierrigarai guztian oso preziatua" zen, eta "católico ejemplar"; "no hacia más que recorrer lugares y caseríos para encauzar pleitos y solucionar diferencias "Preceptor abogado", hainbat belaunaldiren hezkuntzaz arduratu zen. Hileta elizkizunak abuztuaren 12an 10:00etan egin ziren, larunbatarekin,

Gabiriako elizan. Fernando Larrea semea alkate zen, une hartan.

Bi aldiz ezkondu zen. Lehenengo, Manuela Balentzategi Ezpeletarekin (Eustaquiorren izeba), 1864ko abenduaren 30ean. Hiru seme-alaba izan zituzten: Demetrio (1866), Guillermo Jose (1869) eta Francisca (1872). Zorigaitza beraiekin zen, ordea. Urte eta erdian emaztea eta bi semeak hil zitzaizkion: Guillermo 1871ko apirilean, bi urterekin; emaztea 1872ko apirilean, 29



Meliton Larrea eta Tecla Iturbe senar-emazteak, hiru alabekin, Larrea Enea aurrean



Elena, Maite eta Fausto Berazadi Larrea, Meliton Larrea birraitona zuten

urterekin; eta Demetrio 1872ko urrian, sei urterekin.

Bigarren aldian, Tecla Iturbe Balentzategirekin ezkondu zen Meliton, 1875eko abenduaren 20an, Gabirian. Ormaiztegin jaio zen Tecla, 1855-11-27an; haren ama Francisca Balentzategi Ezpeleta zen (Gabirian jaioa, 1828-12-12an), Melitonen lehen emaztearen ahizpa zaharrena. Ilobarekin ezkondu zen, beraz, bigarren aldian. Aldi berean, Eustaquioren lehengusua zen Tecla, hiru urte zaharragoa.

Larrea Iturbe familiak bost seme-alaba izan zituen: Juan Valentin (1876 – Iruñea, 1970; musikaria), Fernando (1880), Genoveva Lorenza (1884), Segunda (1887) eta Eusebia (1896).

Meliton Larreak boterea zuen herrian, bai berak, bai ondorengoek (Fernando semeak, adibidez). Ikasketadunak izanda, gauza asko mugitzen eta lotzen zituzten, sekretario izatearen dohainez. Idazkari lanean, ugariak dira udaletxean gordeta dauden agiriak, Melitonek sinatutakoak. Bestetik, Eustaquio Balentzategiren eskribaua eta ordezkaria ere bazen. Eskolaren eraikuntzako dokumentazio guztia Melitonek eraman zuen, bai proiektuak, bai fakturak, bai ordainketak, bai memoria-txostenak.

Berak sinatutako paperak daude 1929an, oraindik. Ormaiztegiar bat trenak harrapatuta hil zen urte hartan, Gabirian, eta tramiteak bertako udalak egin zituen. Idazkari sinadura Meliton Larrearena da. 91 urte zituen ordurako. Sugararen bileren akta-liburuan ere, esate baterako, 1924ko abenduaren 31n izenpetu zuen azkeneko aldiz urteko bileraren akta (1900ean sortua zen elkarte).

Berazadi Larrea sendiko Fausto, Maite eta Elena anai-arreba zarauztarrek birraitona zuten Meliton Larrea. Dohaintza egin zioten 2012ko azaroan Gabiriako Udalarari, haren dokumentazio sorta ekarrita. Abenduaren 13an, berriz, argazki zaharrak ekarri zituzten, eta mendeurreneko ekitaldiaren egunean, 16an, Melitonena izandako bastoi bat, kirten buruan M.L. hasiera-hizkiak dituen.

“Meliton oso zorrotza zen kontuak eramaten. Etxeko ekonomiarena ere bai. Alabaren soinekoa konpontzeko gastuak ere apuntatzen zituen, bi pezeta izanda ere, denak”, diote birbilobek.

“Balentzategi Kubatik egonaldia egitera Gabiriara etortzen zenean, Melitonek egiten zion harrera. Diru-kontuak eramaten zizkion”, dio Fausto Berazadik.

Larrea Enea etxea Balentzategik eraikia izango zela uste dute. “Kuban bizi zen, eta hona etortzen zen garaietarako etxe handi eta eroso bat nahi zuen, egoteko”. Larrea familiakoak, orduan, ez ziren kurioski Larrea Enean bizi. “Melitonen seme zaharrena, Valentin, udaletxean (Sekretario-nea) jaio zen”. Jakina, garai hartan udaletxea Ostatu Zaharren zegoen.

Gerora, aberastasun handiaren jabe egin ziren Larreatarrak ere. Larrea Enean bitxi “asko” zeuden. Eustaquio Balentzategiren petxerako botoi brillantedunekin belarritakoak ditu moldatuta Maitek, eta ekitaldira haiek jantzita etorri zen. “baita izara brodatuak ere; altzariak, gauzak... goi mailakoa zen Larrea Enea etxea”.

Etxe barruko ondasunak ez ezik, herriko etxe eta baserri asko haienak ziren. Agerre, Argindegi, Itsasoko Zozabarro (Joxe Mari Iparragirre koblakaria hil zena)...

“Etxe hark hizketan baleki...”, dio Maite Berazadik. “Burges estilokoa zen, baina bertakoa, euskalduna. Arrunt euskalduna”, gaineratu du. Balentzategi/Balentzategi aldaera sarri tartekatuta bada ere, abizena zuten Balentzategi dela ziurtatu dute anai-arrebek.

Gabiriako eskolaren garrantzia herriko hezkuntzan

Testu idatzien nagusitasuna da gizarte modernoan ezaugarria; ahozkoaren balio handia izan arren, aberastasunaren zati handi bat galdu egiten da belaunaldien artean, eta, gainera, idatzita jasotzen den neurrian ezagutzen dugu. Aldiz, testu idatziak ezinbesteko izan dira erakundeak kudeatzeko, eta ekonomia berritzeko. Irakurtzen eta idazten jakitea giza kapitalaren funtsezko osagai ditugu gurean, aurrerantz egingo bada. Analfabetismoa gizarte baten atzerapenaren adierazpide izateaz gain, beste eragile askoren oinarria da (produktibitate baxuarena, industrializazio eskasarena, garraio eta komunikazio-sistema urriarena, bizitza-maila apalarena edo hilkortasun altuarena). Aspalditik jabetu ziren horretaz herri-erakundeak eta eskolei eustea izan da haien arduetako bat.

Gizarte baten hezkuntza-maila neurtzeko, lehen tresna alfabetatze-maila aztertzea izan da. Hurrengo laukian agertzen dira Gabiriari buruzko datuak biztanleen eroldak egiten hasi zirenetik 1930. urtera arte.

Lau datu deigarri atzeman daitezke koadroan. Lehenik eta behin, bereziki aurreneko urteetan, analfabetismoaren oso maila altua; bigarrena horren jaitsiera eskola berria 1912an ireki ondoren; hirugarrena, garai osoan nabarmentzen den gizon eta emakumeen arteko aldea. Izan ere, garaiko estatistiketan emakumeek baino

askoz ere gizon gehiagok zekien irakurtzen eta idazten. Herri baten atzerapenaren ikur ere bada, gizarte modernoek emakume alfabetatuak behar dituelako. Laugarren ezaugarria, irakurtzen bakarrik dakiteneen taldea desagertzea dugu. 1877an talde hori garrantzitsua zen, bereziki emakumeen kasuan, eta ia ez da existitzen 1930ean. Eskolaratzea ia erabatekoa izan zela adierazten du. 1877ko datuak, beharbada, doktrinaren ikasketarekin lotuta zeuden, ikasleek, hartaz jabetzeko, nahikoa zutelako irakurtzen jakitearekin.

Gabiriari asko kostatu zitzaion XIX.

mendeko analfabetismo-tasa altua makurtze-araztea. 1920 arte eroldaren erdiak baino gehiago ez zekien irakurtzen eta idazten. Une horretatik aurrera, ordea, jaitsiera oso azkarra izan zen, eta Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik jarri zen eta Espainiakoa baino askoz ere baxuagoa genuen. Eskola berriaren irekiera eta lurralde osoan ematen ari zen eraberritze ekonomikoa ditugu bilakaera horren abiapuntu eta akuilu.

Eskola zen alfabetatzeko iturri ia bakarra eta hainbat ezaugarri zituen. Hemen emango ditugun datuak mutilen eskolako liburu



Urtea	Irakurtzen daki gizonezkoak	Irakurtzen daki emakumezkoak	Irakurtzen eta idazten daki gizonezkoak	Irakurtzen eta idazten daki emakumezkoak	Ez daki irakurtzen gizonezkoak	Ez daki irakurtzen emakumezkoak
1877	84	112	114	29	295	359
1887	26	24	139	35	297	403
1900	8	27	165	86	241	309
1910	23	33	181	85	205	317
1920	-	-	286	188	197	223
1930	7	6	409	228	78	136

eta agiriariatik ateratakoak dira, nesken eskolako gehienak desagertu egin dire-lako. Denbora luzez udalak berak antolatu zuen oinarrizko irakaskuntza. Madozen hiz-tegiaren arabera Gabiriak 1850 inguruan "escuela incompleta" bat zuen, neska eta mutilak biltzen zituen eta udalak 1.100 errealekin ordaintzen zuena. 1857tik aurrera, Espainiako Hezkuntza legea (Moyano izenez ezagutzen dena) onartu zenetik, estatuak ikuskari bat bidali zuen irakaskuntzaren kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko. Hamabi urte bete arte, gero hamalau bete arte, zen doakoa eta derrigorrezkoa oinarrizko irakaskuntza. Ordainketa udalen eskuetan egon zen ia erabat 1902ra arte, handik aurrera irakasleen soldata eta eguneroko gastuak Hezkuntza Ministerioaren ardura ziren, eraikuntza mantentzearena udalarena. Gabirian ordutik aurrera bi eskola zeuden, bata mutilentzat eta bestea neskentzat; maisu eta maistra banarekin. Nagusientzat ere gau-eskola antolatu zen; 1947. urtean, adibidez, 41 mutilek eman zuten izena lehen hezkuntzan eta 27k helduen eskolan. Az-tiria auzoan, zenbat garaitan, eta neguko hilabetetan apaizak ematen zien eskola kaskora joan ezin zuten haurrei. 1952an eraiki zen bertako eskola eta maisuaren etxebizitza.

Beti gertatzen den bezala, herrian eragin ezberdina izan zuten irakasleak aritu ziren; Batzuek urte luzeetan aritu ziren bertako eskoletan. Horien artean irakasle nabarmenenak Franco hil arte Meliton Larrea, Juan Mujika eta Alvaro Suárez ditugu. Larrea XIX. mende bukaeran izan zen bertako maisu (ikus Aimar Maizen lana Makilariren ale honetan bertan), Don Juan 1932 eta 1958 bitartean eta Don Alvaro 1959 eta 1980 inguru bitartean.

Orain sinisteko modukoa ez izan arren, eskolak gela bakarra zuen eta han biltzen ziren ikasle guztiak, txikienetik hasi eta nagusietaraino. 40 lagunentzat ikasmahaiak zeuden bertan, baina sarri kopuru hori gainditu egiten zen, nahiz eta gero izena emandako guztiak eskolara ez etorri. 1956ko maisuak, adibidez, 13 mahai berri eskatu zituen. 1912tik aurrera eta egindako dohainei esker, eskolak baliabide pedagogiko ugari zituen: arbel, mapa, tresna eta era guztietako liburuak. Hala ere, diziplina zorrotza behar zen isiltasuna gordearazteko eta arretoa lortzeko. Ez ziren, beraz, harriztekoak, garaiko usadio, zigor fisikoak eta makilaren erabilera irakasleen aurka. Irakasleen piper-egitea zen, bestetik, maisu eta ikuskarien kezka nagusienetakoa bat eta txosten guztietan eskatzen zen azaltzea zenbat ikaslek huts egiten zuten bere egin-

barretan. Urte desberdinetako datuak ditugu eta ez ditugu denak eskainiko, baina bai, gutxi batzuek, bilakaera hobeto ikusteko. 1932. urtean, esaterako 98 neska-mutilek osatzen zuten Gabiriako ikasleria, 60 joaten ziren, bataz beste egunero eskolara. Estatistika oso nabarmena da, irakasleen bertaratze handiena udaberri eta udaran ematen zen eta txikiena urtarrilean. Hil horretan 35 mutil eta 16 neska baino ez zen hurbildu kasko eskolara. Gerra ostean ere egoerak bere horretan iraun zuen, nahiz eta pixkanaka jaisten joan zen. Jangela irekitzeak, 1954an, lagundu zuen aldaketa horretan eta hurrengo urtean ia inork ez zuen hutsik egin.

Bi arrazoi daude eskolaratzeko arazoa argitzen dutenak. Lehenik eta behin, faktore ekonomikoa. Eskola dohainik zen, baina eskolara joanez gero umeek ez zuten etxean laguntzen edo ez zuten etxera dirurik eramaten. Bestetik, baserriko lanek markatzen zuten egutegia: soroan lan egiten ez bazen ere, sorora joaten zirenak ordezkatu behar ziren etxean, adibidez, ama eta haren lanak. Giro horretan, behin baino gehiagotan gogorarazi zien maisuak gurasoei umeak eskolara eramateko obligazioa. Larriagoa zen arazoa urrutiko baserrien kasuan; izan ere, oso gogorra zen egunero bi aldiz eskolara joatea. Baserrien urruntasunak, bide txarrek, eta negu gogorrek, ez zioten laguntzen eskolaratzeari, eta zenbait gurasoren aldetik ez zegoen adore nahikorik hori bultzatzeko. Horrela, bada, eguraldi ona zenean lana zegoelako, eta txarra zenean, zaila zelako, aldizkako jarduera bihurtzen zen eskola.

Hizkuntzaren auzia zen bigarren faktorea. Gaztelaraz izaten zen eskola, doktrina izan ezik. Ume gehienek hizkuntza hura ez zekitenez, egokitu beharra zegoen, eta horrek hainbat arazo sortzen zituen: esandakoak ez ulertzea, irakasleen zigorrak jasotzea eta erdara pixka bat zekiten umeen trufak jasan beharra. Helburua garbi zegoen, gaztelania eta gaztelaniaz ikastea. 1864. urtean aurkitu dugu arazo horren lehen adibidea. Hezkuntza ikuskariak egindako bisitan maisuari gaztelaniaren irakaskuntza praktikoa bultzatzea eskatu zion, sarien eta zigorren bitartez. Gomendioa edo agindua behin eta berriro errepikatu zen hurrengo ehun urteetan. Ez dakigu Meliton Larreak euskaraz zekien ala ez, Zalduendoko izanik ez zen harriztekoa pixka bat ezagutzea eta



Gabirian hainbeste urte eginda, beste hainbeste ikastea, ikasleekin eta gurasoekin hitz egin ahal izateko, behinik behin. Ezaguna da, aldiz, Juan Mujika euskaldun peto-petoa izateaz gain, euskara erabiltzen zuela eskolako azalpenak ulergarriak izan zitezten. Hala egin zuten Errepublikako urteetan, baita Francoren garaian ere. Orduko ikuskariak goratu egin zuten Don Juanen jarrera, "resuelve admirablemente el problema del bilingüismo" eta oro har; txalotu egin zuten maisuak egindako lana, antzerkia eta zinearen bitartez herriko kultura maila igotzeko, baita jangela sortzeko ere. Haren atzetik etorritakoek, ordea, ez zuten bide bera jarraitu.

Francoren garaian giro politikoak ez zuten lagundu arestian aipatu ditugun arazoak konpontzen, baina maiz ahaztu egiten dugu gerraosteko pobrezia giroak ere eragina nabarmena izan zuela egoera bere horretan mantentzen. Adibide bakarra ipiniko dugu, eskolako aurrekontua 1934. urtean 208 pezetakoa, 1942an 196,40 pezetara jaitsi zen eta hala jarraitu zuen 1955. urtera arte.

Gutxi ziren eskolako lehen urteak amaitu ondoren ikasten jarraitzen zutenak. Ahal zutenek Donostiara (Gipuzkoan zegoen institutubakarrera), Bergarako dominikoetara Ordiziako Goyeri Lanbide Eskolara edo Zumarragako Lasallera jotzen zuten. 1950. urtean 3 lagun baino ez zeuden Erdi Mailako ikasketak egiten herritik kanpo.

Eskolako oroitzapenak belaunaldiz belaunaldi



1988

Lehenago edo geroago, gutxi ala asko, gabiriar guztiak ibili gara eskolan. Oso toki gutxitan gertatzen dena bizitzeko aukera izan dugu herritar guzti-guztiok, gainera: denok eskola berean ibili gara. Garaiak, irakasleak, metodoak, gizartea eta ikasleak eurak ere aldatu dira ederki, baina 1912 urrun hartan inauguratu zuten etxe handiak sendo dirau, ehun urtean zehar herriko neska-mutikoak hartzen. Izan 80 urteko, izan hiruko, elementu komun bat badugu gabiriarrok, edozeinen bizitzan horren garrantzitsua den eskola-elikagaia zilborreste beretik eta sehaska berean kulunkatuta hartu izana.

Ez da harritzekoa, beraz, hainbat gertaera edo bizipen antzekoak izatea. Batzuen oroitzapenak oso onak izango dira, beste batzuek gazitik gehiago edango zuten. Baina ziur denek gorde dutela zerbait goxoa ordutik; haurtzaroa zelako, bertako eskola zelako, herrian zelako. Edo, ehun urtean gutxienez aurreko neska-mutiko guztiak ere han ibili izanaren babesa sentitzen delako horma lodi horien artean.

Ondorengo testigantzak herritar batzuen bizipen pertsonalak dira. Milaka izango dira, eskolan ikasle izan ziren lagunak bezainbeste bai. Denborak aurrera egin arren, eta garaiak aldatu badira ere, hona hamabi haurren kontuak.



Juan Murua Garin

(1924-11-27)

6 urterekin hasi nintzen eskolan opor ondoren. Oporrak orain baino motzagoak izaten ziren udan, Gabonetan gabon egunak bakarrik, eta Aste Santuko egunak. Aurreneko egunean aitak eraman ninduen eskolara eta errekreio orduan, iturri ondoko paretatik salto egin eta korrika joan nintzen etxeraino.

Nire lehen maisua Don Zesareo izan zen, 1930. urte inguruan. Bi ikasurte inguru egin zituen. Gero Antonio etorri zen 15 egun inguru eta ondoren, Juan Mugika, Albizturkoa. Aurretik Alejandro egon zen, kaminoan gora eta behera ibiltzen zelako ezagutzen nuen.

Oinez joaten nintzen eskolara. Kaminoan gora abiatu eta bidean lagun kuadrila handia elkartzen ginen, baina ez genuen elkartzeko ordurik jartzen. Itzulera, berriz, denak batera egiten genuen.

Batzuetan eskolara 8:30etan sartzen ote ginen susmoa dut. 11:30etan dotrinara joaten ginen, ondoren bazkaltzera etxera eta 2etan berriro eskolara. Joxe eta Paulo, anai txikiagoak hasi zirenean, eskolako bidea behin baino gehiagotan egiten genuen, atzeratuta gelditzen baitziren anaiak eta beraien bila joan behar izaten nuen laguntzera eskolara iritsi ahal izateko.

Liburu guztiak gazteleraz genituen, baina Juan maisuak esplikazioak euskaraz ematen zizkigun eta lanketa gaztelaniaz burutzen genuen. Astean arratsalde batean "Don Quijote" irakurtzen zuen maisuak, diktaketa egin eta ortografia lantzeko. Matematika eta geografia lantzen ziren gehien. Eskolan tinta erabiltzen genuen idazteko eta borroi ugari egiten genituen. Etxean arkatza erabiltzen genuen. Mutilek ez genuen eskulanik egiten eskolan. Neskak bordatzen aritzen ziren.

Etxerako lanetarako kuaderno bat izaten genuen, bi edo hiru problema alde batean eta idazlan bat egiteko gaia beste aldean erabili beharreko 4-5 hitzekin. Bizkarrean, mahonezko oihalez egindako poltsa batean eramaten genuen etxera. Behin maisuak horrela jarri zigun: Descripción de la cesta de mimbre. Utiliza la palabra borde. Batek hala jarri zuen: "Borde, daukanak gorde, ez daukanak que se jode". Maisuak kuadernoa hartu eta haserre txikitu zion kuadernoa.

Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ginen eskolan, baina dotrinara elkarrekin joaten ginen "kobertizora". Don Eduardo plazan ibiltze zen paseatzen inork ez alde egiteko.

Gerra denboran etxean egon ginen egun batzuetan eta itzuli ginenean 6 kartel

genituen gelan, zenbait mezu frankistekin eta irakurri behar izaten genituen:

"El nacionalismo vasco tuvo como base un inecuo falseamiento en la historia...". "El patriotismo español..." Goizetan "Cara al sol" abestu ondoren hasten ginen lanean.

Bolada batean, errekreio garaian, jolastu ordezkaria egiten genuen plazan. Instruktoarea herrikoa zen. Egurrezko fusilak erabiltzen genituen, puntan baionetarekin. Korreajea mutikoen neurrikoa izaten zen. Fusilak Etxeberriko goiko pisuan, gaur egun Erbie elkartean, uzten ziren. Korreajea etxera eramaten genuen eta hurrengo egunean ekarri. Zuazolako Joxe Zelaiak ez zuen ekarri korreajea eta kontuak eskatu zizkioten. Ezin zuen ekarri aitak astoari jarri zizkiolako.

Gau eskolan ere ibili nintzen, 14 urtetik gorako mutilak ibiltzen ginen bertan. Udazken-negu garaian izaten zen, egunean ordubete. Egunez etxeko lanak egiten genituen eta eskolan lehen ikasitakoak berritzen genuen.

Juan Murua Garin



Maria Luisa Jauregi (1926-12-24)

Sei urte nituela hasi nintzen eskolan, oso gustura hasi ere, asko gustatu baitzitzaidan eskola hasi nintzenean. Hala ere, ezin izan nuen asko joan, arreba zaharrena Errenteriarra joan zen bizitzera, anaia zaharrena lanean aritzen zen eta aitari, berriz, hankan zauri batzuk irteten zitzaizkion eta askotan ezin izaten zuen lanik egin. Horregatik etxean gelditu behar izaten nuen lanean, eta 10 urtetik aurrera oso gutxi joan nintzen eskolara. Egundoko disgustua izan zen niretzat besteen mailatik atzera gelditzen ari nintzela ikustea.

Nire lehenengo irakaslea Maria Murua Izar Handikoa izan zen, ondoren nire koinata izango zena. Ondoren Hernaniko irakasle bat izan genuen, Srta. Etxebeste esaten geniona. Azken hau gerra zibilak Madrilen harrapatu zuen eta handik itzuli ezinda geratu zenez, hirugarren irakasle bat ere izan genuen, baina ez naiz bere izenarekin oroitzen. Hauekin guztiekin erdaraz hitz egin behar izaten genuen, bai gerra aurretik eta baita ondoren ere. Euskaraz hitz egiten harrapatzen bagintuzten, katutxo bat jartzen ziguten paparrean, katu baten figura, eta katu hau astearen amaieran paparrean zuenak komunak garbitu behar izaten zituen.

Srta. Etxebeste nahiko irakasle ona zen, borondate ona zuen eta ez zen pertsona txarra, baina norbait gaizki portatu edo

hizketan ari bazen, eskua itxita buruan jotzen gintuen. Egun batean, ikasle batzuk broma bat egin behar ziotela pentsatu zuten, jotzen zituenean min handia hartu zutenaren planta egitea pentsatu zuten. Horrela, berriketan ari zela eta Otsategiko Feliciano jo zuen buruan. Honek konortea galdu zuenaren planta eginez bere burua lurrera bota zuen, oso ondo egin omen zuen antzerkia eta batzuen artean irakaslearen etxera eraman ezinik ibili omen ziren, Felicianak barreari larri eusten zion bitartean. Hau gertatu zenean, ni ez nintzen eskolan baina halaxe kontatu zidan Anbuko Bixentak geroago.

[Maria Luisa Jauregi](#)



Migel Garziandia (1928-09-01)

GABIRIKO ASTOA

Lenago izango ziran asto asko Gabirian, eta orain ere or ibiliko dira gure zelai eder oietan. Asto asko baña batekin gogoratzen naiz bereziki, berarengatik ondoren txarrak edukitzea al izan zan eta. Nere ezurretan alegia.

Ni aur nintzeneko kontua da au. Bost urte inguru izango nituen garai artan, eta sekretarioneko Mielitoz ezaguna nitzen.

Egun batean, nere arreba zarrena Maria ere zai zebilela, jolasean gabiltzan –aurrak eta zaintzaileak- gure eskolako terrazan, askotan ibiltzen giñan bezela.

An nebilela ostatu aurrean asto bat, bertan lotuta zegoena, ikusi nuen. Ez dakit zergatik bañan berealdiko poza eman zidan astotxo orrek.

Astoa, astoa! indarrez deika asi nintzan, terrazako baranda gañera igoaz, ostatu aldeko paretean, gertuago eta obeto ikusteko seguro asko. Eta nere poza eta itxumena barrenean nituala, gotik bera erori nintzan, altura handiena zegoen lekutik.

Nere arreba Maria eta an zeuden bes-



Benito Arrondo (1936-02-20)

1936ko gerra urtean jaio nintzen Oñatibi baserrian eta sei urterekin hasi nintzen Gabiriko eskolan.

Bertan ikasi nuen hamahiru urte arte. Urte hartan, 1949an, aitak Deustuko salesianoen kolegiara eraman ninduen arotz ofizioa ikastera.

Gabiriko eskolan pasatutako rekuerdoak oso onak dauzkat, maisu oso ona eduki genuelako.

Nik maisu bakarra izan nuen Gabirin, Don Juan Mujika, Albizturren jaioa eta geroago Izar txikiko Kandidarekin ezkondua.

Urte hauetan liburu denak erdaraz ziran, eta guk erdaraz ez genekien, Juan maisuak ondo asko ententiduarazten zigun, nahiz gurekin beti euskaraz egin.

Espainiako legeak zioenez, sarritan kantatu beharra omen zegoen "karal sola", guk apenas kantatu genuen, inspektorea etortzen zenean edo horrela.

Juan maisua oso euskalduna izanik, erakusten ere ona zen, edade guztietako umeak eduki arren ondo preparatu gintuen. Begiratu besterik ez dago Gabiriko eskolan bakarrik ibilita, hainbat mutilek lanpostu garrantzitsuetan destakatu genuen. Neuk ere arazorik gabe aprobatu nuen hamahiru urterekin Deustuko kolegioko ingresoa.

Berrogei berrogeita lau bat mutiko ibiltzen ginen eskolan, handi eta txiki, denak batera, eta hala ere nahikoa ikasi. Orain zer pasatzen da?

Beste aldetik, urte haietan, eskolak beste zailtasun batzuk bazituen, batez ere gertu bizi ez ginenentzako.

Guk lau aldiz egiten genuen Oñatibitik eskolarako bidea, nahiz uda eta negu. Bazkaltzera etxera eta berriz eskolara.

Normalean gure oinetakoak gomazko

abarkak izaten ziren.

Behin baino gehiagotan alpargatekin joan eta euria eginez gero, alpargatak eskuan eta hankautsik etxera.

Euria zenean, baziren zakua burutik hartuta etortzen zirenak, beste batzuk guardasol zaharren bat izaten genuen.

Hori bai, bidean beti izaten zen entretenigarriren bat, Arroan gereizak, intxaurak edo kañaberak (txistu edo txilibituak egiteko) eta nola ez Artzainen, Etxeberribizkain, Izar haundi eta Izar txikin. Beti zerbait tentatzeko, oraingo umeek nola dena daukaten ez dute horretarako ardurarik.

Amerikako "la Nasa" baino lehenago bialdu genituen gora "koeteak" kamiño baztarrean karburu eta pipar pote zaharrekin eginak, begiondoko ederrak hartzeko arriskuarekin.

Askotan eskolatik etxera etorri eta behi zain joan beharrak izaten ziran gure debereak, gure etxean behintzat.

Eskolan estufa txiki bat bazen egurrekin berotzeko baina berotu baino ke gehiago egiten zuen.

Elurra eta hotz handia zenean, maisuak bere etxean ematen zigun eskola (orain Ane Miren bizi den etxean).

Juan maisuak bizio bat zuen, ehiztaria zen. Gu mutikoak deseatzten egoten ginen usoak noiz pasatuko, bera Murgila joateko, eskolako orduan, baino hori gutxitan izaten zen.

Beste entretenigarri batzuk ere izaten ziren: tiragomak. Geuk egiten genituen pneumatiko zaharren gomakin.

Anekdotak. Aundittegiko Patxi, praktikak bajatuta pikotxean zegoela, Alkain ondoan, atzetik etorri eta Etxeberribizkaiko Josek tiragomakin harria tira eta pitillean jo zuen, medikua ekarri behar izan genuen.

Eskursioak: Nik bi egin nituen, hara hemen beren istorioa.

Aurrenekoa (nik zazpi urte neuzkan): zazpi eta erdietan Barretxetik irteera Donostira joateko, hamar eta erdietan auto-

teen zalapartak etziran txikiak izango. Bereala eraman nituen gure etxera, bada erori lekua eta secretarioenea oso gertu zeuden.

Mundu guzia arrituta zegoen izan nuen zorteagatik, Andik erori eta ezer txarrik pasa ez. Ez golperik ez iñungo miñik. Zorte ona bakarrik.

Bañan danak etziran iritzi berdinekoak. Nere ama Euxebi mirari bat igaro zela ustetan gelditu zan. Bai, benetako mirari aundia. Eta emen nun oñarritzen zan uste ori izateko. Gertakizun ori zan, itsura danez, Aingeru Guardakoen egun berean, martxoaren bian alegia.

Eta nere ama zanaren ustetan, aingeru guardakoak bere ego txuriak zabaldu zituen, eta ainbeste maite zuen Mielito lur gaiñean poliki poliki utzi zuen. Eta bitartean astotxoia lasai ostatu aurrean.

OARRA

Txiki-txikitatik asita, Gabiriako eskolatik zuzenbide fakultatean bukatu arte, nere ikasketa guztiak erderaz egiña naiz, Francoren garaiak bait ziran aiek zoritxarrez.

Egoera orrek gure izkuntzan ondo idazteko zailtasunak eman izan dit. Eta ala bearkodu ia berandu xamar da gauzak arlo orretan obetzeko.

Bati bat "H" nun jarri jakitea da neretzat zailtasunik andiena. Orregatik batere ez det erabiltzen.

Zer zorionekoak oraingo gazteak, gure euskera maitean ikasketak egin al izan dituzuelako.

Agur.

Migel Garziandia

busa arrankatu motorra gasogearekin baitzuen. Donostin funikularren Igeldora igo eta zinea bota ziguten, gauza handia zen ordurako. Okena etxerako bueltan dator. Alegi-Tolosa aldean autobusa aberiatu eta denok oinez ilunduta kaminoz, Legorreta parean autobusa azaldu zen, baina txikiak bakarrik hartu gintuzten. Gu goizeko hiru-etan ailegatu ginen etxera eta handienak maisuarekin oinez goizeko bostak jota. Neska eta mutil denok ginen.

Bigarrena: ez naiz akordatzuten zenbat urte neuzkan, bakarrik hilabete pare bat autobusentzako kubiarta berrien zain egon ginela. Asteazkenetan Barretxe autobusarekin Ordiziko peritik etortzen zen Gabirira. Maisuak irtetzen zion ostatu aurrera kubiartangatik galdetzera. Gu mutiko denok leihotik begira, nahiz ez aittu zer esaten zuten, Barretxen keinua nahikoa zen. Halako baten etorri ziren ditxosozko kubiartak eta egin genuen eskursioa Mutriku eta Ondarru aldera.

Neskek dena erdaraz izaten zuten eskola. Maritxu Garate ez zen euskaldunen aldekoa (blanko-rojo-verde nacionalista mokoverde) esaten zuten.

Ni Deuston nengola, karta batean hala jartzen nion nire arreba Isabeli (orduan dena erdaraz izaten zen). Que tal andais en la escuela, ahi estara la maestra sin mucho fundamento. Isabel eskolan karta irakurtzen maestraz ikusi eta berak irakurri. Handik hogeita bat urtera neskan eskolako ate bat ixten e z zela gelditu zen, joan egin nintzen konpontzera, orduantxe egin ginen lagun, bitarte guztian hainbeste urtetan ez baitzidan hitzik egin.

Zazpi urtetan gorabeherak izaten dira. Izan ziren kastiguak, piparrak eta abar. Ez naiz gogoratzen maisuak sekula jo ninduenik. Gabiriko herriak asko zor dio Juan maisuari.

Benito Arrondo



Euxebio Igartzabal (1944-07-16)

Gu hor ibili ginela ere badira hirurogei urte eta badauzkagu oraindik gogoratzen zaizkigun zenbait ibilera edo gertakizun.

Lehenbizikoa zen guk euskara ez beste hizkuntzarik ez genekielako eta irakaskuntza guztia gaztelaniaz zela. Pentsatu besterik ez dago ezagutzen ez den hizkuntza batean zenbat ikasketa egin litezkeen lehenengo hizkuntza ikasten ez bada. Hemen aitortu beharra daukat guk suerte handia genuela, oso leku gutxitan zutena, maixu euskalduna genuen eta antz ematen zionean ez genuela ulertzen saiatzen zen ulertu arazten edo zerbait jaso genezan eta ez zen gutxi.

Gero urtean zehar inspektorea etortzen zenean, hark galdera denak gaztelaraz eta jakin beharreko hizkuntza hura zen. Maixuak, Don Juanek, bazuen inspektore bat behintzat gozatzeko sistema. Saltsa perretxikuak edo xixa horiak gustatzen zitzaizkion asko, eta hor ibiltzen ginen etorri aurretik bildu, hariak sartu, aroak egin eta lehortzen zintzilik jartzen. Inspektorea aldatu zenean, gure inbentua hondatu zen.

Problema: matematikako lanei hala deitzen genien, paper "retangular" batzuetan idatzita egoten ziren kurtso bakoitzeko-koenak gomakin lotuta.

Diktadoa: gehienez Don Quijote de la Mancha liburutik. Santxo Panza, Dulcinea, Rocinarte, Rucio eta horrelako hitzak orduan ikasi genituen.

Historian: Euskal Herria bazenik edo izan

zenik ere ez genuen ikasi. Errege Katolikoekin garaian España zer handia zen eta handitasun hori puskatzen hasi zenean, Frankok nola salbatu zuen.

Jolasak: Talloketan, puxineketan, harrapaketan, palilloketan, kuriketan. "Tabatan, neskak". Pelotan arkupetan, fuera-ketan zenean, mordoxka kabitzen ginen; bestela, gehienera lau.

Kanpo futbola gu oso txikiak ginela egin zen, erdian bidea zuela, baina bi porteri bazituen eta gustora ibiltzen ginen, baloi itxurazkorik bilatzen bagenuen, zeren hori zen beste kontua, nolako baloiak?

Ehun urte hauetan Gabiriko eskolak igaro duen arriskurik handiena pikutara joateko orain hogeita hamar urte 1982-1983 kurtsoan izan zuten.

Ikastolak eta inguruko eskolatan euskaraz irakasten hasi zirenean. Gabiriko haurrak batez ere Ormaiztegin hasi ziren eta Gabiriko eskola haur batekin gelditu zenean. Uste dut balio izan zuela inspektoria joan, euskaraz jartzen bazen Gabiriri irakaskuntza, haurrak izango zirela han sinistara. Han zeudenen borondatea. Etorri zen maestra eta Ormaiztegin zebiltzan umeak Gabirira ekarri zituzten gurasoek. Guzti horrek balio izan zuela uste dut Gabiriko eskolak aurrera segi dezan. ORAIN AURRERA!

Euxebio Igartzabal



Maria Angeles Bidegain (1959-03-01)

Sei urte nituela hasi nintzen eskolan. M.Eugenia Garate, "Maritxu" edo "Maistra zaharra" izan nuen maistra lehenengo bi urteetan. Maistra zaharra zergatik deitzen genion ez daukat oso garbi: zaharra iruditzen zitzaigulako –orain jarri pentsatzen eta gu orain garen baino gazteagoa zen, alajaina!– edo zen urte asko zeramalako Gabirian maistra, gure amaren maistra ere bera izan zen-eta. Behin, ikuskaria edo inspektorea etorri eta Maritxuk esan zion gu bere bilobak ginela eta ikuskariak, harri eta zur; hala esan zion: "No sabía que estaba casada" eta maistrak, harro-harro: "No, no, son mis nietas porque sus madres también fueron mis alumnas".


Ez dut gogoan eskolako nire lehenengo eguna, baina bai ondorengo asko, nire buruan iltzatuta geratu direnak. Egunero ateratzen zuen maistra zaharrak Espainiako bandera leihora. Eta gu han egoten ginen terrazan, eskolara sartzeko bere zain. Orduan, Cara al Sol kantarazten zigun, baina neskarik zaharrentxoak leiho hotsa entzun orduko, korrika ihesi joaten ziren. Gaur balitz bezala gogoratzen naiz, ni harrituta eta ulertu ezinik egoten nintzen zergatik ihes egiten zuten. Ez nintzen berehalakoan jabetu, inuxentea ni!

Gorra zen M.Eugenia, eta bazuen halako

aparatu bat entzun ahal izateko: kriston amatostea zen eta kolkoan edukitzen zuen, baina noizbehinka, nik ez dakit zergatik, deskonektatu edo egiten zitzaion, edo ondo jarri behar izaten zuen, eta klase erdian han aritzen zen bere aparatu horrekin atzera eta aurrera. Eta, noski, momentu horretan ez zuen ezertxo ere entzuten. Orduan izaten zen festa! Zaharrentxoak han hasten ziren zirenak eta ez zirenak esaten "maistra zaharra, alue, madarikatue, nazkagarrie..." desaogatzeko modua izaten zen; izan ere ez zen giro izaten Maritxuren klasean, piperrozpindutako emakumea zen, beti haserre, eta pazientzia auzoan izaten zuen. Bat baino gehiago eduki zuen bere mahai azpian zigortuta, ostikoka zuela.

Beste batean, gogoan dut nolako belarrondokoa eman zion neska bati honek ahizpa gazteagoak etxerako lanak egin ez zituelako. Eta niri ere, jo ez baninduen ere, a zer nolako sermoia bota zidan, ez dakit zer bihurrikeria egin nuelako, eta hala esan zidan: "A ti de nombre M.Angeles no, M. de los Demonios te tenían que haber puesto"

M.Anjeles Bidegain



Lierni Aranburu

(1962-07-10)

Ni, bost urte nituela hasi nintzen eskolan, juxtu "Maistra zaharra" joan zenean, zeren eta ordura arte 6 urterekin hasten ziren.

Maistra asko izan nituen: Maribel, Rosamari, Kontxita, Sokorro, Emiliana eta Ana Mari. Urte gehienetan Ana Mari izan nuen maistra, baina, haurdunaldiak zituenean ordezkioak etortzen ziren, horren ondorioz izan ditut honenbeste maistra.

"Maistra zaharra"ren kontuak entzun ditut, eta nik ez dut gogoratzen izan nituen maistrak hain gogorrak zirenik. Gogoan dudana da goizeko bederatzietan sartzen ginela eskolara eta Ana Mari etxeko balkoitik giltzak botatzen zizkigula eskolan sartzeko.

Gogoan dut baita Emiliana bere ahizparekin eskolara etortzen zela, eta bere ondoan eserita egoten zen kuleroak eta beste arropa batzuk konpontzen bestiak eskola ematen zuen bitartean. Esan behar dut hau izan zela nik izan nuen maistra euskaldun bakarra.

Nire azken urtean, 75-76 ikasturtean, bat egin zuen eskolak eta lehenengo aldiz mutil eta neskak batera joaten ginen Alvaro maisuarekin. Aldaketa handi xamarra izan zen niretzat, batez ere gogorragoa zelako nik izan nituen maistrekin konparatuz; hala ere, neskekin baina gogorragoa mutilekin zen. Irakasteko modua ere nahiko desberdina zen, nere ustez matematikari askoz ere garrantzi handiagoa ematen zion. Alvarorekiko beste gauza bat dut gogoan: "Maria Lierni" izenez deitzen zidan bakarra zen eta niri ez zitzaidan batere gustatzen.

Azkenik akordatu naiz, azken bi urtetan frantsesa ikasi genuela, eta Alvarok ez zekienez, Elizaldeko M.Anjelesek erakutsi zigula.

Lierni Aranburu



Iñaki Etxezarreta (1971-01-13)

Ni, Gabiriako eskolan sei urterekin hasi nintzen eta bertan egon nintzen 5. mailara arte. Urte hartan hasi ginen 6., 7. eta 8. mailak Ormaiztegin egiten; ordura arte 8. mailaraino Gabirian bertan egin zuten. Ni izan nintzen D.Alvaroren azken "promoziokoa"; Ormaiztegiara joan nintzen urtean etorri zen Ixabel Gabiriara.


Pentsa, sei urterekin, etxetik ia atera gabe eta klaseak erdara hutsean! Gainera, egunen batean gu baino zaharxeago zen batek, etxeko lanik egin ez edo gaizki egiten bazituen, han zeukan prest D. Alvarok 50 cm-tako erregela, behatz puntetan emateko edo bestela "al cuarto de los ratones". Hau guztia ikusirik, beharko saiatu behar, nahiz eta askotan zer esaten zuen ez ulertu. Hitz egin ere errespetuz eta usted-ka.

Gelan, neskak eta mutilak elkarrekin egoten

ginen eta binaka eseritzen ginen pupitretan. Pupitreko tinteroak erabiltzen genituen uda garaian kirkilak bildu eta bertan sartzeko. Ikasturte amaieran, bakoitzak bere pupitrea lixatu eta txukun-txukun utzi behar izaten zuen hurrengo ikasturterako.

Gogoan dut, behin, Elizaldeko Pello eta ni atera gintuela arbelera zatiketa bat egitera. Zatiketa egiteko baino jolasteko gogo gehiago eduki nonbait eta, maisua konturatu zenean, bakoitzari burutik heldu eta ahari moduan talka egiten aritu zitzaigun; biak ere buru gogorra eduki!

Iñaki Etxezarreta



Ibon Elgarresta (1975-08-08)

Hiru urte bete eta eskolan hasteko garaia iritsi zen. Garai hartan Gabirian euskaraz ikasteko aukerarik ez zenez, Ormaiztegiako eskolan eman nituen lehenengo urteak.

Gabirira klaseak euskaraz emango zituen "andereño-monja" bat etortzekotan zela eta, zazpi urterekin etorri nintzen Gabirira. Ez ginen ume asko hasera hartan, dozena bat inguru, baina saiatzen ginen Ixabel andereñoari lan pixka bat ematen.

Akordatzen naiz, elurra zuri-zuri zela, gu ere ezin egon ba elurretan jolastu gabe eta goitik behera busti-busti eginda sartu gine-la errekreotik eskolara. Han jarri gintuen Ixabelek, prakak kenduta, butanoko estufaren aurrean sekatzten.

Bazkaltzera Ostatura joaten ginen, Maria Jesusek beti izaten zuen bazkari goxoa prest, baina gure gosea ere halakoa izango zen eta eseri orduko han hasten ginen mahaiko ogia jaten. Hala esaten zigun Ixabelek: "jan ezazue ogi apur bat, baina tripa engainatzeko beste bakarrik".

Bazkal ondoren ere, eskolara sartu arteko denboran beti asmatzen genuen jolasen bat. Bazkal ondo batean, inori ezer esan gabe kanposantu aldera joan ginen jolasera. Gustora ibiliko ginen eta ez genuen eskolara sartzeko presarik izango, eta halako batean han ari zen Ixabel, Baltsaleku aldetik jenio biziz guri hoska. Pazientzi handia zuen emakume hark, baina egun hartan benetan haserretuta ere ikusi genuen. Bera ere akordatzen da oraindik egun hartakoaz.

Hasieran Ixabelekin bakarrik egon ginen, baina gero Mila Arrondo ere izan genuen andereño. Baita Ane Miren ere geroxeago. Berarekin eman nituen azkeneko urteak, orduko EGBko bosgarren maila bukatu arte.

Egia esan, urte haietako oso oroitzapen onak geratu zaizkit.

Ibon Elgarresta



Aimar Maiz (1978-07-10)

ESKOLAN, BURUZ

Horrelaxe ikasten genituen gauzak Gabiriako eskolan; buruz. Ixabel Katari-inekin lehenik, Mila Arrondo eta Ane Miren Aizpurrekin geroago. Ez geneukan apunterik hartu beharrik; hain ziren gauza politak, buruz ikasi baino gehiago barneratu egiten genituela; buruan hartu.

Buruan, beste gauza bat ere hartu nuen nik eskolan. 1983ko urriaren 7an, ostirala, eskola aurreko terrazatik “hegan” egin nuenean. Ez nintzen lehenengoa, baina zorionez azkenekoa bai geroztiko 30 urteotan —eta jarrai dezala horrela—.

Bost urte nituen, eta Ixabel moja idiazabaldarra zen gu denon maistra. Errekreo garaia izango zen, terrazan jolasean genbiltzan eta. Axtixaingo Ibon han zen, Baztarrikako Iñaki ere bai; bi horiekin garbi akordatzen naiz. Kotxe txikiekin ari ginen, aldenik alde irristan botaz. Batek bidali, besteak hartu, puntarik punta. Halako batean, nire bolidoak beste aldean zegoen atezaina gainditu, eta terrazatik behera alde egin zuen, Ostatu aldera.

Baranda baxua zuen orduan terrazak. Bost urteko mukizuaren gerriraino ozta-ozta iritsiko zen. Kotxea nora erori zen, terrazatik goitik behera begira hasi nintzen. Eulogia Mendizabal zena Ostatu aurrean zebilen, paseoan, eta hura gerturatu zen hartzera. Hormaren barreneko asun tartean hankarekin bila hura; ni goitik begira, kotxea ikusiko ote nuen.

Baranda gaisetarik gehiegi aurreratuko nintzen, ezen kotxe txikiaren bide bera hartu nuen. Muturrez behera joan nintzen, airean. Kapritxo, idatzi hau egiterakoan neurtu dut altuera: 3,20 metro daude terraza-zorutik lurrera (orduan gehixeago, gaurko harrizko lurrik ez eta asfaltoa zegoelako behean). Esan beharrik ez, egundoko zartakoa hartu nuen. Iskanbila berehala sortu zen. Beste

ume guztiak garrasika; eliz atari inguruan zebiltzan Lontxo, Jon Ander, Eñaut, Ane, Idoia, Eli, Usoa..., eta buila hotsekin segituan jakin omen zuten zerbait gertatu zela. Kurioa da; lagun askok dakite une hartan non zeuden eta zertan ari ziren, zehatz-mehatz. Gregori zena, Ostatuko Maria Jesus... Herri kasko guztia aztoratu zuen nire kaskarrekoak.

Handik aurrera, neure buruarekin nahiko lan. Baina ez dut uste kordea inoiz galdu nuenik. Ez 112, ez anbulantzia, ez ezer. Norbaitek amari hots egin zion lantokira. Orduan Ostatuko Nikolasek ere Edersilen lan egiten zuen, eta hark ekarri zuen, Renault 12 luze urdinean. Nikolasek hartu kotxean, aurpegi alde guztia odole-tan nuela, eta harekin joan ginen Beasaingo San Migel klinikara (ertzainen basea dagoen ondoan zen). Negar batean joango nintzen ni bidean, “hori ez duk ezer, moiteill!” esanez lasaitu nahi izan omen ninduen Nikolasek. “Ez, zera! Eta nik hartu dudan muturrekoa?” erantzun omen nion, zotin artean. Hori behin baino gehiagotan gogorarazi dit Nikolasek, barrez. Ixabel maistra ere atzetik etorri zen, bere kuartro-ele zurian.

Beasaingo klinika hartan begiratu zidaten (ustedut Aranburuko Lurdeszagoela harreran lanean), eta berehala Donostiako erresidentziara bideratu ninduten. Orduan bai, anbulantzian, R12 luzearen tankerako batean. Bideko irudiak ere gogoan ditut: ni ohatilan etzanda, ama ondoan, anbulantzia ulu batean lehengo N-1 zahar eta eterno hartan.

Lurrera sudurra iritsiko zen lehendabizi, hark eraman zuen-eta parterik txarrena.

Sudur hezurra hautsi zitzaidan. Operatu egin ninduten, baina ez berehala. Iluntze hartan etxera bidali ninduten. Odolbil-duak eta handituak pixka bat jaitsi zirenean, urriaren 19an operatu ninduten Donostiako ospitalean, bezperan ingresatuta. Kirofanoko sarrera, amari aurrera segitzen utzi ez ziotenean sentituen herioa, negarrak, operazio mahaiaren gaineko argi-foko handiak... Jare egin izan balidate, korrika alde egingo nuen handik. Dena gogoratzen dut, lokartu ninduten arte.

Egun batzuk egin nituen ingresatuta, erresidentzian. Igeltsuzko maskara bat jarri zidaten, aurpegi osoa estaliz. Sudur zuloetan, berriz, bendazko ziriak sartuta. Haiek kendutakoan hartu nuen lasaitua ere ez zen makala izan! Gelakide lkaztegi-tako mutiko bat nuen, porteria gainera erori eta hortzak txikituta zegoena. Pare ederra egingo genuen.

Etxera 21ean bidali ninduten. Buelta bidean, N-1 eternoa ohi baino luzeagoa bihurtu zen. Amarekin kotxean biok, gurpil bat zulatu zitzaigun Tolosatik Alegiara bitartean, Artzabaltzako papertegitik aurreragoko bueltan. Motorrean zetorren Amezketa gizon bat gelditu zen, eta hark aldatu zuen gurpila. Ni, bien bitartean, petrilean eserita egon nintzen, pasatzen ziren gidari guztiak izutzeko moduko musajearekin. Inork ez zuen bazterrik jo, hala ere.

Herrian, hurrengo egunak ere oso ondo oroitzen ditut. Batez ere jendeak ipintzen zuen aurpegiera, nirea ikusitakoan. Aurpegia puztu-puztu eginda eduki nuen denboraldi batean; masailak ubelduta, begi inguru guztiak belztuta, ezpainak hazita. Egundoko izu aurpegiarekin begiratzen zidaten lagunak eta lehengusuek; helduek, errukiarekin. Gogoan dut Urrutiko Santi —alkate zen orduan— nola geratu zitzaidan kotxearekin, eskola atzean, zer moduz nengoan galdetzeko. Dena esan behar bada, mimo batzuk gehiago ere jaso nituen, bai.

Horretan gelditu zen guztia, eta hemen gabiltza. Kolpea izugarria, sudurra txikituta, baina konplikazio gehiago ez. Hala uste dut behintzat! Terrazan, lurreko hormigoi plakaren azkeneko marratik pasatzeko debekua ezarri zuen Ixabelek, ordutik. Eta denek errespetatzen zuten, lezioa guztiok ikasi baikenuen; batzuek, buruz hartuta.

Portzierto... Kotxe txikia aurkitu zuten, eta eman zidaten. Sukaldeko apal batean egon zen urtetan, nire amabirjina partikularren estampa bailitzan.

Aimar Maiz



Arantzazu Baztarrika (1990-03-24)

Azken urteetan beste askok egin duten moduan, lehen hezkuntza egin nuen nik Gabiriko herri eskolan, hiru urte nituenetik hamabira bitartean. Bertan pasa nituen bederatzita urte horietan irakasle ugari pasa ziren, batzuk beste batzuk baino gustukoago nituen, eta asko jadanik ahaztuak ditut. Baina nik oroitzapenak ditudan garaitik gaur egun arte bertan dirau Ane Mirenek. Uste dut oso zaila egingo litzaidakeela eskola irudikatzea bere irudirik gabe, bera baitzen

goizero eskolara sartzeko atea irekitzen ziguna ere, batzuetan zain denbora ugari pasa ostean, nahiz eta denbora hori jolas-teko ongi aprobetxatu.

Eskolari dagokionez, guztiok dakigu gure eskola hau berezia dela beste eskolekin konparaturik. Eta ez dakit zergatik, eta nola, baina horren ondorioz bertatik irteten garenek ere bereziak gara esango nuke. Pertsona guztiak dituzte beraien jatorrizko eskolako anekdota antzekoak, baina oso

gutxi esan dezakete asko jota klasean hamar pertsona egoten zirela, eta hori adin ezberdinetako jendea juntaturik izaten zela, edo beraien jolaslekua herri-gune osoa izaten zela, zein matematika klasetan musean ikasi zutela eta eskursioan kanpotik herrira etortzean, pike ikaragarriak sortzen zirela kanpotarren eta bertako ikasleen artean.

Beste zerbait niri berezia iruditzen zitzaidana antzerki garaia izaten zen. Antzerki bat egiteko aukeraketa liburu ezberdinak ikusirik eta ikasle kopurua kontutan izanik egin behar izaten zen. Hau eginkizun zaila izaten zen aukera gehienek jende gehiago eskatzen zuten eta jende kopuru egokia zuten antzerkiak ez genituen gogoko izan ohi. Gero bakoitzak beteko zuen papera aukeratzeko zuten eta ikasten hasten zen; hain gaztetxoak izateko oso serio hartzen genuen gure papera ongi betetzeko bete beharra, eta guztia nahiko dezente ateratzeko lan asko egiten genuen. Zenbat ordu galdu ote genituen antzerki haiek entseatzeko? baina izatez ordu asko galtzen genituen eskola txikien jaiarako, Gabonetarako edo Santa Ageda bezperan kantatzeko entseatzeko ere, baina azken bi hauek bestelako saria zekarten gero, aste batzuetan behintzat eskean lorturiko janaria jaten egoten ginen eta, horrelako ohiturak gaur egun asko ez aldatu izana espero dut.

Azken batean, Gabiriko eskolan izan ziren nire ikasle bizitza luze honetako lehen urteak, eta garrantzitsuenetakoa, bertan egun on eta ez hain onak igarotzearen ondorioz bizitzarako balio garrantzitsuak ikasi nituen era inkontziente batean, horrelako eskola batean ikasteko bizipena izatea oso preziatua da niretzat, oinarri horiek ez banitu izan guztiz ezberdina izango nintzelako gaur, eta guztia hemen kontatu ezin den arren, bertan izandako oroitzapenak nirekin doaz beti noan lekura.

Arantzazu Baztarrika



Gazte Lokalekoak

Eskolak 100 urte bete dituela jakina da; eta gu bertan ibili ginela gogoratuz hainbat pasadizo eta esperientzia kontatu nahi dizkizuegu beste hainbat gauzeekin batera.

Oroitzapen asko ditugu, eta horiek gogoratuz momentu on askoak igarotzen ditugunez zuei ere une eder bat igaroarazi nahi dizuegu.

Inoiz ez dugu ahaztuko, Mandiolako Mikelek behin egina, Ane Miren postontzira joan zela baliatuz, mahai gainera igo zen eta arin-arin dantzatzen hasi ez zen ba gure mutila; dantzan denbora askorik ez zuen igaro, saltoka ari zela bi mahai eta hiru aulki bota baitzituen, eta bera ere lurtean luze etzanda geratu zen, hala ere askorik ez zen preokupatu.

Beste batean, Iker Aranburuk, Beirera gaua pasatzera joan ginen batean, kuadrilan Iker falta zitzaigula konturatu ginen eta bila hasi eta han aurkitu genuen bi neska gazte oiartzuarrekin, gure ondoan baino gustura-

go zegoen, nonbait.

Gaztelaniako klase batean zen hau, lehenengo ilaran Aratz Aranburu eta Aratz Igarzabal zeuden egundoko txintxo aurpegiarekin, eta Maria Eugenia irakasleak bi hitz eman zizkien esaldi bana egiteko, hitzak honako hauek ziren: "comer" eta "pera".

Instante batean Aranburuk bota zuen berea:

- Pera comer:

Igartzabalek ere isilik ezin egon eta hala esan zuen:

- Yo ha comido un pera.

Beste hainbat kontu ere badira, baina batzuk kontatu ezin direnak eta gainera, kontatzen hasiz gero, ez genuke bukatuko. Orain gure ustetan gogoeta moduko bat egingo dugu, ez dakigu gogoeta hitza ote den onena deskribatzeko baina...

Eskola txikia da Gabiriakoa baina, guk uste dugu txikitasun horretan baduela handita-

sun bat, hau da, eskolarik ez balitz Gabirian bertako gazteak kanpoan ikasiko genuke txikitatik eta horrek ekarriko luke lagunak ere herritik kanporakoak egitea. Eta orain gazteak herrian biltzen gara eta eskolan txikitatik hemen ibili izanak gure ustetan badu horretan parte handi bat. Gainera, herri txikiek badute guretzat beste gauza bat aberasgarria, edozeinekin ibil gaitzkeela parrandan, kontu-kontari... edadeari ez zaio begiratzen lagun artean.

Eta bukatzeko, beste ehun urte bete dituzala esatea ez da nahikoa, guk geuk dugu herri eta eskola honek zutik irauteko giltza.

ZORIONAK GABIRI!!!!

Gazte lokalekoak

BOSKOTEA

Mendea osatu du dagoeneko Balentzategi Herri Eskolak. Hori dela eta, eskola, ikuspuntu ezberdinetatik bizi izan duen jendearengana jo nahi izan dugu. Eskolan ikasitako haurrak izan, eta ondoren, euren ikasketak medio, praktikak ere bertan egindako herriarrekin hain zuzen. Idoia Agirre, Oihane Arratibel, Iñigo Igartzabal, Ane Murua eta Iñigo Murua dira horietako batzuk. Txikitan ikusitakoa eta bizi izandakoa, gerora nola ikusi eta bizi ote zuten?

Honatx euren esperientziak!

Ziur kontatzen dituzten kontutxoak ezagunak zaizkizula!

Eskerrik asko, boskote!

Iñigo Murua

Eskolako metodologia gaur egun, berritzaileagoa dela esango nuke. Izan ere, gizartea aldatzen doan heinean, hezkuntza bertara egokitzen joan behar da eta hau, ongi lortu duela uste dut gure eskolak.

Ikasle eleanitzak ateratzea da bertako helburuetako bat eta ingelesari ematen zaion garrantziaren alde nabaria da ikasle izan nintzenetik praktiketan izan nintzen arte. Haur hezkuntzatik hasten dira ingelesa lantzen hainbat jarduera eta jolas interes-garriren bitartez: modu honetara hurrek hobeto ikasten baitute hizkuntza, interes eta parte hartze handia izanez.

Honez gain, psikomotrizitatea ere gehiago lantzen dela esango nuke orain. Gure garaietan, dantzalekura joan eta bertan jolas librean ibiltzen ginenaren oroipena dut, orain aldiz, psikomotrizitate saioa ematen da, bertako arau, jarduera eta helburuekin.

Espazio eta materialari dagokionean,

berdintsu jarraitzen duela iruditzen zait, haur hezkuntzako klaseari erreferentzia eginez, bertako gela oso ongi antolaturik zegoen espazio aldetik, txoko ezberdinak zeuden eta bertako materiala egokia zen, hurrek manipulatzeko eta esploratzeko aukera ugari eskaintzen baitzuten.

Azkenik, ezin esan gabe utzi haur kopuru igoera nabarmena izan dela lehendik hona. Benetan albiste ederra da, eta are gehiago, eskola bertara ongi egokitzen dela ikusita. Eskola txikia izanik, adin ezberdineko haurrak klase berean egotea ahalbideratzen du eta honek, beraien arteko elkarrekintza sustatzea. Hainbat eta hainbat jolas elkarrekin burutzen dituzte eta elkarren arteko interakzio hori ongi baliatzen dute irakasleek haurren garapena bultzatzeko.



Berriro eskolan...

Donostiako Irakasle Eskolan Lehen Hezkuntzako ikasketak egin nituen eta bigarren urtean lehenengo praktika aldia izan genuenean, gure herriko Balentzategi eskolan egitea erabaki nuen. Hilabetez bertara joan eta beste bat gehiago izan nintzen bertan. Bitxia izan zen berriro hara itzultzea, txikitako garaiak baitezotzokidan burura. Gabiriako eskolatik Beasaina joan ginenetik bederatzita bat urte paseak ziren jada, eta ez alperrik! Gu eskola garaian, irakasleak kontatuta hogeita bat ginela uste dut eta bueltatzean berrogeita hamar haurrekin topo egin nuen. Ze poza hura ikustean!

Abenduan izan zen praktika aldia eta tarte horretan kurtsoetatik aparte zeuden ekintzez gozatzeko aukera ere izan nuen. Eskola guztia autobusean sartu eta Azpeitiko tren museoa bisitatzerako joan ginela ondo gogoan dut. Baita Oñatibiko Maria Jesus eskolara etorri zenekoa ere; ume guztiak aho zabalik zer esaten zuen ondo entzunez. Garaiak hala eskatuta, euskararen eguna zela ere gogoratu genuen eta azken egunean danbolina atera eta gaztaina jana egin ere bai. Aldi horretako tutore, berriz, Maria Eugenia Iturbe izan nuen. Lehen irakasle izana nuena eta horrek ere zer pentsatu eman zidan. Rolak aldatuz doaz, bai horixe!

Hiru solairutan banatua zegoen eraikina eta gelak zikloka banatuta zeuden. Hau aldakorra izaten da, noski, betiere ikasle kopuruari begira egon behar baita hor-

relako eskola txikitetan. Jende asko izanagatik, ordea, behin barrura sartzean berriro eskolan sentiarazi ninduen giroa sumatuen. Behin baino gehiago esan izan digute adin-maila ezberdinetako jendea izanik kurtsoetan ea nola moldatzen ginen, ea heziketarako ona ote zen edo ea zein ondorio izan zitzakeen denbora batera eta ez dakit zer eta badakit zer. Bertatik ezagutzen ez duen baten kezka, noski. Ezagutza aldetik, herri handiagokoen pare izaten da haurra kanpora joatean, ez dudarik izan eta ez denok oso bizkorrak garelako; ezta gutxiagorik ere. Nolabaiteko elkartrukatzeko bat sortzen delako ikasgela horren barruan, hein handi batean adin salto horiek eraginik. Txikitatik ikasten da (eta ia oharkabean) erdi galduta dabile-nari, zailtasunak dituenari edota autonomia falta duenari laguntzen. Bai kurtso barnean, errekreoan eta soinketa orduan. Zaharrenek izaten dute esperientzia gradu hori, baina beste zaharragoengandik jasota eta hori kate bat bihurtzen da; denentzako aberasgarri den kate.

Horrela ikusi nuen nik gure eskola: ikasle kopurua hazita, baliabide aldetik aurreratuta eta irakasleak espezializatuta. Berrikuntzak berrikuntza, hala ere, bertako giroa eta ohi-turak mantendu egiten dira. Ez dira hamar urte ere pasa bertan ikasle izan nintzenetik, baina herriarentzat oso garrantzitsua da eskolak izan duen eboluzioa, ume kopurua gehitzea beti delako onuragarri horrelako herri txiki batentzat. Bizitasuna ematen die herri txikiei, eskolarik gabeko herri bat, herri hila izango litzateke.

Iñigo Igarzabal





Idoia Agirre eta Oihane Arratibel

Ez dira urte asko pasa Gabiriako eskolan ikasle modura ibili ginenetik eta are eta gutxiago praktikak egin genituenetik, baina tarte horretan aldaketak nahiko handiak izan direla esan genezake.

Gauzak oroitzen hasita, eskola zaharrea hasi ginen ikasten (gaur egungo kultur etxean) egurrezko eta binakako pupitre zaharretan eta irakasle gisa Ixabel moja genuela. Hemen ez genituen urte asko egin, berehala joan baikinena gaur egungo eskolara.

Bertan ikasle guztiak bi gelatan geunden banatuta; Haur Hezkuntzakoak alde batetik eta Lehen Hezkuntzakoak bestetik. Bi andereño beraz. Ez genuen espezialistarik, soilik bi tutore. Dena den, tarteka, izaten genuen bai Don Jose Maria apaizaren bisita.

Alderik handiena teknologia mailan izan da. Haurrak ginenean, fotokopiagailurik ere ez zegoen eskolan eta udaletxera joaten ziren irakasleak Mariasunengana. Tarteka

gutako batzuk joaten ginen fotokopien bila, denoi gustatzen zitzaigun orri beroak eskuan izatea. Garai hartan genuen teknologia bakarra diapositiba makina zen. Xarma handia zuen, beti ateratzen baitzen buruz behera irudiren bat.

Bazkaltzera Ostatura joaten ginen irakasleekin batera, ez zegoen begiralerik.

Gaur egun ikastetxeko antolamendua erabat desberdina da. Tutoreez gain ingeles, musika, P.T. eta gorputz heziketako irakasleak dituzte. Ikasleak 5 gelatan banatuta daude eta huez gain beste gela batzuk ere badituzte: irakasle gela, idazkaritza,... Teknologia berriak erabiltzen dituzte; arbela digitala, ordenagailu eramangarriak, fotokopiagailuak, inpresora, argazki kamera digitala,...

Garai berriak dira bai, baina ziur gaudena da, bertatik pasa garen guztiok dugula irria ateratzen digun oroitzapen politen bat.



Ane Murua

Dagoeneko hamar urte baino gehiago igaro dira Bilbon musika ikasketak egiten ari nintzela praktikak egitera Gabiriako eskolara itzuli nintzela. Bi kurtso ezberdinetan osatu nituen, hilabete eta erdi lehenengoan eta hiru hilabete bigarrean.

Nola ez nuen bada, ezberdintasunik aurkituko gure garaiko eskolatik ordukora? Lehenengo praktiketako urtetik bigarren-era ere baziren eta!!! Musikako irakasle espezializatua zuten bigarrean; txikienak dantzalekura joaten ziren musika klasera eta zaharragoak liburutegira!!!

Gogoratzen naiz gureak nola izaten ziren: armairu bat irekitzen zuen Ane Mirenek eta bertan musika tresna piloa egoten zen... Hura zoramena gurea! Bestela, irrati-an musika jartzen zuen erritmoa jarraitzen ikas genezan edo txirula jotzeko partiturak atera eta jo ta jo aritzen ginen.

Oroitzapen ugari nahasten zitzaizkidan heldutasunean hara itzultzean. Lehen urtea... Bai, geu ere gazte sentitu arren egurrezko mahai bikoitz haietan hasi ginen: Tapa gora eta behera beti jolasean, edo tinta potea zegoen hutsunean beti begira egoten ginenean...

Gela bat ginen orduan, denok borobilean jartzen ginen Isabeli begira. Gero soziedade gainera joan ginen eta mahai berdinekin jarraitzen genuen arren, bi gela ginen. Hura aurrera pausua! Eskola berritu zutenean gela handi hura bitan egin zuten eta bi irakasle genituen: Ane Miren helduekin eta Mila txikiekin, eta mahai berriak!

Bada nire praktiketako bigarren urtean bost irakasle zeuden: Ane Miren, Rafa, Garbiñe (soinetakoa), Sara (musikakoa) eta Mailu (ingelera ematen zuena). Pentsatzerik ere! Umeak hiru gelatan banatuta eta informatika gela eta bideo gela. Zeinen azkar aldatzen diren gauzak! (Nola moldatzen ziren aurrekoak bosten lana berriek eginez?)

Bideo gela liburutegiaren ondoan zuten eta dokumental mordoak umeek ikusi ahal izateko. Eta ez pentsa, euskeraz bakarrik

ez, ingeles ere bai! Seguru bat baino gehiago oroitzen dela gure garaian bideoa jarri zutenean eta "Abereen etxaldea" ikusi eta ikusi aritzen ginenean! Edo nola ez diapositibak ikustera joaten ginenean! (Gogoratzen enararen historio tristea? eta uretatik atera nahi zuen arrainarena?)

Zerikusirik ez! Internet Gabiriko eskola mundura zabaltzen eta mundua Gabiriko haurren eskuetara ekartzen! Neu baino ume trebeagoak holako tramankuluekin Gabiriako eskolan...noski...informatika gela!!!

Nik musikako klaseak ematen nituenez, gai hura landu nuen eta gure garaitik hartara metodologia nola aldatu zen ikustean ez dut dudarik egiten beste gaietan ere horrela izango zenik. Materiala, jorratzeko bideak, ikuspuntua...Garaiak aldatzen...

Baina barruko aldaketak nabaritu nituen, funtsean haserreak, irriak, gozoak eta gaziak betiko gure Gabiriko eskolakoak bezalakoak ziren, eta hori ez dezala metodologiak aldatu, Gabiriko eskolak berezi egin gaituelako.

ANTZINAKO JOLASAK

TABAK

Materialak: Tabak eta pilota bat.

Tabaren alde bakoitzak izen bat du: pon, zapatito eta carne.

Pilota airera botatzen da eta erori bitartean taba bat hartu behar da. Aldea aukeratu. Ondorengoetan alde horretara jarri behar dira tabak:

Txutxuas 1 esan behar da eta gero berriz bota eta txutxuas 2 esan eta horrela taba guztiak alde horretara jarri arte.

Nahi duten pertsona guztiak ibili daitezke.

6 edo 10 taba behar dira jolasteko.



MAKILT XOAK

MAKILT XOAN JOLASTEKO BEHAR
DIRENAK:

12 LAGUN INGURU

2 MAKIL TXIKI ETA JOTZEKO 2
HAUNDI .

TIZA, BOROBILA EGITEKO

Isabel Arrondok erakutsi zigun, Benitok eta biak prestatutako makiltxoekin ibiltzen. (neurri zehatzekoak ziren).

1.pausoa- Makiltxoa mahaia edo petril iskin batean jarri.

2 .pausoa-Leku zehatz batean borobil bat marraztu tizarekin.

3.pausoa-Jokalariek txaketa aldrebes jantzi behar dute.

4.pausoa-Txaketan hartzen saiatu.

5.pausoa-Hartu eta gero marraztutako borobilean sartzen saiatu behar dira.

12 pertsona behar direla aholkatu zuten.

INTXAURRAK

Antzinako jolas goxo hau Xabierren aitona den Joxe Aizpuruk erakutsi zigun.

Intxaurretan bi pertsonekin jolasteko bost intxaur behar dira gutxienez hasteko.

Botatzen duenak bat edukiko du, beste lau intxaurrak lurrean ipintzen dira piramidean eta bota behar ditu.

Jokalariaren atzean jartzen da jendea, eta botatzen duenak hankak zabalik dituen intxaurra atzeraka botatzen badu atzean dagoen pertsonarentzako izango da.

Eta aldiz intxaurrak botatzen baditu berarentzat izango dira intxaurrak.

Intxaur guztiak jaten direnean, bukatu da jolasa!



KROMOAK

Paper moduko batean familiaka etortzen dira antzinako kromoak. Ana Marik erakutsi zigun jolasten.

MATERIALAK: KROMOAK, MAHAIA EDO PETRILA.

ARAUAK: Bakoitzak 15 kromo inguru edukiko du. Hasteko gustatzen ez zaion kromoa erdian jarriko du beheraka eta eskua pilota bat hartzen bezala jarria. Putz egin eskuari eta kromoei jo. Buelta ematen duen kromoa beretzat izango da. Eta berriro saiatzeko aukera izango du eta ez badu bueltarik ematen hurrengoa izango da.

Eskerrik asko guri jolasak erakustera etortzeagatik!

2.zikloa





MENDEURRENAREN EKITALDIA

Igande eguerdian ospatu zen Balentzategi Herri eskolako mendeurrenaren ekitaldia eskola aurreko terrazan. Ane Mirenek eman zion hasiera ongi etorria emanaz gerturatutakoei. Eskolako ikasle izandako zaharrenak eta oraingo ikasle gazteenak ondoan zeuden paretan zegoen plaka bistaratzeko.

Plaka oihal beltzez estalita zegoen eta lehengo ikasle zaharrenek kendu zuten bastoiez lagunduta. Plaka buztinezkoa da.

Jarraian, aureskua dantzatu zuten gaur egungo ikasleek eta lehengo ikasleek bertako txistulariek lagunduta. Ondoren, hitzalditxoa eman zuen Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariek, Julen Bengoetxea jaunak. Azkenean, bertsoak abestu zituzten eskolan ibilitako hiru bertsolarik: Euxebio, Aratz eta Endikak. Amaitzeko, Ane Mirenek guztiei eskerrak

eman eta eskola eta erakusketa bisitatzeko gonbitea eman zuen.

Erakusketa dantzalekuan zegoen. Lehen nesken gela zegoen bertan. 100 urte hauetan eskolan zer gauza erabili diren eta nortzuk pasa diren eskola honetatik azaltzea izan zen erakusketaren helburua. Horretarako gelan zehar mahaia jarri ziren gaika banatuta. Liburu asko zeuden baina tresna gehiago ere bai.

Lehenengo mahaian azken 25urretan ikasleek egindako lanak: txostenak, ipuinak, egunkariak, aldizkariak, Donostiako Ikertzeko lanak...



Eskolaren mendeurrenako erakusketa



Bigarren mahaian aspaldi –aspaldiko irakasleen eta ikasleen liburuak: matematika, literatura, gaztelania, Primer libro de lectura, segundo libro de lectura, entzikloplediak, mapak, marrazkiak ...

Hirugarren mahaian jangelako gauzak zeuden. Lehengo tresnak eta paperak: platerak, pitxarrak, kartilak, buruntzaldiak, menua, ikasleen jangelako baimenak eta kartilak, janari liburuak...

Atzeko mahaian urteetan zehar erabilitako idazmakina, ordenagailu, zinta, kasset, irrati, disko, jolasak: kromoak, tabak, tiragoma, paperezko panpinak eta jantziak...

Beste muturrean Eskola Txikietako nikiak, pegatinak, liburuxkak. Paretan Gabiriako Eskola Txikien festan erabilitako pankarta eta Goierriko Eskola Txikien festan argazkiak ateratzekoa,...

Dokumentazioa deituriko mahaia ere bazeuen. Bertan bi dokumentu mota bereiz genitzakeen. Alde batetik, eskola egin zeneko dokumentuak zeuden. "Originalak" ziren, hau da, garai hartan benetan erabilitakoak. Horietako batzuk Larrea-eneako famili tartekoek ekarri zituzten beraien birraitona, Don Meliton Larrea, garai hartako idazkari eta eskola eman zuen Don Eustakio Balentzategiren tarteriko izateaz

gain, lanen bitartekari eta mezulari izan baitzen. Honako dokumentuak aurki genitzakeen bertan:

"Proyecto de las Escuelas en Gaviria por don Eustaquio Balenzategui. Parte documental"

"Nuevo edificio escolar de Gabiria construido por cuenta de D.Eustaquio Balenzategui en 1912. Facturas y recibos pagados por Melitón Larrea y por el mismo D.Eustaquio Balenzategui"

"Copia de la Escritura de Donación de escuelas a la Villa de Gabiria, otorgada por Don Eustaquio Balenzategui y Aramburu, a favor de dicha villa, representada por su Alcalde-presidente Don Francisco Urteaga Loinaz, ante Don Víctor Bárcena Gómez notario del ilustre Colegio de Pamplona, con residencia en Villafranca de Oria, a 6 de Diciembre de 1916".

"Documentos referentes a la escritura de donación de las escuelas..."

"Año de 1924, Cuenta de los gastos hechos en las reparaciones de las Escuelas Nacionales de Gabiria."

Inaugurazio eguneko argazkiak: eskola eta jendea eskola aurrean; eskola eta ume talde bat atzetik, gurutze inguruan.

Inaugurazio eguneko egunkariko kronika.

Horietaz gain, Don Meliton Larrearen bastoia, eta bi argazki: bat bere familiarekin eta bestea, bere etxea.

Bestetik, eskolaren lanari lotutako dokumentuak:

Ikasleen zerrendak. Mutilenak 1932 ikas-turtetik hona aurkitu ditugu. Neskenak 1976an neskak eta mutilak elkartu ondorengoak bakarrik. Batzuetan zerrendak eskolako asistentziarekin eta notekin osatuak egon dira.

Urte multzo bateko zerrenda hutsak neska-mutilenak.

Ikasurteka osatutako estatistika datuak.

Eskolako material zerrendak.

Ikuskariek maisuei egindako bisiten informeen liburuak 1868an hasita.

Dokumentu hauen ondorioz Gabiriako eskolan maisu-maistra hauek igaro zirela ondorioztatu dugu, datetan akatsen bat egon litekeelarik:

Ehun urte hauetan pasatako maisuak 1982 arte:

- Meliton Larrea 1865etik
- Agustín Echecon 1921
- Cirilo Redondo 1922-23
- Alejandro Ortiz de Zarate 1924-30
- Cesareo Moreno 1930-31
- Antonio Alvarez 1931ko ordezkapena



- Juan Mujika 1932-1957
- Adriano Perez 1958- ?
- Alvaro Suarez 1982 arte

Maistren datuak zehaztea zaila da ez baitago ia dokumentaziorik baina Maria Murua agertzen da 1931-32 urteetan eta bere plaza Asunción Arbiza Etxebeste hernaniarra 33-34 ikasturtean hasita, Isabel Etxeberria donostiarra, 1942 inguruan, Zumarragako Kontxita Medrano, M^aEugenia Garate(Beasaingoa) 1967 arte. Ondoren urtez urte aldatuz eta kanpotarrak: Mari-bel Fernandez, Rosa Mari, Kontxita Muro, Ana Maria Planillo 1970-74.

1975ean eskola mixtoa sortu zen. Neskak eta mutilak elkarrekin Alvaro Suarezekin.

1982an D eredu jarri zen martxan Isabel Katarainekin, 2 ikasturte egon zen, horietako batean Mila Arrondorekin,

1985ean behin betiko plaza hartu zuen Ane Miren Aizpuruk, gaur egun zuzendaria denak, eta elkarrekin 10 urte egon ziren beste batzuen laguntzaz. Urte hauetan irakasle asko izan dira. Horien artean urte gehien egondakoak, bostetik gora Rafaela Caceres, M^aEugenia Iturbe, Garbiñe Alustiza, M^aEugenia Goikoetxea, Agurtzane Iturbe...

Gelaren erdian, lehenengo gela bat irudikatu nahi izan da. Horretarako ganbaran jasotako eskolako hiru mahai jarri dira erdian, Atera begira eta parean, irakasle mahaia, arbela eta gurutzea. Aldamenean, estufa, laminak eta pertxa. Bertan zintzilikatuta Altzibarkoek ekarritako garai bateko arropa, txapel, aterki... Ikasleen mahai hauetan jendeak etxean gordeta zituen kuaderno, liburu, pizarra, pizarrin, marrazki, tintero, luma, bastidore, kartila, konpas... lehenengo eta ez hain aspaldiko lanen eredu. Oroitzapenak erakartzeko

arrakastatsuenetakoak izan direnak.

Ikusmira gehien lortu duen atala, berriz, argazkiena izan da. Hirutan banatuta egon dira:

Lehenengo mahaien ilaran, taldetako argazki zaharrak. Eskolan ateratako taldeak: neska eta mutilenak maisu-maistrekin. Tarteka, irteeraren batekoak, hauek ere taldean. Horman zintzilikatuta, eskolan ateratako bakarkako edo anai-arreben argazkiak. Atzeko mahaian, azken hogeita hamar urtetako eskolako ekintzetako argazkiak albunetan bilduta.

Irakasle mahai gainean mendeurrenaren oroitzapen hauek gogoratzean sortutako sentipenak edota bisitan agertu izana azaltzeko sinadura liburu. Zenbait idazten ausartu ez badira ere, hurrengo urteurrenaren zain!



EMANALDIA

Abenduak 16, igandean, 18:00etan oraingo ikasleek eta ikasle ohiek eskainitako ikuskizuna izan zen saloian. Eskolako ikasleek apainduta jarri zuten eszenatokia. Jende asko hurbildu zen.

Eneritzek aurkezpena egin zuen. Gero bertso batzuk bota zituzten eskolan gertatutako pasadizo batzuei buruz Gorka, Aitor, Jokin, Mikel eta Jonek, Ibanek gitarraz lagunduta eta Josebak trikitiaz. Han enteratu ginen Ane Mirenek ez zekiela globoak puzten, Aimarrek salto egin zuela terrazatik behera, Arantzazuhaserretutakorrika joanzelalzar iturriraino eta Sudupek tirolinaz salto egin nahi zuela batzokitik gurutzera.

Jarraian orain Beasaingo ikasle diren batzuk egin zuten beraiek asmatutako dantza "Eskuetan" abestia erabiliz.

Hurrengoak gu izan ginen "Baketue-papa" ipuin-abestia egiten. Eskolako ikasle guztiak batera igo ginen. Batzuk ipuina kontatu zuten eta tartean handiek txirula jo zuten eta txikiok kantatu genuen. Hori egindakoan bukatu egin zen.

Irakasle batek eskolaren mendeurrenaren olerki hau irakurri zuen :

Ehun urte,
Zer dira ehun urte?

Askok ez dakigu zer den hori, eta jakin ere ez dugu egingo.

Baina ehun urteko ibilbide horren parte izan den norbaitekin beti egingo dugu topo.

Oroitzapenez jositako ehun urte izango dira.

Nagusieneke gazteenei transmitituko dizkiete euren bizipenak, eta gazte horiek ondorengoei, eta horrela ehun urte igaro arte.

Ehun urte,
Zer dira ehun urte?

Gure eskolarentzat, gabiriarrontzat, Sendotasuna, iraunkortasuna, gaztetasuna, bizipoza, alaitasuna, freskotasuna... Beste ehun urtez jarraitzeko grina.

Ehun urte,
Zer dira ehun urte?

Une batez atzera begira jarri eta eskola sendoaren oinarriak aurkitu ditugu. Herriaren bizigarri? Noski baietz. Herri txikiak ere bizirik mantendu behar ditugu eta.

Une batez atzera begira jarri eta ume garaiak gogoratu ditugu.

Une batez atzera begira jarri eta tintak, pizarrak, diktadoak, kalkuloak, historia sagrada... gogora ekarri ditugu.

Une batez aurrera begira jarri eta eskola bizia ikusi dugu. Eskola bizia, eta herri bizia.

Ehun urte,
Zer dira ehun urte?

Azkenik, Ane Mirenek agurtu zuen saioa eskerrak emanez eta mezu bat eman zuen:

"Etxean hezi, eskolan hezi eta izan gaitezen bizigarri".

I. zikloa eta Ane Miren Aizpuru





GABIRIAKO ESKOLAKO NESKATOAK 1941.URTEAN.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:

Eba Altuna (Altolagirreazpikoa), Mertxe Galdos (Etxeberritxo), Maria Txintxurreta (Txoko), Angelita Oñatibia (Etxeberribizkai), Maria Luisa Iruin (Torre), Isabel Mandiola (Izartxiki) eta Maria Mandiola (Izartxiki).

Bigarren ilaran:

Pakita Galdos (Etxeberritxo), Mari Karmen Zubizarreta (Ugarketa), Ana Murua (Izarraundi), Sebastiana Amundarain (Muntegi), Felipa Agirrebengoa (Otsategi), Anita Zubizarreta (Ugarketa), Joxepa Oria (Gabirizartxiki) eta Sebastiana Azarola (Araneauendi).

Hirugarren ilaran:

Bixenta Oiarbide (Bidarrota), Euxebia Etxeberrria (Urkiztegi), Kandida Mandiola (Izartxiki), Pilar Urkiola (Aunditegi), Dionisia Arozena (Igeribarazpikoa) eta Laura Pikasari (Baztarrika).

Laugarren ilaran:

Eduarne Murua (Izarraundi), Tere Mujika (Noarezar), Antonia Agirrebengoa (Otsategi), Ramona Arruabarrena (Aunditegierrota), Miren Iztueta (Katarain), Juli Lopez (Olazabal), Ana Mari Oñatibia (Aranetxiki), Inazia Aramendi (Noaretxeberri) eta Kontxita Oñatibia (Aranetxiki).

Behoko ilaran:

Pia Alustiza (Landeta), Mari Karmen Lasa (Elizalde), Euxebia Agirrebengoa (Otsategi), Miren Murua (Izarraundi), Benita Elozegi (Oñatibitxiki), Juli Apaolaza (Olalkiaga) eta Juanita Izuzkiza (Jauregi).



GABIRIAKO ESKOLAKO NESKATOAK 1951-6-9.AN.

Atzean dagoen maistra:

Maria Eugenia Garate.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:

Dolores Agirrebengoa (Otsategi), Isabel Garzandia (Sekretarioenea), Isabel Arrondo (Oñatibiaundi), Konsuelo Iruin (Torre), Rosario Arzelus (Kaleerdi), Juli Ormazabal (Landarregi), Pakita Mujika (Noare) eta Rosario Soraluze (Zuazolazpikoa).

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera:


Arantxa Izagirre (Zuazolazpikoa), Elisa Alustiza (Landeta), Maria Isabel Apaolaza (Barretxe), Mari Karmen Apaolaza (Barretxe), Rosa Mari Izuzkiza (Jauregi), Maria Pilar Iruin (Torre) eta Ana Mari Garmendia (Gaztañaga).

Beheko ilaran ezkerretik eskuinera:

Euxebia Ormazabal (Agerre), Maite Antia (Altolagirreazpikoa), Pilar Agirre (Lizardigoikoa), Begoña Zumalakarregi (Izarrerdikoa), Begoña Oiarbide (Bidarrota), Maria Angeles Oiarbide (Bidarrota), Lorentxa Agirre (Eztanda), Maria Jesus Lizarazu (Zantagoitigoikoa) eta Mariloli Galdos (Etxeberritxo).







GABIRIAKO ESKOLAKO MUTIKOAK 1969-70 IKASTURTEAN.

Atzeko ilaran ezkerretik eskuinera:

Joxe Luis Rodriguez (Kalebarren), Eugenio Rodriguez (Kalebarren), Iñaki Maiz (Eguzkitza), Xabier Aierbe (Uribar, Itsaso), Iñaki Oiarbide (Bidarrota), Luzio Iraeta (Errazti, Itsaso), Albaro Suarez (Maisua), Agustin Asurabarrena (Astiazaran), Angel Ariztimuño (Izarbarrena), Juan Kruz Iraeta (Errazti, Itsaso), Pello Arratibel (Zozabarro, Ezkio), Mikel Iztueta (Katarain), Mateos (Araneaundi), Joxe Luis Garmendia (Sanesteban), Joxe Lorentzo Aierbe (Uribar, Itsaso) eta Tito Santamaria (Artzain).

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera:

Iñaki Etxeberría (Urkiztegi), Angel Gomez (Baztarríka), Antonio Sanz (Kalebarren), Antonio Iztueta (Katarain), Joxe Manuel Santamaria (Artzain), Segundo Arratibel (Zozabarro, Ezkio), Iñaki Murua (Agerretxemendi), Juan Aranburu (Kamiño, Itsaso), Euxebio Arratibel (Zuazolagarakoa), Iñaki Lasa (Zantegi), Gregorio Olariaga (Zantagoitibekoa), Nikasio Caballero (Torre), Txomin Bidegain (Sodorus) eta Joxe Luis Arratibel (Zozabarro, Ezkio).

Aurreko ilaran ezkerretik eskuinera:

Joxe Mari Andola (Gorostartzuazpikoa), Balentin Godoi (Gurutseta), Galiziarra (Araneaundi), Pello Olariaga (Zantagoitibekoa), Xabier Iraeta (Errazti, Itsaso), Koldo Murua (Izarraundi), Xabier Izuzkiza (Jauregi), Alfontso Elozegi (Oñatibitxiki), Jose Jabier Gonzalez (Kaleerdi), Jesus Mari Garmendia (Sanesteban) eta Manolo Redondo (Elizazpi).

Lurrean eserita ezkerretik eskuinera:

Mikel Aizpuru (Elizalde), Martin Olariaga (Zantagoitibekoa), Joxe Luis Aranburu (Udaletxea), Joxe Luis Bidegain (Elizalde), Santi Redondo (Elizazpi), Rodriguez (Kalebarren), Santi Izuzkiza (Jauregi) eta Antonio Caballero (Torre).



GABIRIAKO ESKOLAKO NESKATOAK 1969-70 IKASTURTEAN.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:

Maria Niebes Mateos (Araneaundi), Maria Jesus Arratibel (Zuazolagarakoa), Nikolasa Rodriguez (Kalebarren), Arantxa Bidegain (Elizalde), Kontxita Muro (maistra), Ana Mari Gonzalez (Kaleerdi), Aloña Murua (Agerretxemendi), Mari Jose Alustiza (Oñatibiaundi), Belen Soraluze (Zuazolazpikoa) eta Mari Karmen Gurrutxaga (Sindikato).

2.ilaran ezkerretik eskuinera:

Marisa Sanz (Kalebarren), Koro Soraluze (Zuazolazpikoa), Anparo Soraluze (Zuazolazpikoa), Arantxa Andola (Gorostartzuazpikoa), Mari Karmen Bidegain (Sodorus), Maria Jesus Ariztimuño (Izarbarrena), Lourdes Murua (Agerretxemendi), Roxario Olariaga (Zantagoitibekoa) eta Edurne Zumalakarregi (Izarrerdikoa).

3.ilaran ezkerretik eskuinera:

Mari Sol Gonzalez (Kaleerdi), Maria Rosa España (Udaletxea), Ana Mari España (Udaletxea), Ane Miren Aizpuru (Elizalde), Galiziarra (Araneaundi), Lierni Aranburu (Udaletxea), Maria Blanka España (Udaletxea) eta Yolanda España (Udaletxea).

Beheko ilaran ezkerretik eskuinera:

Ana Gomez (Baztarrika), Andoni Aizpuru (Elizalde), Pili Gurrutxaga (Sindikato), Rosa Mari Maza (Kamiñogurutze) eta Maite Maza (Kamiñogurutze).

KAFE TERTULIA

Abenduko arratsalde hotz euritsu batean, Erbie elkartean Gabiriako eskolan ibilitako hainbat eta hainbat lagun elkartu ginen hitz-aspertu atseginean.

Eskolaren izena beti Balentzategi izan al da?

Betidanik, Oroitz ona izan omen da etxe honen izena.

Francoren garaian berriz, Escuela Nacional bezala zen ezaguna.

Laurogeiko hamarkada hasieran Osinalde izenarekin ere agertzen zen.

Balentzategi izena, Ane Mirenek jarri zion, etxea egin zuenaren oroimenez.

Ehun urte hauetan eraikin berean egon al da eskola? Nork sortu zuen?

Gaur egungo eraikina egin aurretik, udaletxe ondoan zegoen eskola eta Eskola Txikia deitzen zitzaion. Eraikin hau jangela bezala ere erabilia izan zen.

Azken ehun urte hauetan, Balentzategi jaunak egindako eraikinean dago eskola.

Zein izan zen lehenengo zuzendaria?

1933.urtean Juan maixua zen zuzendaria. Bi eskola zirenean, nesken arduraduna maixtra izaten zen, baina paperetan idazkari bezala ageri zen.

Hasierako urteetan zenbat ikasle eta irakasle zeuden?

Ehun ikasle inguru izaten ziren bi geletan banatuta, nesken gelan 45, mutilenean 44 edo 50etik gora ere izan ohi ziren. Maixu bat mutilentzat, beste bat neskentzat.

Ixabel iritsi zenean, berriz, 1983an, ikasle bakarra omen zegoen matrikulatuta, saioak euskaraz emango zituela argitu ondoren



hamahiru ikaslerekin hasi zuen ikasturtea. Beraz, eskola ixteko zorian egon zen.

Ondorengo urteetan, hemezortzietahamabiikaslehasiomenziren. Bi irakaslerekin gutxienez 1984 ikasturtik aurrera.

Irakasleei dagokienez, gogoan ditugunak: Juan maixua, Maritxu edo maixtra zaharra, Alvaro Leondik, Extremaduratik eta Gaztelatik etorritako irakasle oso gazteak maistra bezala. Euskaldunak: Ixabel, Mila, Ane Miren, Jexux...

Irakasle bati emaztea hil eta gabiriari batekin ezkondu omen zen, haren seme Alejandro gauza askorekin gogoratzen omen da..

Zenbat urterekin hasten zineten eskolan eta zenbatekin bukatu?

Sei-zazpi urterekin hasten omen ziren. Amelia hirurekin, Ibon laurekin, birekin Ibanen eta belaunaldikoak.

Berez hamalau urterekin bukatu behar zen, nahiz eta askok lehenago ere uzten zuten. Benito hamahiru urterekin Bilbora joan omen zen.

Eskolara herritik gertu bizi zirenak gehiago etortzen ziren, urrutiko baserrietatik zailagoa zen. Esate baterako, Anitak itzulan aritu behar izaten zuen ganaduaren aurrean jarrita eskolara etorri partez.

Gau eskolak ere izaten omen ziren.

1932/34tik gaur egun arteko zerrendak gordeta omen daude.

Gaur egun, gelan, neska-mutilak elkarrekin gaude; zuen garaian nola egoten zineten?

Garai hartan, aparte eta oso aparte egoten omen ziren elkarrengandik. Batzuk dantzalekuan eta besteak gaur egungo Haur Hezkuntzako geletan.

Neska mutilak elkarrekin hirurogeita hamarreko hamarkadan hasiko ziren.

Liernik gogoan du, mutilen aurrean txertoa hartu behar zutela eta lotsatuta egon zireneko pasarte hura.

Gerra zibilaren aurreko eta ondorengo eskolaren artean zer diferentzia zeuden?

Francoren garaian Cara al sol delakoa abestu behar izaten zuten goizero, maixtrak bandera leihora ateratzen zutenean. Marianek gogoan du, nola handiak korrika ihesi joaten ziren kantatzen txikienak bakarrik utzita.

Ziza horiak maite zituen inspektoreen bat ere ba omen zen, sokatik zintzilik jarrita edukitzen omen zituzten lehortzen hura etortzen zenerako. Baita hari erantzuteko galderen erantzunak buruz ikasita ere:

-¿Cual es la vocación de España?

Propagar y defender la moral por todo el mundo.

Zein zen eskolako ordutegia? Goiz eta arratsalde izanda nola moldatzen zineten bazkaltzeko?

Goizeko bederatzietan hasi eta arratsaldeko laurak arte. Zapatu goizetan ere izaten zen klasea, arratsaldeetan ere bai aste erdian edo jairen bat izanez gero; sábado inglés esaten zitzaion eta enpresetan ere berdin gertatzen zen.

Herri ingurukoak ez izan arren, bazkaltzera etxera joaten ziren, elur handia ez baten. Sekretarioarenean edo Gregoriorenean ere bazkaltzen omen zen. Eskola Txikia esaten zitzaiona ere izan zen jangela, baita gaur egun mediku kontsulta eta Haur eskola denean ere.

Derrigorrezkoa al zen eskolara joatea?

Orduan ere pipar egiten zen, mutilek behintzat. Baserrian beti izaten zen lana. Zenbaitek halere, etxeko lanen aurretik jartzen zuen eskola.

Deskribatuko al diguzue zuen gela nolakoa zen eta zer material erabiltzen zenituzten?

Eskola dotorea zen, ederra; banku ederrekin, pupitreak... Tinta ontziak eta arbela. Estufa ere beti izan zen.

Gabirian zenbat zen 8x8?

Tablak abesten ikasten zituzten buruz. Ocho por ocho arre potxotxo.

Erdaraz hitz egitera derrigortuta zeundetenean gertatutako bitxikeriaren bat kontatuko al diguzue?

Liburuak erdaraz izaten ziren. Urte berekoak ilaran jarri eta maixuak galderak egiten zituen:

La región septentrional. ¿Qué cereales se producen?

- Maíz. (Erantzun zuen Oiarbidek, Iñaki Maiz aurrean zeukalako.)

Ondoren Iñaki Maizen txanda zen eta...

- Oiarbide!- esan omen zuen Maizek.

¿Qué hace esta caña aquí? Auskalo!

El lechero vende leche, se vende leche... egurra, kosta zitzaion ikastea.

Maixtra zaharrak aita santua hil zela esatean...

- Se ha muerto el papa.

Marian, bere aita hil zelakoan negar batean aritu omen zen.

Maixtrak inspektoreari:

- Estas son mis nietas.

- Felicidades. No sabía que usted se había casado.

-No! no! Son las hijas de mis alumnas.

Behin Benitok eskutitza idatzi omen zion arreba Ixabeli Bilbotik eta honek eskolan ireki:





-¿Que tal en la escuela? ¿Qué hace la maestra?

-Ahí andaré sin mucho fundamento.

Eta maixtrak irakurri omen zuen. Ondoren ba omen zuen zer esana.

Maixtrak Beasainen Iñakiri: Fátimo, Fátimo...- arreba Fatima izan.

Maixtrak lababoa jarioarekin omen zuen, baina, gauean haren etxera gizonik ez joateko gero!

Kontatuko al diguzue zein ziren garai hartako zigorrak?

Garai hartan maixuak eta apaizak, gaur egunean ez bezala, etxean jainkoak ziren, eta etxean bada ez bada ez zen ezer esaten, zuk ere zerbait egingo zenuen izaten zen erantzuna.

Zenbait apaizek dotrinarik ez zekitelako jotzen omen zituzten umeak.

Behin, aurreko ilaran makilarekin norbait jo, makila hautsi eta atzeko atea jo omen zuen.

Haserretzen zenean, maixtrak zume fin-fina izaten omen zuen galderaren bat gaizki erantzutean hanka zainak bero-bero egiteko, ondorengo egunetan ere han izango zituen arrastoak.

Juaneke normalean ez zuen jotzen, baina bere onetik irteten bazen, ojo!

Zuloa zuten irakasleen mahaiek, zigortuta han egon behar izaten zen. Behin norbaitek atzamar egin irakasleari han zela eta gehiago ez omen zuen inor jarrarazi.

Bazkalondo batean neska mutilak kanpandorrera igo omen ziren, jaitsitakoan egurra jaso omen zuten.

Bonba tokia, garai batean teilatuko urak bonba bidez jasotzeko erabiltzen zen lekua ere, zigor leku bezala erabilia izan zen gero: el cuarto de los ratones

Mutilek urki adar finenak ekartzen zituzten, ondoren irakasleak bat aukeratzeko eta zein erabiliko zuen erabakitzeko Gaizki egiten genuena ehun, berrehun edo mila aldiz idatzita ekarri behar izaten genuen hurrengo egunean. (Respetaré a los mayores...)

Ixabelek bera jotzekoa ez zela zioen, kondenaren ordezkirik behar dela.

Behin tirolina bat jarri zutelako, zer gertatu zen bertotan kontatzea izan omen zen zigorra. Hortik letorkiekie bertsolari sena batzuei.

Zein jolas eta non egiten zenituzten?

Tabatan, intxaurrekin, kromotan, palillo eta palakin... Ixabelek eginda ekarri zituen joan den egunean eliz atarian ibiltzeko. Harra-patzen ere ibiltzen ziren: gereziak, garaiko fruituak...

Kuriketan, txorro-morroketan, txingon, pelotan, goman... tira gomarekin ere baziren apunteri onekoak eta istripu bitxi askoak gertatutakoak.

Zuen garaian eskurtsiorik eta egiten al zen?

Ba omen zen eskurtsioko egunean ere

gustura etortzen ez zenik, beraz izango ziren. Arantzazura, Donostiara...

Behin, goizean zazpiak eta erdietan izan zen irteera ordua Donostiara joateko, gasogena ezin arrankatuz. Igeldora joan ziren eta han zinea bota zieten. Itzultzerakoan aberiatu eta Tolosatik Legorretara denak oinez. Legorretan atzetik harrapatu zituzten eta txikienak igoazita, goizeko hiruretan iritsi ziren herrira; beste guztiak berriz maixuarekin oinez, haiek iristerako goizeko bostak izango ziren. Autobusekoaren iloba izateagatik txikiekin etorri nahi zuen neska handi bat ere ba omen zen, baina azkenean, oinez etorri behar izan zuen bere lagunekin.

Ixabelen garaian eta hurrengo urteetan, 1984 inguruan, eskurtsiora ikasleak bakarrik ez ziren joaten, familiakoak edo inguruko norbait ere izaten zuten lagun, autobusa betetze arren.

Ondoren, beste eskoletakoekin batera egiten ziren zenbait irteera; orain berriz autobusa bete egiten dugu.

3. zikloa

Mila esker, kontu-kontari, hain umoretsu hemen biltzeagatik, zuen kontakizunekin gu aberastuz. Berriro ere gustura asko elkartuko gara zuekin, ehun urte pasa zain egon gabe.

HAUR HEZKUNTZA

ABENDUAN ESKOLAREN MENDEURRENA OSPATU GENUEN, 100 URTE ALEGIA, ERAKUSKETAKO ARGAZKIAK, ISTORIOAK...ENTZUN ETA IKUSTEAN KONTURATU GINEN GARAI HARTAN ESKOLAN, ALDE BATETIK MUTILAK ETA BESTETIK NESKAK ELKARTZEN ZIRELA. ETA ORDUAN HAUR HEZKUNTZA EXISTITU ERE EZ ZEN EGITEN, GAUR EGUN ALDIZ BAI. ETA GAINERA A ZER NOLAKO ARTISTAK DITUGUN... BEGIRA, BEGIRA!!!



NORK ESANGO LUKE ORAIN DELA 100 URTE, 2 URTEKOAK ESKOLARA JOANGO ZIRELA? BA, BAI, BAITA GUSTORA IBILI ERE!!!

2 URTEKO GELAKOAK: ASIER, AITZOL, NAIRA ETA EDURNE.



3, 4 ETA 5 URTEKOAK



Haur hezkuntza

HAN EDO HEMIEN BAINA BIZI



"Westminster" zubitik "London Eye" noriari ateratako argazkia

Askok nire izenez baino hobeto Anbuko Maialen bezala ezagutzen nauzue. Aspaldian herrian gutxitan ikusiko ninduzuen, izan ere, nire adineko beste hainbatek bezalaxe, ekonomikoki hain gaizki gauden une honetan, nire bizitzari 360°ko aldaketa ematea erabaki nuen duela urte bete.

Pasa dira urteak Gabiriako Balentzategi eskolatik alde egin nuela, Beasain aldean ikasten jarraitu eta azkenik, Bilbon amaitu nuen Odontologiako ikasketak egiten. Lehen aldiz etxean Dentista izan nahi nuela esan nuenean, garai batean Gabirian bat bazela esan zidaten. Gabiriako herritar gehienak bere eskuetatik pasatakoak izango zarete, katuska eta guzti ibiltzen omen zen eta sarrerako atea ere oso baliokoa omen zen bere lanerako. Asko saiatu beharko dut bere markak hausteko.

Urte eta erdi da dagoeneko bost urteko ikasketak amaitu nituela, ilusioz beterik irten nintzen Unibertsitatetik nire arloko lana berehala aurkituko nuelakoan, baina

ez nuen horrelako suerterik izan. Hainbat dentistarekin hitz egin nuen baina inork ez zuen lan taldea handitzeko asmo edo behar berezirik, izan ere, geroz eta kliente gutxiago dituzte. Arrazoi hau dela medio beste irtenbide baten bila hasi nintzen, Ortodontziako master bat egiten hastearekin batera. Mundua ezagutzeko unea zela iruditu zitzaidan, beraz, internet bitartez agenzia batekin harremanetan jarri lo lekua aurki ziezadaten, nire kurrikuluma ingelerara itzuli eta konturatzerako etxetik alde egiteko eguna iritsi zen.

Ez dut sekula ahaztuko 2012ko urtarrilaren 31a, gurasoei muxu bana eman, begiak malkoz beterik nituela eta bi orduren

inguruan Londresen lur hartzen ari nintzen. Zenbat aldiz galdetu diodan neure buruari: zergatik alde egin behar hau?

Ez da batere erraza etxetik kanpo bizitzea eta oraindik eta zailagoa beste hizkuntza bat hitz egiten bada. Ba, hantxe ari nintzen duela urtebete nire mailetak husten Ingalaterrako egurrezko leiho haundidun, jardinez inguraturiko etxe handi batetan.

Ez nuen lehen gaua oso ondo igaro, hotz egiten zuen eta kafefazioak ez zuen berotzen, lekutan zegoen gure etxeko sukaldeko epeltasuna!!

Londresera iritsi eta lehen astean aurkitu

nuen lana baina ez dentista bezala, izan ere, bertako hizkuntza ez nuen erabat dominatzen eta hori zela eta taberna batean hasi nintzen lanean hizkuntza hobetzeko asmotan. Esperientzia bikaina izan zen nahiz eta konparazio bat egitekotan, ni han morroi bat banintz bezala tratatzen ninduten. Kanpotarra nintzen eta hizkuntza ez nekenez, inork nahi ez zituen lanak egin behar izaten nituen (kristalak garbitu... hala eta guztiz ere ni ohituta nago lan horiek egiten eta ez zitzaidan batere axola). Berehala hasi nintzen bezeroak zerbitzatzen, beraiekin hizketan, izan ere, ingeles hauei asko gustatzen zaie neska gazte batek, irrifarrez beterik, mega-maxi-super hamburguesa patata frijituarekin eta litro eta erdiko coca-cola zerbitzatzea.

Horrela ikasi nuen, muturreko ugari hartuz, ingelesez moldatzen. Pazientzia handia behar da bertan bizitzeko eta lan egiteko, batez ere taberna arloan lan egiten bada, izan ere, hamabiak aldera izaten dute ordubeteko tartetxoa bazkaltzeko eta ez dakite hamar minutu ere mahaian janaren zain egoten. Eskatu eta bi minuturen buruan jana mahaian izatea gustatzen zaie eta hala ez bada, berehala hasten dira kexaka. Gainera ez pentsa indabak, lentejak edo bainak jaten dituztenik, ez, ez, hamburguesak, sandwichak.. eta horrelakoak. Ah, eta ahaztu gabe, dena tomatez eta maihonesaz bustita. Oso ohitura ezberdinak dituzte eta ni, naizen lekukoa izanik, egunero gogoratzen nintzen nire amaren menestra, lentejak... a zer nolako manjarra!

Bada hilabete tabernako lana utzi nuela eskola batean eman bainuen izena ingelesa hobetzeko, izan ere, tabernan hobekuntza handia egin nuen baina hiztegi gehiagoren premian nengo. Gainera, dentista bezala lan egiteko paper ugari eskatuak nituen izan ere, nahiz eta Europa izan, Odontologiako

tituloak bertan balioa izan dezan mila gauza eskatu eta ingelerara itzuli behar dira. Nire kasuan, zortzi hilabete luze behar izan dituzte (Madrilen gauzak patsadaz hartzen dituzte ikusten denez).

Kultura ezberdinak ezagutzeko leku bikaina da Londres, mundu osoko jendea aurki dezakezu bertan. Gabirirekin dituen ezberdintasunak esaten hastea baino errazagoa da berdintasunak aipatzea. Batere ez!

Zenbakiarekin hasten banaiz jolasean, Gabirian hamar biztanle basoko eta hemen, berriz, hamar mila zuhaitz bakoitzeko, hamabost milioi biztanlek osatzen baitute Londres.

Bestalde, ez neukan ohiturarik metroa hartzeko, Londresen ez dut beste aukerarik izan, hogeit hamar kilometro nituen etxetik lantegira (hiri berean egon arren). Pixka bat mugitu eta harrিতuta utzi ninduen bertako jendearen presak, beti korrika alde batetik bestera, berandu helduko balira bezala, eta beraiek horrela dabilenez, zeu ere korrika hasten zara nahiz eta jai eduki egun horretan. Alde honetatik estresante xamarra da bertakoen bizimodua. Bertaratu arte ez nuen ezagutzen semaforing izenez ezagutzen den "kirola", zeinetan trajedun pertsona bat, bere maleta, telefono mobil, iphone, ipad, aurikularrak eta eramateko kafea eskuetan duela kolore berdean dagoen semaforo batetara korrikan doa, berriro berdean jarriko ez balitz bezala.

Estres guzti honi aurre egin nahirik bizikletan ibiltzen hasi nintzen. Kanean bizikletak alokatzeko lekuak daude, merke gainera. Bertan asko errespetatzen dira txirindulariak, autobusak gelditu eta dena egiten dira pasatzen uzteko baina trafiko handia dago lasai ibiltzeko eta orain oinez ibiltzen naiz edozein lekutara joateko.

Londresa iritsi aurretik, Euskal Herrian eguraldi kaxkar xamarra genuela uste nuen, iritiz aldatzeko balio izan dit egonaldiak, aterkia eskuetatik aldendu ezinda nabilenez.

Oroitzapen polit ugari ditut azken urte honetan baina zerbait aipatzekotan, nire guraso, osaba-izeba eta anaiaren bisita izan dira. Nahiz eta etxean ez egon, beraiekin egoteak indar berritu egin ninduen, bizitza honetan zein gauzei importantzia eman behar zaien eta zeri ez, ikasteko balio izan du, norberak zertarako balio duen, zertarako gai den eta etxean zer utzi duen konturatzeko.

Honelako esperientziak nere adinean bizitza errazagoa dela deritzot, lehenengo asteak gogorak noski, baina ez naiz inola ere damutzen, bizitza beste prespektiba batetik ikusteko balio du, beraz, dudan zaudeten guztiok ANIMATU, baina hori bai, ahaztu gabe abiapuntua.

Maialen Igartzabal



"Tower Bridge" zubian gurasoekin eta osabarekin

Erick Odriozola

(Gabiria, 1985), Zuzulako Belenen semea, Berlinen bizi da gaur egun eta momentu hauetan, bere lehen-go premiere'a estrenatzera doa Alemaniako hiriburuan. Antzokitik antzokira entsaiatzen ari dela, gustora erantzun ditu Makilari aldizkarirako gure galderak.

GABIRIAR ARTISTA MUNDUAN ZEHAR DANTZAN



Txiki-txikitatik etxetik kanpora...

Bai, orain dela 10 urte baino gehiago, ez du ematen baino denbora oso azkar pasatzen da. Ia 7 urte bete nituen arte Gabiriako eskolan ibili nintzen, Mila izan zen nere andereñoa: orduko oso oroitzen politak ditut... eta ondoren Azpeitira. 16 urterekin Zaragozara joan nintzen, Maria de Avila dantza eskolara eta han 2 urte ikasi ondoren, beste bi Madrilera, Victor Ullate eskola famatura.

“Europa mailan dantza mundua oso desberdina da”

Ballet'a egin nahi baduzu garaiz hasia komeni da, eskola on batera joan gero mundu profesionalean murgiltzea errazagoa egiten baita, nahiz eta batzutan gogorra izan, familia urruti duzulako. Baina neri esperientzia honek, bai profesionalki bai pertsonalki ere, indar asko eman didala uste dut: askatasun handia bizitza zer den ikasteko eta era berean, bakarrik egoten ere erakutsi didalako. Hala ere etxera etortzen naizenean, etxean ere oso gustora sentitzen naiz eta horren beharra ere edukitzen dudala esan beharra daukat.

Eta ikasketak bukatu ondoren, bizitza profesionala...

Victor Ullate eskola utzi eta

2007an, BBJ: Ballet Biarritz Junior-Dantzaz, Konpainia pre-profesionalen aritu nintzen, Thierry Malandain zuzendari nuela. Urte bete egin nuen bertan. 2008an Gran Canariara salto egin nuen, Gran Canaria Ballet'era, Anatol Yanowskyrekin eta handik, beste urte bete egin ondoren, Marseillara 2012rarte. Lau urte egin ditut Frantzia, Jean Charles Gil zuzendariaren aginduetara. Orain Berlinen bizi naiz, 2012 urte bukaera aldera iritsi nintzen hona... ikusiko dugu, freelance moduan hasi naiz eta momentuz gustora nago.

Garbi zenuen atzerrira salto egin beharra dagoela dantza munduan murgiltzeko? Euskaldunik topatu al duzu?

Bai, garbi nuen. Espainian ez dago maila haundirik, geroz eta gutxiago egia esan, eta profesionalki garrantzitsua da koreografo ezberdinekin lan egitea. Europa mailan dantza mundua oso desberdina da, profesionalki aktibo izateko aukerak eskaintzen dizkizu eta aukera hauek aprobetxatzea ona dela uste dut. Niri, pertsonalki, aldatzea ona dela iruditzen zait. Frantzia lau urte pasatu eta gero, aldaketa baten beharra nuen, lana “aspergarria” bihurtzen ari zelako eta profesionalki, nire kasuan, “challenge” edo erronka ezber-

dinen beharra dudalako. Batzutan alde batetik bestera ibili beharra izaten da, herrialde batetik bestera...batzutan leku onetan eta beste batzutan ez hain onetan...

Euskaldunak, ballet munduan? Batzuk bai, eskolan bazeuden pare bat neska eta bueno, ni Ballet Biarritz Junioren egon nintzenean euskaldun dexente zeuden, eta ondoren ere hainbat euskaldun aurkitu izan ditut. Ezagutzen ez ditugun dantzari euskaldun asko daude munduko konpaini ezberdinetan.

Eguneroko zure bizimodua, nolakoa da? Entsaioak, aktuzioak, bizitza soziala...

Ea ba, eguneroko bizitza: 10:00etan ballet'eko klasea 11:30ak arte, 15min deskantsu eta gero entsaioekin hasten zara, 2 zerbitzu geneuzkan guk konpainian 11:45etatik 14:00ak arte, pausa txiki bat jateko eta gero 14:45etatik 18:00ak arte bigarren zerbitzua.

Eta orain freelance moduan hasi naizenez, ba zerbait okerrago, nire kontu entrenatu beharra dudalako.



Michel Kelemenisen L'homme de Jumeaux koreografia (Allauch)

Oraingo egunerokoa: 10etatik 15.00arte, Training Berlinen aukeratu ditudan irakasleekin eta gero 2-3 bat ordu gimnasioan. Eta lan proiektu bat baldin badut, beraiek inposatzen duten ordutegiarekin lan egiten dut.

Aktuazioak ditugunean, egunerokoa horrelakoa izaten da: klasea, espektakuluaren enplazamentua lehenengo (antzokiaren sala estudiatzeko), gero entsaioa. Ondoren deskantsu txiki bat eta Aktuazioa.

Eta bizitza soziala..., gutxi egia esan, bueno depende ze momentutan, baina denbora asko ere ez daukat. Bizitza soziala hori bai, dantzari eta artisten artean, hehehe.... (como suena, eh?)

Zein herrialdeetan ibili zara gustuen, Berlin barne? Anekdotaren bat edo baldin baduzu...

Ba, egia esan, Berlinera iritsi berria naiz, baina feeling oso ona ematen dit hiri honek, horrexegatik erabaki nuen Berlinera etortzea, aldake-

ta baten bila nenbilen eta Berlinera etorri nintzen. Nire bizitzaren momentu honetan, Berlinek eskaintzen didana behar dudalako, profesionalki eta pertsonalki.

Marseillan 4 urte pasatu eta gero, hiri haundi baten beharrean nenbilen.

Madrilen esperientzia oso onak eta garrantzitsuak eduki ditut, baita ere Kanarietan eta Zaragozan, eta Marseilla ere nire bizitzako zati haundi bat izan da.

Ezingo nuke bat aukeratu...,egin esan, egin dudan bidai bakoitza, bizi izan naizen leku bakoitzak bere garrantzia baitu.

Profesionalki, helburuak? Bizi al daiteke dantzatik?

Lau urte egon naiz jende berberekin lan egiten, konpainia berean, hiri berean, nahiz eta bidaiatu. Eta beste behar bat nuen, esan dizudan bezala. Orain, gauza berriak ikasi nahi ditut eta beste giro batean bizi izan, ikasteko.

Gure karrera nahiko motza izaten da, 35 urterekin, suertea izanez gero, 40rekin bukatzen da. Zure karrera aprobetxatu nahi izanez gero, mobitu beharra duzu: nire helburua, urte honetan proiektu ezberdinak egitea da koreografo ezberdinekin eta herrialde ezberdientan, hori bai, Berlin base bezala erabiliz. Eta datorren denboraldirako zer egin nahi dudan ikusi, freelance moduan jarraitu nahi dudan ala konpaini finko batera bueltatu.

“ikasten bukatu eta 7 urte daramatzat segidan lanean”

Helburua orain, Stage, klase eta jende ezberdinekin lan egitea!!

Eta bai, bizi daiteke dantzatik: zer zorte duzun arabera... Nik zorte ona izan dut, eskola bukatu eta lanean hasi nintzen segituan, 7 urte daramatzat gelditu gabe. Baina egia da orain krisi garai honetan, kulturak asko nabaritzen duela, eta geroz eta lan gutxiago dago. Eta jende gehiegi lan bila. Lehen baino gehiago, momentu nahiko espeziala da artistontzat.

Baino bueno, positibo izan behar da eta aurrera segi. Orain arte bezala.

Ainhoa Aizpuru



NIRE BAKEA EZ DA BAKEA
ZURE BAKEA EZ DA BAKEA

GUREA DA BAKEA

1936ko gerra zibilean ibilitako gabiriar guztien omenez

Gabirian, 2012ko apirilaren 8an, aberri egunean

GERRA ZIBILA

1936ko gerra zibilean ibilitako gabiriar guztien omenez, 2012ko apirilaren 8an, Aberri Egunean, Mendata, Murgil mendiaren magalean, plaka oroigarria jarri genuen. Hauxe dago idatzita plaka horretan:

Nire bakea ez da bakea

zure bakea ez da bakea

GUREA DA BAKEA

Bada, hitz hauek Bitoriano Gandiagak (Mendata, 1928-2001), Arantzazuko fraide frantziskotarrak, idatzi zuen poema batetik daude aterata. Hona hemen poema hori:

Ez da nahikoa zure bakea,
ez da nahikoa nirea.
Ez da nahikoa nire bakea,
ez da nahikoa zurea.
Bakea ez da bakoizka bake,
zuk zeurea, nik neurea;
bakea ezin daiteke bake
ez baldin bada gurea,
ez baldin bada geure banako
bakeen arteko bakea.

Bake gehiegi darabilligu,
banako bake gehiegi.
Talde bakoitzak, buru bakoitzak,
bere bakea du begi,
bere bakea du begi eta
bere bakea du tegi,
Elkarrengandik banan gabiltza,
banan eta banatuegi.
Banako bake guztiak bildu,
Bake bakarra eregi*.

Nire bakeak behar du zabal
zureganako atea,
zureak ere behar du zabal
nireganako artea.
Ez esparrurik, ez eta hesirik,
argi ta garbi tartea,
gure bakeok behingoz dezaten
ikusitako besteak,
ikusitako besteak eta
elkarri eman bakea.

Elkar ditzagun geure bakeok,
banan ditugun bakeak,
elkar ditzagun partidu eta
siglen arteko aleak,
merezi du-ta bake guztiez
bake-ore bat ontzeak,
bake-ore bat ta bake bereko
ogi beretik jateak,
bakeen bakeaz ase ditzagun
bake egarri-goseak.

Bake itxirik ez dugu behar,
sigletan itxi bakerik,
sigletan ez da kabitzen-eta
bake eskasa besterik.
Aska dezagun bake gaixoa
hainbat siglaren menpetik,
guztiongana hurbil ahal dadin
trabarik gabe, solterik,
haren ongia goza dezagun
bakean eta librerik.

Denon artean egin dezagun
guztiontzako bakea,
bertatik kanpo inor utziko
ez duen bake-legea,
bake horretan bakoitzak ikus
ahal dezan bere parteak,
ahal dezan bere parteak eta
ahal dezan bere tartea,
bakean dezan aurrerapena,
bakean gozabidea.

ZUEN OROIMENEAN

Bai Antonio Igartzabalen elkarrizketa, bai Santi Agorretarena, prentsan agertu ziren orain bi urte, laburtuta eta moztuta. 1936ko gerran ibilitako herriko azken bi gudariak, beste guztiak bezala, hau eta askoz gehiago merezi dutelako, egoki iritzi diogu bien elkarrizketak osorik emateari. Gertatu zena lehen pertsonan kontatuta gera dadin, batetik; eta omenaldi sentikorrena egiteko besterik ez dugulako guk, bestetik.

Beraiek ezingo dute irakurri dagoeneko, orain dela hilabete gutxi utzi gaituztelako. Baina ez zuten leitu beharrik ere; kontatu zituztenak begiz ikusiak eta bihotzez sentituak direlako, eta inolaz kontatu ezin edo nahi ez zituzten mila kontu gehiago zekizkitelako.

Beraien oroimenean.

ANTONIO IGARTZABAL

(Gabiria, 1919 - 2013)

1936ko gerran gudari ibilia

Aranburuko Antonio Igartzabal Otegi elkarrizketa hau 2011ko uztailaren 22ko arratsaldean egin genion, Aranburu baserriko sukaldean. 35 minutuan 75 urte atzeragoko kontu historikoak errepasatu zituen; gertaraera latzak eta gordinak tartean.

Zenbat urte dituzu?

91. Azaroaren 24an betetzen ditut nik. 1919an jaioa naiz.

Aranburu baserri honetan jaioa zara?

Ni bai, hemen bertan jaioa. Ordurako etxe hau eginda zegoen. Egin berria zen, aurreko etxea erorita zegoen eta. Bost urte lehenago-edo eginda zegoela esaten zuten. Aurretik harunzkalderago zen etxea. Etxezarra esaten diote orain hari. Luiziarekin ikara egin eta pitzatu egin omen zen dena, lurrikararekin, esaten dute. Gregori zena [arriba zuen] Jauregin jaioa zen, hau egiten ari zirelako, hura erorita. Hortxe jartzen du, atez kanpotik, oholean, 1914an egindakoa.

Zenbat senide zineten?

Blaxa, Prantxika, Gregori, Ramon, Benita, eta ni. Sei. Gregori Jauregin jaioa, eta aurrekoak

Etxezarren jaiok ziren. Ondorengoak, hemen. Hemengo aita zen, eta ama Otegikoa, hor goikoa.

Eskolara zer joera egin zenuen?

Eskolara Gabiriara ibili ginen gu. Oinez, orduan. Ez naiz akordatzan zenbat urterekin hasi nintzen. Alejandro maisua zegoen [Alejandro Ortiz de Zarate]. Txiki-txikitatik ere oinez, beharko! Hemendik, Kataraingo etxe ondotik Idarrazpitik Baztarrikara, handik behetik gora Artzaindik, edo bestela Learregitik aurrera. Mutikoak eta neskak aparte izaten ginen orduan, orain nahastuta egongo dira baina.

Orduan eskola, zuen garaian, artean egin berria izango zen, ezta?

Artean egin berria zen, bai. Eskola ona zen orduan Gabirian, berriketako aulkiak-eta zeuden...

Balentzategik egin zuen. Amerikanoa, haren diruarekin...

Balentzategik egin zuen, bai, hark utzitako diruekin. Kortzu Azpikoa izango zen, uste dut, Balentzategi hura. Ez nuen ezagutu.

Aurretik eskolak non ote ziren?

Eskola Txikia esaten dioten hartan, han egongo zen edo. Botata dago orain. Aiuntamentutik, ura dagoeneko bitarte hartantxe zegoen. Hura izango zen, Eskola Txikia esaten zioten eta. Ni ez nintzen han ibili, ni ia berrian.

Zer ikasi zenuten eskolan?

Ezer asko ez! (barrez) Sumar eta restar eta holako gauzak, multiplicar eta... Erdaraz; beharko! Hamabi urte edo izango ziren geratu nintzenean, Errepublikak hasi aurretik.

Gero, 12 urterekin, zertan hasi zinen?

Etxean. Behiak zaindu-eta, itulan-eta, etxeko lanak egiten.

Eta, halako batean, gerra. Aurretik nabaritzen al zenuten bazetorrenik edo?

Ez, ezta... Guk ez artean, mutikoak ginen eta ezta pentsatu ere halakorik. Hamasei urte nituen, hamazazpi egiteko.

Nola harrapatu zintuen? Non jakin zenuen gerra hasi zela?

Ormaiztegiara joan eta hantxe jakin nuen aurrena, karnizerira joanda, gerra irten omen zela. Beno! Gari ebakitzen orduantxe hasita geunden, eta hala bidali ninduten etxean karnizeriara. Handik denboratara sartu ziren Gabirian. Orain fetxa ahaztuta nago... Julion hasi eta Gabiriara hilabete bat geroago-edo etorri ziren, setienbren.

Irailean, 17an edo horrelakoren bat?

Bai, holazen. Egon, Bixentaren kunpleañoetan [Bixenta Alustiza emaztearenean]. 16an izango zen, ala? Ala 17an? Horrek behintzat

kunpleaño egunean esaten du eta [16an].

Gerra hasi zenetik hona iritsi arte, bitartean zer gertatu zen?

Gerra Mutiloan egon zen. Gabirian eskupeta batzuk zeuden, gehienez ere. Potoa ipini aurrean, inor etortzen bazen hotsa ateratzeko eta.

Gabirian sartu aurretik hotsak eta aditzen al zenituzten?

Tiroak, bai. Mutiloa aldetik, Liernitik. Gabirian fusil bat zegoen guztia, eta zer egingo zuten ba? Bakarra. Beste gainontzekoak eskupetekin. Gero errifle txiki batzuk ekarri ziren, errifle koxkor haiek zer egingo zuten? Ehun metrora tiratzen bazuten... Han ez zegoen beste armarik.

Lehenengo organizazioa nola izan zen?

Gerra hortik etorri zen. Organizazioan Gabino Murua zena, Lopez bestea-eta ziren, horiek egin zuten sobrare herrian junta, eta orduan koadrila osatu zuten. Herriko gazte guztiak bildu zituzten. Iluntzean Mutiloatik egin zuten tropek behetik gora. Nik anaia zena nuen Gabirian, eta hari esnea eramatera joan nintzen. Ni hara joan nintzen garaian inor ez zegoen Gabirian. Tropak ordurako bazetozen kaminoz behetik gora, eta ni erditik pasatuta aurrera joan nintzen, gora. Ni, ez jakinean. Tropak etorri ziren, ez dakit ba, hogeiren bat lagun edo zer izango ziren, koadrila behetik gora, eta ni han pasatu nintzen tartean gora. Herrira joan nintzenean, herrira eramanda zeuden Iguangako Joxe Antonio zena eta, eta hark esan zidan "motel, motel, motel, jun hadi motel hemendio, bestek jun dittuk eta". Hala, irteeran, Gabino zenak, herriko telefonoa zegoen han, eta telefonoa hartu eta "eamazak hoixe", eta herriko telefonoa neuk eraman nuen Zumarragara.

Telefonoa, portatila?

Bai zera! Paretakoa, zintzilakakoa, besteek ez hots egiteko. Maisuaren eskolan zegoen ipinita telefonoa. Handik hura eramateko, eta hala joan nintzen ni besteekin batera. Besteak Murgilen zeuden, koadrila, Gabiriakoak, eta han sartu nintzen eta haiekin batera Zumarragara.

Zenbat lagun edo bildu ziren Gabirian?

Asko ginen. Nik ez daukat gogoan orain zenbat izango ginen. Haiekin batera Zumarragara. Zumarragako Batzokian gaua pasatu eta atzera hurrengo egunean etxera etorriko ginelakoan eta... Bai, leku onean zegoen!



Sartu ziren tropak zer ziren, nafarrak?

Nafarrak, eta militarrek behintzat. Txapelgorriak, erreketek. Ni Arroatik joan nintzen, eta haiek bidean Kamiñokutza alde horretatik bueltan joan ziren, kaminoz.

Sartu zirenean, zer?

Kanpai bueltakoak eta hotsak atera zituzten. Ni bertantxe nengoen oraindik. Tirorik ez nuen entzun. Hemengoek zer tiro tiratu behar zuten bada? Gabiria tirorik gabe hartu zuten. Lehenago bai, egin izan behar zituzten Lierni alde honetan tiroak, baina Gabirian ez zen tirorik izan. Ordurako denak Zumarraga aldera joanda geunden. Hurrengo egunean bai, tiro batzuk egin izan behar zituzten hemen.

Berriz Gabiriara etorri ziren Zumarraga aldetik, frente egiera, ezta?

Bai, berriz atzera etorri ziren. Zumarragatik koadrila etorri zen Gabiriara. Armak zenbat ekarriko zituzten? Fusil gehiago, baina lau izango ote ziren? Eta beste aldetik zera...

Ondo preparatuta zeuden ordurako. Gure aita zenak-eta esaten zuten, Agerreko Askatik gora Gabiriara joaten omen ziren erreketek, eta besteek Murgildik ikusi ere ez. Gabiriara tropa pasatu izango zen, handia gainera. Enee!

Zumarragatik nora egin zenuten?

Hurrengo egunean, Zumarragatik bertan zirela eta, hartu eta ni Eibarrera eraman ninduten, gaztea nintzela artean eta. Han egon nintzen, Eibarren. Lehenengo momentuan ez ninduten sartu. Gero montatu zen Amaiur bataloia, eta montatu zen garaian, Kalamura, herrikoekin. Gaztea nintzela eta, anaia zenak, Antiak eta "morroi alde eizak" esaten zidaten. Ni morroi egon nintzen Arbazegi-Gerrikaitzen, herri txiki batean, Munitibarren. Hantxe egon nintzen morroi, ia geroxeagora arte. Ia tiroka hasi ziren garaian, beldur horrekin irten... beharko irten! Gero zapadoreetara, Sarasketa bataloira joan nintzen. Aurrena Amaiurren, eta gero zapadoreetan. Beti atzeraka, beti atzeraka.

Amaiurren Gabiriako asko sartu ziren.

Eneee. Gabiriako koadrila handia. Beste bataloi batzuetan ere baziren: Itxarkundian, Loiolan ere baietz uste dut. Ni aurrena Gabiriako horiekin Kalamura joan nintzen, Amaiurrekoekin. Zapadoreetan ere asko Gabiriakoak ziren. Hemen, Kamiño Zarra arreglatzen ari ziren gerratean, enkautxoa egiteko harria botatzen, eta horko koadrila bat zegoen, Diputazioak eramanda, Aretxabaletan zeuden, lanera eramanda. Hangoekin egon nintzen gero, koadrilan.

Kalamuan borrokarik izan zen zu han egon zinen garaian?

Kalamuko konpainia ez dizut esango zein konpainia zen, baina bat bakarra zen artean. Gero handiagoak formatu ziren. Erreleboa joan zen garaian, handik jaitsi ginen, eta anaia zenak-eta morroi joateko esan zidaten. Nik ez nuen hartu fusilik. Gaztea nola nintzen, han ibiltzen nintzen platilloak garbitu-eta... perol tzarrak galantak bai!

Zapadoreetan, Sarasketan, zer lan egiten zenuen?

Gehienez sukaldeko lanetan egon nintzen ni. Sua egin, egurra txikitu...

Gernika bonbardeatu zutenean, non zeunden zu?

Handik bi kilometrora. Gernikatik aurreraxeago, pinudi batean. Han atera zituzten hautsak, Jesus! Hura zen txikizua, hura. Gu ordurako pasatuta geunden handik, ihesi beti. Bilbo aldera pasatuta geunden, atzeraka, atzeraka.

Bilbora ailegatu zinen?

Bilbora eraman ninduten, koadrilan joan ginen. Bilbon hantxe egon nintzen ni, Bar Guipuzcoanon, apopilo bezala. Oraindik gogoan daukat, orain ere egongo da. Bale xar bat neukan, eta harekin.

Eta handik atzera?

Santoñaraino. Atzeraka joanda, Santoñan harrapatu gintuzten, eta gero etxera. Hemen egon nintzen gerratean gero, etxean, panadero. Ormaiztegin panaderoa falta, inor ez zegoen eta. Harik eta kintan harrapatu ninduten arte, eta hala joan nintzen berriz.

Santoñakoa zer izan zen: errendizioa ala traizioa?

Hura, traizioa ere puska bat bai, baina beharko errenditu. Ezer ez zegoen eta! Bestetik planoak eta dena zituzten. Errenditu ezean txikitu egingo gintuzten. Han denak alemanak eta italianoak ziren. Zubi batean entregatu ginen, koadrila. Hondartza batera

eraman gintuzten, deklarazioak hartu eta ni etxera bidali ninduten, gaztea eta.

Zu Gabiriatik joandakoan artean gazteenetakoa zinen?

Bai. Besteak zaharragoak ziren: Bekoetxeko Martin zena eta, anaia zena eta... Anaia Ramon ni baino zaharragoa zen, Gregori eta Benita zena baino zaharragoa zen. Hura artean soldadu joan gabe zegoen gainera, aitzak 60 urte bazituen libratu egiten zituzten. Gero, bai, soldadu. Gerratean. Hura ez da askoz hobea.



Zuen anaia non hil zuten?

Bizkargin, zauritu. Derion lurperatu zuten, kanposantuan. Bilbon, ez dakit zein ospital zen, Basurto zela uste dut, han hil zen. Bizkargin metrailarekin zauritu zuten, eta kurarik egin gabe pasmoa sartu zitzaion hari. Larruzko txaketa zuen, eta metraila bizkarrean. Ez zuen besterik. Berez aberia txikia zen, baina kurarik egiteko ezer ez zebilen han eta, ba al zegoen ba? Eta pasmoarekin kitto. Ospitalean hil zen.

Zuk jakin zenuen?

Jakin bai, ordurako Bilboko Bar Guipuzcoano horretan nengoen eta. Han ematen zidaten jaten. Baina askotan leku batean goseak igoal, arrazionamendurekin, eta beste taberna batera joaten ginen; eta hala. Ez zen gehiago izaten!

Bizkargin jende asko hil zuten, ala?

Bai, Bizkargin asko. Bonbardeoa, uff! Atake gogorra egon zen han. Ordurako ia arma sartuta zegoen; fusila bai, kanoi batzuk ere

bai, baina gutxi. Baina aeroplanorik batere ez zegoen, eta aeroplanotik egiten zuten haiek. Eguna zabaltzeko beldurrez gu! Aurrena hirunaka etortzen ziren, kazako txiki batzuk; ikusten zituzten denak, eta handik ordu erdi bat baino lehen han etorriko ziren kazako denak. Sobrare fotografiak atera eta ikusten zuten behean mugimendua non zegoen. Txikitu? Mendi guztia dena sutan ipintzen zuten. Azkenean, munizioa gastatzen zitzairen garaian kaja hutsik goitik behera nola botatzen zuten ikusita daukat, neuk bista-bistan neukan. Mañariko kanpandorrean nengoen ni, ihesian ordurako. "Zer bota dik horrek?". Munizioaren kaja. Bonbak gastatutakoan kaja bera ere bota zieten. Besterik ez zutelako, jo eta behera hura ere.

Geroztik izan zara morroi egondako baserrian?

Bai, Euxebiorekin joanda. Baina, etxe hura dena sasiak hartuta zegoen. Errota zen. Pena haretzek eman zidan. Hango jabeak, ia edadetuak bizi ziren, bonbardeoa hil ziren, eta gero etxea abandonatu eta kitto.

Santoñan, italianoekin hitzartu zenuten errendizioa?

Italianoak eta alemanak, biak ziren. Alemanak izango ziren guregana. Gero sartu ziren hemengoak. Bi tropak erdian gintuztela hartu tartean, eta hala. Fusilik batere ez geneukan, pala eta aitzurra besterik. Lapikoak garbitzeko kargua besterik ez neukan nik, laster libratu ninduten handik, deklarazioa hartzen hasi eta segituan.

Etxera nola itzuli zinen?

Oinez. Handik Bilborako trenan eman zituzten. Tren xar bat noizbait etorri zen. Durangoraino trenean. Bergarako Maltzagara trenean, hortik eta hemendik ahal genuen moduan. Zumarragatik oinez taka-taka etxera. Ordurako hanketan ibili ezinda nengoen, bideak eginda eta. Tokatu ziren Errotakoak, hor goian, garotara joanda, eta gurdiaren gainean, garo pilaren gainean etorri nintzen, Kamiño Zarrean behera. Hori gogoan daukat. Hankak eta denak beratuta neuzkan.

Herrira bueltatutakoan jende asko faltako zen, ezta?

Eneee! Hementxe falta! Hemen zegoen miseria.

Zuk, gainera, adinagatik soldadutzara joan behar oraindik.

Kintara hots egin zidaten. Montejuerrara joan nintzen soldadu, Lizarrara. Handik gerratera eraman ninduten. Gure koinatu

zenak-eta, Pasaiakoek, komandante batekin amistadea zeukaten, eta haiek egin zidaten modua. Telefonoetara sartu ninduten.

Baina gerrako lekura, ezta?

Bai, Lleidara. Gerra bukatu baino lehentxeago alde egingo genuen handik. Beste herri batera gindoazela, ez dakit nora, gerra bukatu zela esan ziguten. Beno! Handik Malagara, Torremolinosera; han egon ginen konpainia. Gero Madrilera, koartelera. Pardon, Francoren txaletaren aurrean egon ginen. Atzoko egunez [uztailak 21] lizentziatu nintzen, eta gaurko egunez ailegatu nintzen etxera [uztailak 22]. Papelak eginda zeuden, komandante horrek egin zituen. Gustura askoan etorri nintzen etxera. Zumarragaraino trenez, korreoa, eta Zumarragatik Ormaiztegiara tranbian. Han emandako paper batekin trena pagatu beharrik ez zegoen. Gero oinez, etxera, taka-taka. Aurrena etxera etorri nintzen. Koinatuarengana -Pepe Artzelusen aita zena, Antonio, Antonio Txiki esaten zioten [Antonio Artzelus]- Gabiriara joan, eta Alegiara joanda zela; soinu jotzen zen, festetan. Eta Alegiara festetara.

Telefonoetan zer eginkizun zenukan?

Zentral txikian, lineak arreglatu eta, bonbardeoa puskatzen bazituzten. Oinezkoek gehiago puskatzen zituzten. Lurrean botatzen genuen haria, bizkarrean rolloa eramanda. Hankapean puskatu eta hura arreglatzen. Han ere sukaldia gehiena nerea izaten zen. Sei lagun ibiltzen ginen, sargento batekin. Baina pena gehiena ematen zidana dendara joan edozein lekutara, eta bale xar batekin ateratzen zidaten. "Honekin nola eman behar diet nik?". Baina horixe geneukan, eta esandakoa egin behar. Gutxiarekin jartzen ikasi genuen.

Santoñatik etxera etorri eta soldadutzara deitu arte, zenbat denbora joango zen?

Seiren bat hilabete? Ez ziren izango sei hilabete. Hortxe.

Beraz, zuk gerrate ia guztia gerran egin zenuen.

Bai, gehiena gerran. Aurrena alde batean eta gero bestean. Gerrate guztia pasatu, dena, eta zauritu bat ere ez nuen ikusi. Ez handik, eta ez hemendik. Suerte ikaragarria eduki nuen, gerra izateko. Bilbo aldetik ere ez nuen ikusi. Gu atzeraka joaten ginen, parapetoak egitera. Frentea hemen bazegoen, bi kilometro atzerago joaten ginen, gero besteak joateko. Han aitzurra eta pala izaten zen, baina ni gazteena



nola nintzen sukaldian sartzen ninduten. Agerreko Patxi, Landarregi esaten ziotena, hura geneukan bat sukaldaria; bestea Ormaiztegiko Agustin, Sagastiberrikoa; beste bat Antolar Azpiko Sagastizabal anaia bat. Hiru sukaldariak bertakoak nituen.

Olkia azpikoa, Joxe Apaolaza, uste dut frentean hil zela. Artxanda baino lehenago. Tomas Uri: hori Aranekoa. Hori izango da, Agerreberrikoa esan zidana, Bilbon atera omen dituzte orain, kanposantuz kanpotik omen zegoen enterratuta. Fusilatu ez zituzten egin, frentean hildakoak ziren horiek.

Alzqueta bi anaiak: Simon eta Luis, Izar Erdikoak.

Ermentarizarrekoak beste bataloi batzuekin ibili ziren, ez Amaiurren. Luis gero fraile joan zen.

Jesus Izagirre, Errotakoa.

Jose Mari Gabiria, Bekoetxekoa. Hil, Bizkargin uste dut hil zela. Han egin zuten txikizoa. Denak herritarrek jarri zituzten, eta atakea tokatu zen han, eta herrikoak denak. Gabiriarrak hamar lagun baziren, hamar bataloitara banatuko zituzten, hartara bat hiltzen da. Baina hartarainoko esperantza zegoen orduan, denak herrikoak jarriz geroz gauza handia egiten zelakoan, baina... Bonba batekin asko hil.

Organizazioa zer moduzkoa izaten zen?

Organizazioa gutxi. Beste aldean beste diziplina bat zegoen. Enel! Engainatuta bezala ibili ginen. Bukatuko zela esan bai, baina... Gainera, gaizki. Hasieran, berehala, Gasteiz faxistei hartzeko gertuan ibili ziren Bilboko militarrek. Baina hor galdu ziren, eta gero sartu ziren italianoak, alemanak eta moroak. Pentsatu zer hiru. Hiru lekutakoak

ibili ziren e! Niri alferrik esango didate hemengoei laguntzen errusiarrak ibili zirela, nik ez nuen ikusi! Ez dakit non ibiliko ziren. Nazio laurden baten kontra hiru-lau nazio jarri ziren! Diziplina? Han ez zegoen bromarik.

Amaiurren zein zenituzten zuek nagusi?

Billafrankako Apalategi, Txindokin egon zen gero hura nagusi; Arantzazuko Milikukoa zuen andrea. Bestea, Alkaingo Patxi [Murua]. Santoñakoaren ondoren, deklaratzeko garaian, Gabiriara etorri nintzen garaian, alkate Patxi Lasa zegoen, gure lehengusua egiten zen. Hark esan zidan: "Gero isilik egon, Gemika bonbardeatzeko horregatik, e, hire egiak baino nire gezurrak gehiago balio dik eta". Haretxek esan zidan niri! Niri bakarrik ez, elkarrekin joan zen Zuzulako Juanito zena, eta holaxe esan zigun. Adios! Hori lehengusua esan zidan niri, hura alkate zegoen eta.

Herrira etorritakoan atxilotu-edo egin zintuzten?

Ez, ez. Ez ninduten inon eduki, kalabozoan ez nintzen egon.

Baina isilik egoteko agindurekin. Isilik egoteko esan zidaten, eta beharko isilik egon! Gemika zeinek bonbardeatu zuen, bagenekien ondo asko. Baita hark ere!

Aimar Maiz
(Aranburuko Antonioren oroimenez.
201 In egindako elkarrizketa)

ZUEN OROIMENEAN

Santirekin elkarrizketa Urruti baserriaren atzeko estalpean egin genuen, 2011ko San Joan egunean. Tartean Koldo Sarasola apaizaren bisita jaso zuten Santik eta emazte Pilar Ormazabalek. Azken aldian elizara ezin joan, eta hilean behin, azken ostiralean, etxera joaten zitzaien apaiza, Jauna eramateko. Mahaiaren bueltan otoitzak entzun, eta gerrako kontuetara itzuli zen atzera. Zertara gindoazkion entzun orduko, galdetu beharrik gabe hasi zen kontakizunarekin.

SANTIAGO AGORRETA BASATEGI

(Zizurkil 1919 – Gabiria, 2012)

Gerra sortu zenean ni tunel horretantxe nembilen lanean, Urruti goialdekoan. Argixaora eraman gintuzten hortik, trintxerak egitera, eta gero joan ginen gerrara.

Gerra piztu zenean karrilean zenbiltzan lanean?

Bai, karrilean. Abertzaleek Argixaora eraman, eta Zumarragara jaitsi ginen. Zumarragan denak joan zirela esan ziguten: "moteil, denak bazihatzek hemendik". "Beno, joan egin beharko diagu ba guk ere", eta hala joan ginen lehenbizi Zumaiaraino, eta gero Durangoraino, trenean. Armak Eibarren eman zizkiguten. Zumaian mojen komentu batera joan ginen, haiek joan zirela eta. Gu joan ginen gero. Ni umea nintzen, gainera, orduan.

Zenbat urte zenituen?

Hamazazpi urte. Umea nintzela, eta ez dakit zer eta badakit zer esaten zidaten. Fusil batzuk eman zizkiguten, italiakoak, txarrak. Baina ez zen ona hura. Agintariak bazeuden orduan gudariak, baina ez zekiten gerra asuntoan. Eibarko mendi batean egon ginen. Atzeraka, beti atzeraka. Azkenean hala bukatu genuen, atzeraka.

Durangon denboraldi bat egingo zenuten, 36tik 37rako neguko frontean, ezta?

Bai. Durangotik Eibarrera frentera joan behar genuela esan ziguten. Neu baino zaharragoak neuzkan soldadu, eta "hau umea duk oraindik" esaten zuten, "hau ez diagu eraman behar". Hala geratu nintzen. Baina gero denak hartu gintuzten. Baina alferrik, ez zekiten gerran eta. Nazionalistak bai, baina gerran ez.

Durangoko bonbardaketa ikusi zenuten?

Bai, ni bertan nengoen. Bonbardeoa alemanek, italiakoek, denek egiten zuten. Txikizioa latza izan zen. Txikitu? Gu hortik joan ginen pixkanaka-pixkanaka Bilbo aldera. Baina ez zegoen, ez zegoen...

Zuen buruak zein ziren?

Hemen, herrian, Gabino [Murua] zenak formatzen zuen nazionalismoa. Gazterik hil zen.

Baina gerran ez zen hura. Gerran ziren Dionisio [Antia], Eugenio [Murua], Patxi [Murua, Alkaingoa]...

Zu Amaiur bataloian ibili zinen?

Ez, ni beste bataloi batean ibili nintzen; zapadoreetan lehenbizi, eta gero beste bataloi batean. Gabiriarr gehien-gehienak Amaiurren ibili ziren. Hildakoak ere asko izan ziren.

Zapadoreetan zer lan egiten zenuten?

Trintxerak. Aitzurra eta pala hartu, eta trintxerak egin. Trintxera da lurrean zuloa egin, han gordetzeko. Baina ez zen...

Errusiarrek bidaliko zutela, ez dakit zer egingo zutela, baina ez zuten bidali abioirik eta armamenturik.

Zer arma zenuten zuek?

Fusilak, italiarrak, zahar batzuk. Desbarajuste handia izan zen. Diziiplina falta, eta direkziarik ez. Orduan kapitainak ziren Antolar Garako Dionisio, Patxi Alkain, Eugenio... horiek ziren hala-modutsukoak, baina ez zeukaten horiek direkziarik.

Eta zuek ahal zenutena egin behar ala?

Ahal genuena, bai. Baina bastante poliki bukatu genuen.

Bilboko setioan-eta makina bat zulo egin beharko zenuten...

Bilboko mendian, Artxandan eta horietan ibili ginen trintxerak egiten. Egin genituen trintxerak, baina alferrik. Nazionaletan Francok agintzen zuen, eta hark dominatzen zuen. Hark ondo zekien lezioa zer egin behar zuen. Mola jenerala ere han ibili zen, baina Francok garbitu egin zituen bere kontrarioak. Mola ere garbitu egin zuten.

Zapadoreetan ibili zinen, baina tirorik bota beharrik izan al zenuten?

Tiro asko bota nuen nik. Baina gure tiroak ez zuen balio ezer.

Bilbotik?

Santander aldera joan ginen pixka bat. Baina ia Bilbo hartu zutenean kitto, galdu zen dena.



Non bukatu zenuen gerra?

Ni Bilbotik joan nintzen. Eskegitako Zubian juntatu ginuen asko. Denok ezin eraman zubi horrek, eta gu Bermeo aldera zegoen abiazio zelai batera eraman gintuzten. Handik ekarri ninduten guardia zibilek. Alkate Patxi Lasa zegoen orduan -haren andrea nazionalistek eraman zuten, eta puska batean eduki zuten gainera-, eta esan zidan: "Badakit zuk ez daukazula ezeren kulparik, baina ordena daukat guardia zibiletara eramateko". Villarrealen [Urretxu] zeuden orduan guardia zibilak. Ni lehenbiziko soldadua nintzen, gudaria. Eraman ninduten hara, eta esan zidaten: "Tu eres muy joven para hacer cosas". Niri ez zidaten kastigurik eman. Baina guardia zibiletara eta kartzelara eraman ninduten. Han egon nintzen puska batean. Orduan, Bar Sabino zegoen Villarrealen, eta mikeleteak zeuden asko, jaten eta apopilo. Bat nire lehengusu batekin zegoen ezkontuta, eta hark esaten zuen "ese chaval no ha hecho nada, nada". Hala ekarri ninduten etxera, Gabiriara.

Kartzelan zenbat denbora egin zenuen?

Bastante denbora egin nuen, Urretxun. Guardia Zibilaren kalabojoetan. Pasatu zen

hori ere.

Zu zeu ez zara jaiotzez Gabiriakoa.

Non jaioa zara?

Zizurkilen. Zizurkilen jaio, Zandategin hazi, eta urte gehienak hemen bizi. Hona ezkondu nintzen Pilarrekin; hemengo gurasoak hil ziren, Ramon eta Patxi ere hil ziren, eta orain geu nagusi.

Zer urtetan jaioa zara zu?

Ni jaioa naiz, seis de marzo de mil novecientos diecinueve. 93 egin behar ditut. Urte piloia.

Baina jakin ere piloia.

Beno, gehiago behar genukeen jakin. Baina...

Zenbat urterekin ekarri zintuzten Zandategira?

Txikitan. Ni umeak zeuden tokitik hartuta etorri nintzen. Benitok eta Ixidrak hartu ninduten. Zandategin hazitakoa naiz gehiena. Onak, onak ziren. Gizona ere bai, emakumea ere bai.

36ko udan lehertu zen gerra. Zuek

aurretik ba al zenekiten gerra bazetorrenik edo, giro berezia zegoenik...

Bai, bai, bai. Gabiriara Gabirizar aldetik sartu ziren. Tiro hotsak Zandategira ere iristen ziren.

Gabirian noiz sartu ziren ikusi zenuten zuek, ala ia alde eginda zeundeten?

Alde eginda. Setienbren zen hura. Gabirian, Kurutz Bakarretik aurrera, bat hil zutela eta beldurrez airean gu ere. Baina orduan nazionalista jendea gogorra zen. Orain ez dago gazterik, orain nazionalistak gastatuta daude.

Baten bat hil zutela?

Ardantza aldetik aurrera. Baten bat hil omen zutela han esaten zuten.

Gabiriatik gehienak gudari joango zineten. Beste aldetik ibili al zen inor, Francoren aldetik?

Beno, ibiliko zen, baina hori ez dakit garbi. Gabirian gudari asko zen. Hildako asko ere baziren. Hemezortzi baziren hildakoak Gabirian e!

Frentean, parean ez zitzaizun tokatu ezagunik?

Niri ez zitzaidan tokatu.

Esaten da Gabiriatik joan zela biztanle proportzioan gudari gehiena.

Euskal Herri guztian Gabiriatik joan zen jende gehiena, eta Amaiur bataloian ibili ziren. Horregatik hil ziren asko, toki batean zebiltzalako. Horiek apuntatuta jarri zituzten kobertzioan; orain denak borratuta daude, denak kenduta daude.

Zuek, frentean zenbiltzatela, herriko hau edo hura hil zen notiziarik jasotzen zenuten? Jakiten zenuten zer gertatu zen?

Bai, bai. Horiek jasotzen genituen.

Zure inguruan baten bat hiltzea tokatu zen?

Bai.

Gerra ondorena ere gogorra izango zen. Etxera etorri, eta zer egin zenuen?

Lanean hasi nintzen, Patriziorenean. Estimatuia izan nintzen. Labe txiki batean egiten nuen lana. Burdin espeziala zen dena.

Gero etxean ere arituko zinen.

Bai. Pilarrekin ezkondu, eta hemen jarri nuen kaldereria. Orain ere fundizioa badaukagu. Ramon eta Pako Indarren jabe ziren, Pilarren anaiak. Pako eta Ramon lagunak nituen. Haiek Indar aurrera eraman zuten. Gero ez dakit zer pasatu zaien. Orain berria eginda dago, goian. Baina apenas dagoen orain lanketarik, hala esan zidan Gabiriako lagun batek: "Indarrek lanketarik ez zeukik".

Herrira joaten al zara?

Jada ez. Lagunek esaten didate ea zergatik ez naizen joaten elizara. Ezin dudalako! Han zutik denbora askoan egon behar duela eta, hori esaten diet. Baina akaso abiatuko naiz, abiatuko naiz oraindik.

Zure lagunak zein dira, zure edade modutsukoak?

Nire edadekoa Aranburuko Antonio da, nire kintakoa. Hura ondo dabil oraindik, mezatara joaten da. Ni ere joango nintzateke, baina... Antonio ni baino hobeto dago hanketatik eta. Nik hankan daukat failo handia. Zer esango duzu? Bagabiltza oraindik eta...

Hura ere gerran ibilitakoa da. Batera



Santi Agorreta eta emazte Pilar Ormazabal, Koldo Sarasola apaizarekin, elkarrizketaren etenaldi batean

ibili al zineten edo?

Ez, hura Amaiurren eta horietan ibili zen.

Alkate ere egon zinen Gabirian.

Alkate, denbora askoan, bai. Paulo hil zen, eta gero ni jarri nintzen. Kamino hori [Altzibardik gorakoa] ere nik egin nuen. Hor ibiltzen da orain jendea! Ikaragarritzko zirkulazioa dago.

Zuen garaian ere lana izango zen udaletxean, ala?

Lana asko, eta dirurik ez. Ondo bizitzeko dirua jarri egin behar da. Gabirian ingreso gutxi dago. Industria gutxi, eta orain gutxiago. Orain ez dakit zer pasatzen ari den. Baina beharko dute berriz ere, e! Jarri ez dakit egingo den, baina gazte asko dago orain ere, eta haiek ondo biziko baldin badira lana egin beharko dute. Gure garaikoek urte asko pasatu ditugu.

Zer lan egin zenituzten herrian?

Herrian lan asko egiten genuen. Frontoia egin genuen. Obrak, eta sortzen zen hura.

Eskolan Gabirian ibili zinen?

Bai. Ni lehenbizi Calvo maisuarekin ibili nintzen, baina guri kasurik ez zigun egiten. Alejandro zuen izena hark [Alejandro Ortiz de Zarate]. Gero beste bat eduki genuen, eta gero etorri zen Juan Mujika, Albizturkoa. Harekin denbora askoan.

Zer moduzko maisua zen Juan Mujika?

Ona, ona zen hura. Niri esaten zidan "buru ona daukazu eta etorri zaitez". Gau eskoletara joaten nintzen, eta niri hark erakutsi zidan eskola. Egunez lana egin behar. Lehen gurasoek eskolari ez zioten ematen inportantziarik. Orain gehiago ematen zaio.

Eskola orduantxe egin berria izango zen, bada, zuek joaten zinetenean?

Bai. Hori aberats batek egindakoa da, amerikano batek, Balentzategik. Ondo gainera. Eskolak kategoriakoak dira horiek. Mutilena eta neskena beteta egon ziren. Gure garaian ume piloia ginen.

Zenbat urte arte ibili zinen eskolan?

Ahal nuen arte guztian ibili nintzen eskolan. Gero ere joaten nintzen, neure kasa. Zandategin, esaten nion aitari: "Eskola pixka bat beharrezkoa da, eta zuk utzi iazu joaten", eta uzten zidan.

Bestela, etxetik nora joateko joera zenuten gaztetan?

Urrutin, andreak Alegi aldera zuen joera; Zandategin, Santa Lutzira. Ni Santa Lutziko elizara asko nago joanda. Gure ama elizkoia zen.

Andre bila Urrutira bai, baina etxetik urrutira ez zinen joan, e?

Nire arreba bat, goiko Korostortzukoak eta lagunak ziren. Enpeinatu ziren, "hau mutil ona", eta... Nik Pako eta Ramon lagunak ninduten. Pilar ere langilea da, langile porrokatua.

Gerrarik berriz ez ezagutzea hobe, ezta?

Gerra ezagutu genuen, baina hobeto berriz ez pasatzea. Orain ere nazionalistek jai daukate. Lehendakaria eta bestea, biak daude bestelakoak.

Aukera izanez gero, zer egingo zenuke: gerrara joan, ala alde egin?

Ni, joan egingo nintzateke.

Aimar Maiz
(Urrutiko Santiren oroimenez. 2011n egindako elkarrizketa)

GUREA DENA DEFENDA DEZAGUN

Dagoeneko jakina edo entzuna izango duze Deikaztelutik Ezkio-Itsasora datorren goi tentsioko linearen berri. Honako linea honek 120km izango ditu luze 46-90 metro bitarteko altuera duten dorre izugarriekin. Dorre bakoitza 100m²-ko hormigoizko base baten gainean kokaturik joango da, dorre hori bere lekura jaso ahal izateko garabiak beste horrenbesteko zabalgunek bat beharrezkoa izango du. Garabiak dorrea jarri behar den lekura iristeko 6m zabaleko pista beharko du; beraz, kontuan izan terenoaren arabera dorretik dorrerako distantzia 90-500m bitartekoa bada, nolako triskantza eragingo lukeen gure paisaian.

Paisaian bakarrik ez, gure osasunean ere bai. Frogatua dago buruko minak, kantzerrak, leuzemia... kasu gehiago antzematen direla tentsio handiko dorreen gertutasunean bizi den jendearen inguruan. Dorre bakoitzean 18 kable igaroko dira 400.000 voltioekin. Europan bada lege bat gomendatzen duena herri-guneetatik 500m baino gertuago ezin dela pasa dioena, Gabiriako kasuan 150m baino gertuago pasako litzateke herri-gunetik eta hainbat baserrietatik 20m baino gutxiagotik. Autopista elektriko honek Deikaztelutik Ezkio-Itsasora 166 herri pasatzen ditu eta denetan 500m baino gertuagotik igaroko da.

Proiektu hau egin nahian dabilena Red Electrica Española enpresa pribatua da. Linea hau egiteko eman den arrazoi bakarra beharrezkoa dela esatea izan da edo Espainian ez dagoela nahikoa elektrizitate. Esan dutena aitzakia besterik ez da, kontuan izanik Espainiak sortzen duen elektrizitatearen %50 ere ez duela erabiltzen eta soberan duena Frantziari saltzen diola. Beraz, zertarako horrelako proiektu bat? Batzuen patrikak gizentzeko.

Ikusirik gure paisaian izugarritzko txikizioa eragingo duela, ikusirik gure osasunean izugarritzko kalteak sor ditzakeela, jakinik ez dela beharrezkoa, orduan zertarako utzi egiten?

Gure esku dago proiektu hau gelditzea, proiektua burutu nahian dabiltzanek ikusi behar dute ez gaudela ados eta ez dugula nahi. 2010ean Castejon-Gasteiz tentsio altuko linea atzera bota zuten milaka eta milaka jende proiektuaren aurka azaldu zelako. Ez gaitetzen gure lurraldea eta gure osasuna suntsitzen uzteko bezain inozoak izan. Denon artean geldi dezagun.

Gorka Maiz

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ



AMELIA JAUREGI

Emakume baserritarren ahotsa

Baztarrika baserriko Ameliak lan ugari eta ordain ezina egin du baserriko emakumearen egoera hobetzen, euren bizimodua plazaratzen eta eskubideak aldarrikatzen. Nekazaritzan nahiz artzaintzan egindako lan guztiagatik jaso du, orain dela ez asko, ARTZAI GAZTA elkartearen eskutik, Urrezko Kaikua saria, artzainen artean den aitortza gorena. Hori eta gehiago merezi duelako!

Gabiriako artzaina “jubilatuta berria”... irakurri dinat nonbait, baina erretiratu egin al haiz, ba? Lanetik ez, horratio?

Erretiratu ez behintzat. Aurre-jubilatu. Lanetik baserritarra ez dun erretiratzen, eta emakumea gutxiago; beraz, hementxe... jo ta ke, lanean buru-belarri.

Zergatik eman dinat hiri ARTZAI GAZTAK ematen duen Urrezko Kaikua?

Urtero izaten dun gorai patua edo aipamen berezia jasotzen duen norbait.

Hiru sailetan banatzen dun: bat, artzain kide bat, bere ibilbidea saritzen dena, beste bat, artzain gazta eta mundu hori guztia kanpora ateratzen duena, eta aurten, Elena Arzak sukaldariari eman zioten, eta hirugarren aipamena talde bat, eta aurten, Ordiziako Gazta kofradiari egokitu zaion. Niri urrezkoa eman zidaten eta beste biei zilarrezkoa.

Zer parte hartze izan huen ARTZAI GAZTAn? Eta zer dira EHNE, ELE, EBEL, Idiazabal jatorria.. Zer lotura zegoen euren artean?

ARTZAI GAZTako kide naun hasiera-hasieratik, sortzailletako bat naun eta lau urtez lehendakari izan nindunan. Eta Idiazabal jatorria, berriz, Idiazabal gaztaren izendapenaren barruan dauden artzainak eta gaztak, baita industrialak ere, kontrolatzen dituen erakundea, bai etiketak, bai kaseinak,... EHNE Euskal Herriko nekazarien elkarte, baserritarren sindikatu bat. ELE Euskal Herriko ardi latxaren elkarte, ardi latxa baita Idiazabal jatorriko gazta egiteko behar den ardi arraza. EBEL emakume baserritarren elkarte. Elkarte hau, EHNE sindikatutik sortu zunan, izan ere ikusten geninan izugarritzko gabezia zegoela, emakumeak ez zeukala beharrezko errekonozimenturik ez baserrian bertan eta ez beste inon, eta lan handia zegoela egiteko, emakumearen ahotsa bere lekuan jarri nahi izan geninan, emakumea suspertu eta bere arazoan jabe egin. Gaur egun tente dauden baserrietan emakumea dun zutabe eta gidari nagusia, eta gure nahia da



erabaki-guneetan emakumea egon dadila baserrian, lanean dauden bezalaxe. Dena dela, hasiera hartan, EBEL sortu zenean, alegia, gizarte segurantzian oso emakume gutxi kotizatzen zirenan, ez zeudenan langile kontsideratuta, eta hori azkena dun, bitzta osoa lanean eman eta inon ez agertzea langile bezala... eta hori ikusten ez den bitartean jai dinagu, nor bere etxetik hasi behar dun pixka bat kontzientziatzen... EBEL helburu horrekin sortutako elkarteak dun.

Urrezko kaiku honetaz aparte, beste saririk jaso al dun?

Bai, ELE-tik ere bai, 2010ean, artzainik aipagarrienari, txapela eman zidatenan. Nafarroan, Uharteko Arakilen, egurrezko kaikua jaso ninan, probintzia bakoitzeko gaztagile bati eman zioten, eta niri Gipuzkoako emakumeen ordezkari moduan eman zidatenan.

Gaztarekin ere sari dexente jaso dituzue, ezta? Azkena zein?

Bai, bai, ez ditun gutxi izan. Azkena? Mundu mailakoan hiru domina eman ziguten: bi urrezko eta brontzeko bat. Horretaz aparte, hemengo sariketa ugari ere ateratu dinagu, baita Katalunian ere, batez ere, gazta zaharrenekin, aurtun brontzea Seu d'Urgellen.

Artzaina afizioz ala kasualitatez?

Afizioa ofizio bihurtu ninan. Baserrian bizi izanda, beste zerbait heldu niezaiokenan, baina ni hasi nintzen, artzaintzan hasi nindunan, afizioz, beraz.

Eta Baztarrikan noiztik ardiak? Zeren behiak ere, nire akorduan behinik behin, izan zenituzten, ezta?

Atte zunan ardizalea. Dena dela, badakin, baserrietan denetik, ofizio guztietakoak, egoten zitun: idiak, itzain ibiltzen zunan gure aita; behiak, esne-behiak, eta ardiak beti, neure ezagueran, beti egon ditun ardiak, mendian, Altzanin, egoten zunan atte. Etxea erre zenean, ardi mordoxka bat kendu, atte mendira joan beharrik gabe, etxe inguruan ibil zedin, behi gehiago jarri zitun Baztarrikan, eta denboraldi batean esne-behiekin lan egin genin, ardi bakan batzuk besterik ez genuela. Gero ikuluan gaixotasun bat sartu zitzaigun, eta bi urte egon gintun ezer gabe, ez behi eta ez ardi. Horren ondoren, senarrak eta biok erosi genin artaldea, 50 erostera joan

eta 100 erosita etorri gintun, orduan arazoak: lekua txikia, eta zalantzak zer egin eta nola asmatu. Erabakia hartu genin ardi gehiagorekin lan egiteko, eta gure bideari ekin genion. Pixkanaka-pixkanaka artaldea hobetu, gazta egiten hasi... horrela hasi gintun.

Alabari erreleboa pasata, gustura?

Bai, zalantzarik gabe. Gaur baserria dagoen moduan egonda, nik uste dinat nahikoa ausardia izan zutela, eta ni oso harro, honek guztiak segimena izatearekin gustura.



Halere, orain ere hi eskuak bete lan, ezta?

Bai, orain sustituzioak egiten, Elik eta Asierrek zerbait daukatenean. Dena dela, bizitza honek hainbat fase edo aldi ditu, eta ni, egia esan, oso pozik nagon neure buruari irabazi diodalako; izan ere, ez dun batere erraza orain arte eduki dun ofizioa beste baten eskutan uztea, sasoi, gogo, gustukoa izanda, lagunartea —nahiz eta hau erabat ez utzi— gogorra dun horrekin guztiarekin moztea, eta nik lortu egin dinat, lortu dinat nik aldamentetik joatea, eta besteek bere bidea egin dezatela. Orain, berriz, beste lan batzuk dizkinat: bilobak, ama, jatorduak, eta tartean, beste eginkizun batzuk. Den-dena ez zagon uzterik, bestela heure burua ikusten dun ezertarako balioko ez balu bezala, nahiz eta etxeko lanak ere baloratu; baina, heure pertsonarako behar dun kanpoko lan hori, lagunarteko hori, eskoletatik egiten dituzten bisitetan, gidaritza-lanak ere betetzen naiten, adibidez.

Oraindik ere jarraitzen dun EBELen?

Bai, EBELen eta EHNE. EBELen ordezkari naun EHNE sindikatuan, eta Zuzendaritza-batzordean nagon.

Nola ikusten dun baserriko etorkizuna? Krisialdi honen eraginik ba al dun ala denok itzuli behar ote dinagu baserrira, baserriko bizimodura?

Zail samarra izango dun. Zoritzarrez, oso zaila, atzera bueltarik ez daukan gauza asko egin direlako. Krisi honek ez zion hainbeste erasan baserrietan, berez, ez dagoelako kontsumismoan hainbeste sartuta baserri bizi dena — kontuz! eta ez baserrian bizi dena — ez dun berdina. Baserri bizi dena oraindik ere, eta kalean bizi eta diru sarrera onak dauzkana ez ditun konparatzekoak, ez zeukaten zerikusirik. Baserriko bizimodua bizitzeko era bat dun, eta baserri horrek mugatzen din baserria behar bezala eraman nahi badin, eta horregatik baserri ez din hainbeste erasan krisi honek, eragina bai, noski, berak ekoiztu edo produzitzen duena merkeago eta prezioei eutsita, salmenta gutxiago... hori dena bai..., baina baserria bizitzeko era berezia dun eta biziraupenerako oinarria, jateko, behinik behin, ez da faltako baserrian. Oraindik baserriari eusten diona ez dun hain gaizki ibiliko.

Zergatik esan dun atzera biderik ez duten gauza asko egin direla?

Ba, "denok baserrira itzuli behar ote dugun" galdetu dun lehen eta hori orain bologo dabilen gai batekin lotuta zegoen, "hemen sortutakoa behar dugula", baina non sortu behar dinagu: industrialdeetan edo egin diren txikizko gune horietan? Baserri indioak bezala joan dun mendira, mendira, mendira... eta lana egiteko askoz ere leku txarragoak ditin gaur, horregatik betidanik izan dun "nekazari", neke batean bizi izan dun. Herri guztietan begiratu besterik ez zegoen, Gabirian bertan, ni artzain ibiltzen nintzen leku askotan etxe mordoa zegoen eginda, eta hori Gabirian, zorionez, ez denik hainbesterako izan, baina begiratu beste herri askotan, lurrik onenak non eta nola dauden, eta horrek atzera bueltarik ez zeukan, lana egiteko ez zegoen erraztasunik, eta gaur hemen behar dugun adina janari izateko kanpotik ekarri beharra nahita nahiez, hemen "bertakoekin" esaten duten hori ez dun erreala.

M. Angeles Bidegain

TXERRI HILTZAILEA

TXERRI HILTZEA - Ramon Bidegain

Ramonek ez zuen familiatik jaso txerri hiltzeko ohitura, bai ordea etxean ikusita. Izan ere, Urkiztegi baserriko Joxe Manuel Etxeberria joaten omen zen bere jaiotetxera urtean behin txerria hiltzera. Halaxe, ikusiz gustatu, eta ikastea pentsatu zuen; handik urte batzuetara Joxe Luis semeak egin zuen bezala. Horrela kontatu didate Ramon, Eusebi, Joxe Luis eta Arantxak, sukalde epelean jarrita, bakoitzak gogoratzen duena.

Edozeinek ez zekien txerri hiltzen, baina Gabirian bazen taldetxo bat: Agerreko Martin, Errotaberriko Estanix, aipatutako Joxe Manuel Urkiztegikoa, Ramon bera, ... Hala ere, gehien ibiltzen zena Martin zen. Hura motorra hartu eta Itsaso, Alegi eta Ormaiztegiko baserrietan ere ibiltzen omen zen herritik irtenda. Ramonek urtero hiltzen zuen txerria Sousen, eta baita gerora Elizalde baserrian ere. Inguruko baserrietan ere ibili zen, ondo gogoan ditu Zantagoitiko Leonak ordainetan ematen zizkion txorixo eta ardo zuria, eta baita Itzaitegin hiru mutil zaharrentzat bi txerri hil zituenekoak ere!

Negua izaten zen udaberrian hazten hasitako txerria hiltzeko garaia. Ahal izanez gero, bi jartzen zituzten, haiek ere, guk bezala, kuadrilan gehiago jaten dute eta! 100 edo 150 bat kilora iristean hiltzen zen eta bi egun irauten zuen "erritoak": lehenengoan txerria hil eta bigarrenean txikitu. Erremintak? Ramonentzat garrantzitsuena 18 pezeta ordaindutako kako bat. Mutur bat zorrotza zuen eta bestea borobildua, oraindik ondo gordeta daukate etxean. Kakoaren punta zorrotza okotzean sartu, beste biren artean mahaira igo eta, hauek eusten zioten bitartean, kakoaren beste aldean izterra katiatzen zuen Ramonek. Horrela, animalia gogotik garrasika ari zela, labana sartzen zion eztarrian, odola eman zezan. 5 bat minutuko kontua izaten zen eta bitartean norbaitek odola irabiatzen aritu behar izaten zuen gelditu gabe, odolbildurik sortu ez zedin. Ondoren, ukulutik atera eta kanpoan etzaten zuten garoz estali eta erretzeko. Ondo belzutakoan, teila kaskoarekin arraskatu eta urarekin ondo garbitzen zuten. Bular aldean erditik eginez tripak atera, bizkarrean ere goitik

beherainoko ebakia egin, eta hanketatik zintzilikatzen zuten hoztu zedin.

Eta hil ondoren zer? Hil ondoren txikitu, eta emakumeen ordua iristen zen. Haragia gatzetan mantendu, txorixoa, odolkiak eta biri-lukainkak egin, urdaiazpikoa lehortzen jarri, solomoa piper hautsarekin igurtzita utzi, ... Hasiera batean tripak ere garbitzen zituzten zirian babarrun alea jarrita, baina lan handia zen dirudienez, eta azkenerako hestea erosi egiten zuten. Biltzeko, berriz, zumea erabiltzen zuten. Oreganoa ere gehitu ohi zioten odolkiari, intoxicazioak ekiditeko oso egokia baitzen. Buztana ere edozein egoskarirekin ederra izaten zen eta azkazalak ere aprobetxatzen ziren: "Elizan erabiltzen zituzten kandelak itzaltzeko!" dio Joxe Luisek. Txerriak maiatza edo ekainera arte irauten zuen gatzetan eduki eta ondo kasu eginez gero. Baina ez zen dena etxe koentzat izaten, oso ohikoak ziren "txerri erregaloak". Hiltze lanetan lagundu zutenei beti ematen zitzaien odolkiak ordainetan; horra, agian, esaera zaharraren jatorria.

Badira 10 bat urte Elizalde baserrian txerri hiltzeko ohitura desagertzen ari da, eta orain jaten dugun solomo txikiak ere ez du batere zerikusirik garai batekoarekin, hala dio behintzat Ramonek. Baina gaur egun ere izango luke funtzioa txerriak. Elizalden badute atez atekoa bideragarria ez den herri txikiatarako proposamena: txerri pare bat itxitura batean, herritarrek botatzen duten janariari probetxua ateratzeko! Hori bai, gutxienez bi, haiek ere taldean gehiago jaten dute eta!

Eresti Oiarbide



GORUNTZ DANTZA TALDEA

Urte oparoa izan da 2012a Goruntz dantza taldearentzat. Alde batetik, urte hasieran talde berria hartu genuelako eta bestetik, irteera eta ekintza berriak ere izan direlako.

Dakizuen eran, inguruko auzo eta herrietan egiten ditu Goruntzek saio gehienak, baina eskualdetik haratago ere joaten gara tarteka; esaterako, Mutrikura heldu da Goruntz. Bi autobus bete ziren, dantzariekin eta hauen senide eta gurasoekin. Goizetik iluntzera arteko egun pasa izan zen. Kostako kale estuetan, adokina zapalduz, aldapa gora eta behera, ekainaren 17ak ekarri zuen eguzki azpian ibili ginen kalejiran eta dantzan, aurpegiak gorri-gorri jarri arte, beroaren beroaz.

2012an, ordea, izan da aipatzea merezi duen beste egun bat ere. Aspaldian ez bezala, egun batez dantza taldea osatzen dugun dantzari eta erakusleak egun-pasan joan baikin. (Oraingo honetan, gurasoak eta senideak etxean utzita, noski!)

Euskal Herri tropikal honetako eguraldia egokitu zitzaigun, egutegiari erreparatuta, urriaren 30ean edozein gauza gerta zitekeen, egia esan! Aterpea beharko genuela eta, herri proposak aztertzen aritu ostean, Altzora joatea erabaki genuen. Goizean goiz, bertako Erraldoiaren jaiotxera gerturatu ginen, hanka arrastoa ikusi, aztertu, konparatu... Esan behar da Goruntzeko haur askori "nahiko txikia" iruditu zitzaie erraldoiaren hanka arrastoa!

Goizean, taldeka banatu eta jolasari ekin genion, jolas berriak, ezberdinak... Txandaka jardun genuen denok, algaraka eta irribarrez. Atsedendia ere egin behar izan genuen hamaiketako egiteko! Indarberritu ondoren, berriz ere jolasean aritzeko tartea izan zen. Bakoitzak etxetik eramandakoa bazkaldu ondoren, kantuan, solasean, jolasean aritu ginen eta arratsaldean bestelako jolasei ekin zitzaien. Txingoan, tizarekin marrazkiak eginez... jardun genuen. Primeran pasa genuen! Itzulera gazi-gozoa izango zela pentsa dezake baten batek, egun pasa joanda etxera buelta, gogorra izaten baita ia beti! Oraingo honetan, ordea, gehiago izan zuen gozotik. Dantza taldeko haur batzuen amonak izan ere, bizkotxo handi eta goxoa prestatu baitzuen. Pentsa; 55 lagunen artean banatu zen! Zatitzen aritu zirenek izan zuten meritu! Guztiek estimatu zuten amona haren esku gozoa, eta une batez, guztion amona izan zen! Mila esker, amona!

Baina arestian esan bezala, irteera eta saio berezietz gain, nabarmentzekoa da, erakusle gazteen taldeak egin duen lana. Gaztetxoei dantzarako grina bultzatzen, dantzak erakusten eta gogo hori mantentzeko indarra jartzeaz gain, dantza berriak asmatzeko nahiz lehengoak moldatu eta euren gustuko dantzak egiteko ahalmena erakutsi dute. Indartsu datozen seinale. Bejondeiela eta segi dezatela horrela!

Testua: Eneritz Gorrotxategi
Argaziak: Leire Murua



Dagoeneko baditu 499 biztanle gure herriak, eta 500erako bidean da. Nabaria da azken urteetan Gabiriako biztanleriak izan duen hazkundera. 2013ko urte hasieran, esan bezala 499 biztanle zeuden erroldaturik gure herrian. Nahiz eta hazkunde naturala (jaiotakoen kopurua – hildakoen kopurua) negatiboa izan den, gure herriko biztanleriak goraka jarraitu du. Hau migrazio saldo positiboak eragina izan da. Herrira 21 etorri dira eta bederatzi joan dira. Datu hauek ikusirik, herrira etorri direnak ezagutzeko hauei MAKILARI aldizkarian lekutxo bat egitea pentsatu dugu, galdera labur batzuk eginez. Beraien etxeko epelean hartu gaituztenez, alde zuretik mila esker denei.

GABIRIAR BERRIAK II

Galdera hauek egin dizkiegu:

1-Zenbat zarete familian?

2-Non bizi zineten lehen?

3-Noiz etorri zineten Gabirira bizitzera?

4-Zergatik etorri zineten Gabiriara bizitzera?

5-Zer duzue gustuko herri honetan?

6-Zer ez zaizue gustatzen, edo zer sumatzen duzue faltan?

Azul eta Jon Ander

Agirre Eguzkitza edo “Simontxone” baserria.

1- Emaztea eta biok, eta txakurra.

2- Ni neu, lehenaldiz etorri aurretik Arrasaten. Ondoren 2001 inguruan etorri nintzen Gabiriara. Bi urtez egon nintzen hemen, eta Oñatira joan nintzen, eta ondoren berriro Gabiriara bueltatu nintzen. Han-hemenka beti ere Gabirian bizitzen jarri aurretik.

3- Berez Gabiriara 2001ean, baina erroldatu eta fundamentuz bizitzen 2008tik aurrera jarri gara.

4- Ba aukera ederra zen, zeren, baserria familiakoa da eta alokairua eskaini zidaten. Eta baita, bertakoa giroa eta lasaitasuna dela eta. Hau ez dago Donostiako Mirakontxako etxe batengatik aldatzerik.

5- Gustukoa, ia dena egia esateko. Lasaitasuna, nahiz eta azken urtetan

mugimendu gehiago nabaritzen den. Ingurua ere ezin hobea. Dena eskura daukazu, herriko eskola dago, haur eskola, medikua, ostaldea...

6- Gehien bat kotxea behar duzula. Baina ulergarria da Gabirian garraio publiko bideragarri bat jartzea ez dela erraza, zeren etxe eta baserriak oso barreiatuak daude herrian zehar. Eta azkenean bakoitza bere kotxean ibiltzen da. Emaztea Ordiziara euskaltegiara joaten zenean nik jaisten nuen eta ondoren autobusez etortzen zen. Zerbitzua egon badago. Baita, faltan bota, hasiera batean, martxan dagoen herri batzordeena. Horrelako herri txiki batean oso garrantzitsua da. Gertutasun bat bultzatzen du herritarren artean, eta aldi berean herrian sortzen diren proposamenak, galderak, eta herriaren martxa nola doan jakitea positiboa da. Azken finean dagoen herri partaidetza hori areagotzea eta herritarrek gehiago parte-hartzea. Bestela faltan bota gauza handirik ez.



Marian eta Jesus Mari.

Frontoi azpi 13

- 1-** Lau gara familian. Jesus Mari, Marian eta Aitor eta Josu semeak.
- 2-** Lehen Beasainen bizi ginen.
- 3-** Aurten bosgarren urtea Gabiriara bizitzera etorri ginela.
- 4-** Gehien bat lasaitasunaren bila etorri ginen Gabiriara. Eta bertan dauzkagun ingurune eta mendiengatik. Izan ere asko gustatzen zaigu mendian ibiltzea.

5- Gustukoen duguna lasaitasuna, paisaiak eta inguruko mendiak dira.

6- Gehien bat garraio bideak eta komunikazio falta. Esaterako autobusak Gabiriatik jaitsi eta igotzeko. Zeren ez baduzu kotxerik...



Maria Pilar, Julen eta Txomin

Isasti baserria

- 1-** Hiru gara familian, ama-semeak eta osaba . Julen Makazaga, Maria Pilar Lerma eta Txomin Irañeta
- 2-** Gabiriara etorri aurretik Legazpin bizi izan ginen
- 3-** Orain dela hiru urte inguru etorri ginen Gabiriara bizitzera.
- 4-** Ba, egia esateko, ez dagoelako toki hoberik bizitzeko.

5- Azken finen ia dena. Lasaitasuna, bizi kalitatea, lagun giroa eta dituen paisaiak batez ere.

6- Faltan bota edo arazo handiena behintzat beti kotxea hartu beharra dagoela, eta kotxerik ez duenarentzat hori arazo handia da.



Inma eta Xabier

Frontoi azpi 7

- 1-** Oraintxe bertan Xabier eta Inma bizi gara etxean. Bikotea bizi gara, seme-alabekin etorri ginen baina orain bakoitza bere etxetara joan dira.
- 2-** Hona etorri bitartean Zumarragan
- 3-** Orain dela 5 urte, jada 6 egitera. Etxe hauek egin zituztenean.
- 4-** Kasualitate bat izan zen. Bizi ginen etxean arazotxo batzuk egon ziren, komunitate barruan, eta etxez aldatzea pentsatu genuen. Momentu hartan etxe

hauek egitera zihoazen, eta bertara etorri ginen.

5- Topikoa, hau da, lasaitasuna eta ingurunea. Ni oso kalekumea naiz eta Zumarragan lan egin eta gero, urbanoaren kuota bete ondoren erretiroa gustura hartzen da.

6- Niri pertsonalki gustatzen ez zaidana, aske dabilzan txakurrak. Orokorrean etxean zer edo zer falta zaitzunean dendatxoren bat edukitzea, baina moldatzen gara. Hobeto planifikatuta gauzak konpontzen dira.



ERREZETA

Txipiroi entsalada epela, baratxuri eta urdaiazpiko frijituekin eta tomate deshidratatuarekin

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Eskarola
Letxuga
Garbitutako 400gr txipiroi
4 baratxuri fresko
Urdaiazpiko iberikoa 100gr
Tipula erdi bat
Gatza
Modena-ko krema
Tomate deshidratatuak
Oliba olio 100gr



PRESTAKETA:

- 1.- Letxuga garbitu eta ongi lehortu, gorde gerorako.
- 2.- Txipiroiak aroetan moztu edo osorik utzi, norbere gustuaren arabera eta gatz pixka bat bota. Ondoren, zartagin batean olio pixka batekin txipiroiak salteatu eta gorde gerorako.
- 3.- Zartagin berdinean Brumoise* erara moztutako tipula jarri eta utzi zartaginaren hondoa desglasa* dadin. Laminetan ebakitako baratxuri freskoak gehitu eta dantzan hasten diren momentuan, tako txikietan moztutako urdaiazpikoa bota zartaginera eta 2 minutu utzi sutan.
- 4.- Azkenik, 2 minutu horiek pasatzean beste bi osagaiak gehitu: txipiroiak eta tomate deshidratatuak.

Brumoise* Karratutxoetan moztua
desglasa* Txipiroiek zartaginean utzitako zapore eta kolore hori zerbaitek (kasu honetan tipulak) xurgatzeari datza.

AURKEZPENA:

Eskarola eta letxuga plateraren bueltan jarri, erdian hutsune bat utziz txipiroientzat. Amaitzeko modena bota bakoitzak nahi duen adina.

AHOLKU DIETETIKOAK:

Elikagai gordinak ditugenez plater honetan, gomendatzen dut gauean ez jatea, edo lotara joan baino dezente lehenago jatea. Hala eta guztiz ere, gomendagarriagoa iruditzen zait bazkaltzeko jartzea elikagai gordinen digestioa ez delako erraza. Elikagai hau oso konpletoa dela iruditzen zait, barazkiak edukitzeaz gain arraia eta haragi pixka bat ere badaukagulako, beraz, gose gehiegi ez baldin badaukazue behintzat jogurt batekin edo gazta zati batekin nahikoa dela esango nuke. Hala eta guztiz ere, beste zerbaitek jan nahiko balitz bigarren plater bezala, lekale platerkada bat arrozarekin aukeraketa egokia izango litzateke, adibidez, garbantzuak arrozarekin.

Candido Ramirez
Ostatu jatetxea

Leire Murua

2012KO BERRIAK LABUR

Gabiria bolariak Lasartén

URTARRILA

1. Herrian 488 biztanle zeuden erroldatuta, iaz egun berean baino 5 gutxiago. Gizonezkoak 267, emakumezkoak 221. Duela hamar urte baino 28 familia gehiago daude. 2011n emigrazioak eragin zuen populazio jaitsiera: kanpora 17 joan ziren, eta etorri 11. Jaiotzak (3) heriotzak (2) baino gehiago.

1. Udalak 481.470 euroko aurrekontuarekin hasi zuen urtea, aurreko ekitaldian baino %3,89 gutxiago.

4. Lau pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak goizaldean, elkarte batean lapurreta egin ondoren. 270 euro eta bost bideojoko eraman zituzten.

7. Lizardi baserriko Juana Alustiza Telleria hil zen, 97 urterekin.

16. Zirkulazioko istripuan pertsona bat zauritu da, Gi-2632 errepidean.

21. Euskal Herriko Mus Txapelketako herriko kanporaketa Eresti Oiarbide-Mikel Asurabarrenak irabazi zuten; bigarren Euxebio Igartzabal-Aratz Igartzabal. Hamabi bikote partaide.

22. Gipuzkoako Taldekako Bola Txapelketaren bigarren eta azken jardunaldia Alkainburu bolatokia jokatu zen. Txapelketa Segurako Txoritegi irabazi zuen, bietan nagusituta. Herriatik bi taldek parte hartu zuten: Osinalde A-k (9.) eta Osinalde B-k (10.).

22. Haritz arbola bat landatu zuten, plazan, ziklogenesi leherkorrek 2010eko otsailaren 27tik 28rako gauean bota zuenaren orde.

26. Elurra egin zuen, 400 metrora arte.

29. Elurra egin zuen. Herrigunea zuritu zuen, 2-3 zentimetroko geruzatxo.

4. Santa Ageda bezperako kantu-eskean Osinalde elkarteko taldea ibili zen. Balentzategi eskolakoak ez ziren irten, eguraldi elurtsuagatik.

7-8. Elurra egin zuen.

8. Adifek jakinarazi zuen bukatu zituela Brinkola-Tolosa bitartean trenbidea berritzeko lanak. Balastoa eta errailak aldatu zituzten.

9. Altzibar baserrian jaiotako Jose Atin Altolagirre hil zen, Donostian, 102 urterekin.

9. Sektore publikoko langileek lanuztea egin zuten, murrizketen aurka.

11. Goierriko 24. Bola Txapelketa Gabirian hasi zen. Egunean German Gereñu legazpiarra irabazle.

13. Lapurretak egin zituzten enpresa eta jatetxe batan.

13. Manuel Lasarte bertsolariaren hileta egunean, honakoa esan zuen Iñaki Muruak, harekin lehen aldiz noiz topo egin zuen gogoratzuz: "Gabirian bertso jaialdi batean

OTSAILA

1. Ostatuaren ustiapenerako lehiaketara bi hautagai aurkeztu ziren.

2. Elurra egin zuen. 15 bat zentimetro.

3. Ostatuan 'pintxo-poteak' ekimena egin zuten, lehenbiziko aldiz.



Gabiria bolariak Lasartén



Haritz arbola landatzen

nengoen gai-jartzaile –hamasei urte nituen-, eta gogoratzten naiz puntu bat nola jarri nion: 'Igandean parranda, astelehenean jota'. Eta erantzun zidan: 'Zergatik zabiltz hola, lagun baten kontra?'. Tartekoa ez naiz oroitzen, eta honela bukatu zuen: 'Kontuz ibili zaitetz, sasoiaren nago-ta'. Ironia berezia zeukan, eta bere ahots grabe horrekin asko janzten zuen esaten zuen dena".

15. Argazki kamera digitalak erabiltzeko ikastaroa hasi zuten hamar pertsonak, martxoaren 28ra arte, astean behin ordu eta erdi.

15. Euskara ikastaroa hasi zen, lehen aldiz. Zazpi ikasle, Nerea Iztueta irakaslearekin, ekainaren 22ra arte, denera 51 ordu.

17. AHTaren Ezkio-Itsaso zatian lehen harria jarri zuten, eta Jaurilaritzaren Garraio sailburu Iñaki Arriolak esan zuten Nafarroako Korridorearen lotura geltoki horretara egingo dutela. Beraz, oso litekeena da abiadura handiko trenaren bidea Gabiriatik pasatu behar izatea.

18. Oier Oiarbidek ETBleko Mihiluze berezian parte hartu zuen, lehen ibilitakoena. Finalera iritsi zen.

22. Balentzategi herri eskolak webgune berria hasi zuen: <http://www.gabiria.eskolatxikiak.org>

24. Endika Igartzabalek XI. Abra bertso saria irabazi zuen, Algortan (Bizkaia). Bere lehenengo txapela zen.

25. Udalak 9.827,25 euro itzuli zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari, 2011ko UFFF Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren defizita ordaintzeko lau zatitatik aurrenekoa. 2012ko UFFFren lehen kuota ere kobratu zuen; urte osoan denera 325.045 euro emango zizkion aldundiak.

25. Bi musulari bikotek Euskal Herriko Mus Txapelketaren Gipuzkoako finalean jokatu zuten, Seguran. Ez ziren final handirako sailkatu.

29. Amelia Jauregik parte hartutako 'Gea' dokumentala aurkeztu zuten, Ordizian.

MARTXOA

1. Herrian hutsik dauden etxebizitzak guztizkoaren %35 baino gehiago zirela agertu zen prentsan. Gipuzkoan lehen hamar herrien artean kokatzen zen Gabiria. Bestetik, etxebizitzaren bataz besteko adina Gipuzkoan bigarren altuena zen, Olaberrikoen atzetik.

3. Bertsomovieda lehiaketarako bideo grabaketa egin zuten, Zumarragako Arcelor Mittalen, Burgosko Villasana de Mena eta Hornes herrietan, eta Barakaldoko Ilean eta Burger Kingen.

4. Roland Holke eta Aintzane Goñi donostiarrek irabazi zuten XIV. Rallyesprinta. 54 auto irten ziren, eta 41ek bukatu zuten. Herriarren artean, Maikel Iriartek 7. egin zuten (junior onena), eta Xabat Goikoetxeak 32.

4. Elizako Batzordeak zuzendaritza taldea berritzeko deia egin zuen, zortzi juntakideetatik batzuk aldatzeko. Hiru hautagai izenda zitzakeen etxe bakoitzak.

7. Taberna batean lapurreta egin zuten, zortzigarren aldiz. Aste hartan zehar, baserri batean bi aldiz sartu ziren lapurrak.

10. Maria Lourdes Aranburu emaginak Urretxu-Zumarragako Xera berdintasun saria jaso zuen. Aita gabiriarra zuen.

13. Ostua kudeatu zuen Aloña Bosquek eta bere taldeak azkeneko eguna egin zuen zerbitzua ematen. Ordezkoa aukeratuta zuen udalak, baina azken unean huts egin zuen, eta bigarren hautagaiak ez zuten hartu nahi izan. Hutsune aldian, eskola-umeek Osinalde elkartearen bazkaldu zuten, janaria Korta jatetxetik eramanda.

15. Eskola-umeak Zubietara joan ziren, Realaren entrenamendua ikustera. Hurrengo asteko partidarako sarrerak oparitu zizkieten.

16. Idiazabalgo Axari bertso sariketan Maddi Ane Txoperena hendaia eta Peio Ormazabal arrigorriarra sailkatu ziren Osinalde sariketarako.

16. Martxoan Bertsoko laugarren kanporaketa Gabiri-2 taldeak (Gorka Maiz, Endika Igartzabal, Mikel Asurabarrena) irabazi zuen. Saillkapenaren buru sartuko ziren finalera, 15 talderen artean. Gabiri-1ek (Jokin Murua, Oier Oiarbide, Aratz Igartzabal) seigarren egin zuen, nahiz eta Ezkio-Itsasoko kanporaketan bigarren egin.

17. Nafarroaren 1512ko konkistari buruz hitzaldia egin zuten Zuhaitz Akizu itsasoarrak.

17. Osinalde elkarteak 34. Mus txapelketa Periko Agirre eta Juan Zabaleta aztiriarekin irabazi zuten. 16 bikotek parte hartu zuten. Bigarren Manolo Redondo-Agustin Asurabarrena; 3. Mila eta Isaac; 4. Josetxo Sagarna-Aran-txa Bidegain.

18. Lau baserriko nekazariak omendu zituzten Ordizian, azokaren 500. Urteurrenean: Juanita Lazkano eta Jose Ramon Aramendi (Noare-Etxeberri), Anttoni Murgiondo eta Migel Agirre (Bekoetxe), Maria Etxezarreta eta Tomas Maiora (Agerberri), eta Miren Agirrezabala eta Juan Eloseggi (Oñatibi Txiki).

21. Eskola-umeak Real-Levante Ligako futbol partida ikusten izan ziren, Donostiako Anoeta estadioan, bi solairuko autobuskada. Aurretik haur batzuk zelaira irten dira, jokalariek argazkia ateratzeko. Realak 1 eta 3 galdu zuen.

23. Gabiri-2 taldeak bigarren egin zuen Martxoan Bertsoko finalean, Urretxun, Lasatarak taldearengandik 0,9 puntura. Hirugarren egin zuen Bektore Ococha taldean Maialen Akizuk kantatu zuen.

24. Aztiriko bertso sariketa jokatu zuten Aitor Salegi (Zestoa), Gorka Maiz (Gabiria), Asier Azpiroz (Zubieta, Gi), Nekane Zinkunegi (Errezil), Josu Oiarzabal (Azpeitia) eta Iñar Mendigurenek (Gasteiz). Gai-jartzaile, Jokin Matxinandiarrena; trikitalari, Miren Deba eta Ander Ibaguren. 80 bat lagun Aztiri-Bat elkartearen afaltzen. Nekane Zinkunegi eta Josu Oiarzabal sailkatu ziren Osinalderako, epaileen puntuz. Entzuleen gustukoena Gorka Maiz izan zen, eta hark jaso zuen Aztiri Saria.

24. Zuhaitz Eguna ospatu zuten, bigarren urtez. Hondakindegia zaharrean eta frontoi azpiko pasealekuan zuhaitz batzuk landatu zituzten.



25. Goruntzek Zaldibiako Dantzari Txiki egunean dantza egin zuten.

28. Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri zuen Urkiolatik Madariagara auzo bidea berregingo zuela. Gi-632 autobidea egin zenean, Urkiola-Madariaga gurutze-bidea etenda gelditu zen Gaztelu parean, eta lur sail batzuk sarbiderik gabe geratu ziren.

29. Greba orokorra egin zen, sindikatu guztiek deituta, Espainiako Gobernuak onartutako lan erreformaren aurka. Jarraipena, erabatekoa.

30. Makilari herri aldizkariaren 23. zenbakia inprimategitik iritsi zen.

31. Julen Murua kadeteen 3. Mailako Gipuzkoako Uda-berri Txapelketan txapeldunorde izan zen, I. Zabala lagun zuela. Finala 22 eta 20 galdu zuten Erretereriako aurka, Erretererian bertan.

31. Ordiziako Argi-Berri sariketatik Amaia Iturriotz urretxuarra eta Imanol Urija algortarra sailkatu ziren Osinaldera. Entzuleen bertsolari gustukoena Endika Igartzabal izan zen, eta hark jaso zuen Txikia saria.

APIRILA

1. Dantzari Txiki eguna ospatu zen Ormaiztegin, hango udalak eta Goruntz taldeak antolatuta. Aurtzaka (Beasain), Axari (Idiazabal), Ezkide (Mutriku), Jakintza (Ordizia), Mollarri (Zarautz), Oin-Arin (Lazkao) eta Goruntz izan ziren.

2. Udaltzatik Ostatuaren kudeatzailea izendatu zuten.

8. Aberri Eguna. 1936ko gerran ibilitako herritarrei omenaldia egin zitzaion. Bizirik zeuden bi gudarik (Antonio Igartzabal bertan zen, eta Santi Agorretaren izenean haren alaba) jaso zuten herritarren omenaldia, burkide guztien izenean, eliz atarian. Ondoren, Ardantza gainean oroitarria desestali zuten Ibon Elgarresta alkateak eta Antonio Igartzabalek, bakeari gorazarre egiten diona.

9. Putreek moxal jaio berri bat xaxatu zuten, Bidaurreta buruko zelaian. Bizpahiru egunekoak zen moxala, eta

behor talde batean zegoen. Putre sail bat inguratutakoan behorrek uxatu, eta moxala bakarrik geratu zen.

12. EHU defenditutako tesi baten arabera, Euskal Herrian patata ereiten lehenengoetariko herria Gabiria izan zen, 1770 aldera, Irun-Hondarribian lehen aldiz erein eta sei urtera. Gaztelu baserriko uzta aipatzen dute agiriak.

13. Ostatua berriz ireki zuten. Arduradun berriak Candido sukaldari kubatarra, eta Marta, Cristina eta Juanlu zumarragarrik dira.

14. Bertsolari gazteen 41. Osinalde Sariketa Amaia Iturriotz urretxuarrak (19 urte) irabazi zuen. Epaielen eta entzuleen epaiak bat etorri ziren; bigarrenaren saria Peio Ormazabal arrigorriagarrik jaso zuen, eta bertsorik onenarena Josu Oiartzabal azpeitiarrak. Maddi Ane Txopere-na hendarra, Nekane Zinkunegi errezildarra eta Imanol Urija algortarra ziren beste bertsolariak. Jokin Murua zen aurkezle. 115 lagun afaltzen, eta saioa entzuten 200 bat.

15. Elurra egin zuen, 800 metro ingurura arte.

15. Bertso Road Movie ikus-entzunezkoak irabazi zuten Bertsomovieda lehiaketan Interneteko erabiltzaileen saria, boto gehien jasota: 523 (bigarrenak baino 180 boto gehiago). Hamabost lagunentzat sagardotegian otordua zen sari hori. Biharamunean, epaimahaiak ebatzi zuen gabiriarren dokumentalak eta Urpeko bertsoak lanak lehen saria erdibana jasoko zuela, 450na euro. Saria apirilaren 20an jaso zuten Jokin Muruak eta Alex Areizagak, Beasaingo Igartzaba jauregian.

16. Gabiriako Udalak webgune ofiziala aldatu zuen, 2005etik zuten itxura eta edukia aldatuta.

17. Sukaldaritza tailerra egin zen, Erbie elkartearen, Uda-berri Kulturala egitarauan.

17. Errenta aitorpenaren kanpaina hasi zen. Iaz Gabirian 265 aitorpen egin ziren, bostetik bat bakarrik (55) euskaraz.

20. Jexux Artolak argazki emanaldia egin zuen, herriko irudiekin.

21. Arabar Errioxako upategietara egunpasa egin zuten, Osinalde elkartetik. Autobuskada joan zen.

21. Bertso, kantu eta dantza ikuskizuna egin zuten eskolako umeek, antzokian.

22. Txindata musika eskolak kontzertua egin zuen, antzokian.

28. Balentzategi herri eskolako haurrek antzerkia egin zuten.

28. Patinatze ikastaroa bukatu zen.

MAIATZA

5. 1936ko gerra ezagutu zutenekin kafe-tertulia egin zen, Erbie elkartearen. Nikolas Alustiza, Antonio Igartzabal, Ramon Bidegain, Maria Jesus Garcia... aritu ziren azalpenak ematen. 50 bat lagun izan ziren, entzuten eta galderak egiten. Mota horretako lehenengo ekitaldia zen herrian.

5. Balentzategi eskolako 45 bat lagun Kalbariota minorra igo ziren, 25 urte, 25 tontor ekimenean, Gipuzkoako Eskola Txikien festak aurten 25 urte beteko dituela eta. Arratsaldean, Goierriko Eskola Txikien festan parte hartu zuten, Itsasondon.

6. Goruntzek Ezkion dantza egin zuen, San Migel jailetan. Arratsaldean, erromeria Kaitan eta Euzkitza trikitaleriek alaitu zuten.

6. Auto zaharren erakusketa egin zen. 70 bat bildumazale eta zaletu izan ziren.

7. Zirkulazioko istripua gertatu zen Gi-2632 errepidean, Alegiako bidegurutzean. Ibilgailu batek beste bati atzetik jo, eta ilarak sortu ziren.

10. Mikel Aizpuru historialariak 1936ko gerrari buruz hitzaldia egin zuen, Galdakaon.

11. Frantziak Ander Geresta Azurmendi (Gabiria, 1978) estraditatu zuen Espainiara, Parisko auzitegiak ezarritako 12 urteko zigorra bete ondoren. Bordelen atxilotu zuten



Dantzari Txiki eguna, Ormaiztegin



Peio Ormazabal eta Amaia Iturriotz, Osinalde bertso sarian

Frantziako Poliziak, 2000ko maiatzaren 26an, jendar-meekin tiroketa bat izan ondoren. Frantziara 1998an ihes egin aurretik, ustez lau kale erasotan parte hartzeagatik Espainiak erreklamatu zuen.

12. Pasiotarren Gabiriako ikastetxean ibilitako ikasle ohiek ospakizuna egin zuten, 1911ko irailean eskolak ematen hasi zirenetik mendeurrena bete zelako ikasturte hartan. Berrehun bat lagun elkartu ziren festan, komentuan, Andre Mari elizan eta Korta jatetxean.

12. Baztarrika gaztandegian ate irekien jardunaldia egin zuten, herritarrei eta bezeroei instalazioak erakusteko.

12. Poxpolo eta Konpainia pailazoen Martxa ikuskizuna, antzokian.

13. Goruntzek Beasaingo Dantzari Txiki egunean dantza egin zuten.

14. Sasieta Mankomunitateko arduradunek, lehendakaria buru zela, bilera egin zuten Gabiriako udal ordezkariekin, zabor bilketaren arloan egingo dituzten aldaketak azaltzeko.

15. Baserritarrek San Isidro festa ospatu zuten, meza eta bazkariarekin.

15. Gipuzkoako Urakek ur hornidura moztu zuen, goizean, sarean hobekuntzak egiteko.

15. Jabier Muguruza musikari eta idazle irundarra eskolan izan zen, idazle modura ikasleekin solasean aritzeko.

17. Ardo dastatzea eta afaria izan ziren, Osinalde elkartean.

19. Gipuzkoako Bola Txapelketa Alkainburu bolatokian jokatu zen. Herrialdeko lehiaketa gorena herrian jokatu zen lehenbiziko aldia zen. Antonio Goenaga altzatarrak irabazi zuen, Andoni Berasategi idiazabaldarrarekin buruz burukoa jokatu. Aurrez sailkatutako 26 bolarietatik Iñaki Maiz zen herritar bakarra; 13. egin zuen. Bazkaria Osinalde elkartean egin zuten, 42 lagunek.

20. Jubilatuen eguna ospatu zen. Bazkaritan 61 lagun ziren, Ostatuan. Urkiolako Milagros Txintxurreta eta Izar Erdiko Segundo Zumalakarregi omendu zituzten.

22. Maialen Akizu Bidegainek Euskaltzaindiaren Azkue literatura sariketan bi lehen sari jaso ditu: prosan Ez dago musik idatziarekin, eta poesian Idazten hasi da lanarekin.

23. Luizia etorri zen Gi-3381 errepidean, Zantagoitiko bidegurutzea baino goraxeago.

23. Emakume baserritarrak omendu zituen Ordiziako Kimetz elkarteak, azokan, tartean Maria Etxezarreta (Agerberri), Antonia Murgiondo (Bekoetxe), Miren Agirrezabala (Oñatibi Txiki) eta Juanita Lazkano (Noare-Etxeberri) gabiriarrak. Bien bitartean, Gaur 8 azokan dokumentala estreinatuta zuten; Anttoni Murgiondo zen bost protagonistetako bat.

27. Deikaztelu-Itsaso goi tentsioko linearen proiektuaren aurka mendi martxa egin zen, Ezkio-Itsasotik Mutiloara. Beste adar bat Zegamatik abiatu zen. Denera 200 bat lagun izan ziren.

27. Jaunartzea egin zuten sei neska-mutikok.

29. Eskola Txikietako guraso elkarten koordinakundeko idazkari Iratzi Aldazabal gabiriarrak eta Iñaki Alcalde larrauldar zuzendariak Eskola bizia, herri bizia dokumentala aurkeztu zuten, Donostian. Ekainaren lehenean izan zen estreinaldia, Tolosako Leidorren.

31. Aunditegi Errotan jaiotako Jesus Arruebarrena Leikuona hil zen, 75 urterekin, Legazpin.

EKAINA

1. Iñaki Mariñelarenaren pintura-erakusketa jarri zuten Ostatuan.

2. Los Zopilotes Txirriaos eta Egurra ta Kitto taldeek kontzertua egin zuten, Osinalde elkartean.

3. Balentzategi eskolakoek Gipuzkoako Eskola Txikien 25. festan parte hartu zuten, Larraulen.

4. ETBleko Mihiluze programan aste berezia hasi zen, 1.000 saiorengatik. Lehiakide onenak eraman zituzten, tartean Oier Oiarbide eta Jokin Murua (4an), eta Nerea Iztueta eta Ainara atandarra (5ean). Lehengusuek 20 programa irauin zuten bere garaian, Nereak eta Ainarak 27, eta haiena zen oraindik orain marka.

8. Cespa Conten enpresaren Lurpe hondakindegitik isuria izan zen Eztanda errekarara. Ur zikinaren hodi bat askatu, errekarara isuri eta kolore gorritaz kutsatu zuten.

9. Euskadiko amateur mailako txirridulari txapelketa Atagoititik igaro zen, bi aldiz. Urretxun hasi eta Santa Barbara gainean bukatu zen (110 km).

11. Agerberri baserriko Maria Uria Amezti hil zen, 83 urterekin.

17. Goruntzek Mutrikuko Euskal Jaian dantza egin zuten, aurreneko aldiz.

19. Azkoitiar jatorriko Joakin Oteiza Azpitarte 'Kalparra' hil zen.

21. Goierri Gastronomika produktu turistiko-gastronomikoen kluba sortu zuten, eta kide bihurtu ziren Korta jatetxea, Baztarrika gaztandegia, Bekoerrotan aterpetxea, edo gabiriarren Bengoetxe txakolina edota Ondarre nekazalturismoa.

22. Balentzategi herri eskolan ikasturtea bukatu zuten 48 neska-mutikok. 13 urtez irakasle izan zen Maria Eugenia Iturberi omenalditxoan egin zioten. Ostatu aurrean bazkaldu zuten denek.

23. San Joan sua egin zen. "Goi tentsioko linearen proiektua" idatzitako kartulina bota zuten, erretzeko.

24. San Joan eguneko lore bedeinkapena egin zen Aztiriko Santa Marina elizan.

25. Udaleku irekiak hasi ziren herrian, 33 haurrekin.

26. Udalak Gabiri Agiri udal informazio buletinaren aurreneko zenbakia argitaratu zuten.



1936ko gerrari buruzko solasaldia



Eskolako haurrak eta irakasleak ikasturterko azkeneko egunean bazkalzen

Etxeaundiko Juanita Iñurrit

27. Bero sapa handia egin zuen: sargoria, haize hego beroa eta astuna. 36 gradu hartu ziren.

29. San Pedro festa-eguna ospatu zuten Santa Luzia auzoan.

UZTAILA

1. Goruntzek Mutiloan dantza egin zuen.

4. Deikaztelu-Itsaso goi tentsioko argindar linearen proiektuarekin jarraitzeko asmoa berretsi zuen REE Red Eléctrica de España enpresak.

7. Herri bueltako mugarririk ikusteko aurreneko txangoa egin zen, Atagoititik Aztiriara. Aztirian, Gabiria-Legazpi-Mutiloa arteko mugarririk kokatu zuten, falta baitzen.

7. Legazpiko Olari motozale elkarteak Aztirian egin zuen urteko juntadizoa, 55 bat zaleturekin.

11. Herriko bake epaile Nikolas Igartzabal eta ordeko Iñigo Izagirre izendatu zituzten berriz, udalak proposatu eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak berretsita.

11. Oñatibi Txiki baserriko Miren Agirrezabala atzera Ordiziako azokara joaten hasi zen, zeukaten sanjoan sagarra saldu bitartean.

12. Erbetatxiki baserrian (Alegia) jaiotako Frantzisko Jabier Enatarriaga Lasa hil zen, 62 urterekin, Azkoitian.

12. Kirol anitzen asteleheneroko saioak bukatutzat jo zituen Guraso Elkarrekin.

13-15 eta 18. Aztirian Santa Marina jaiak ospatu zituzten. 14an, juniorren txirrindulari lasterketa Eriko Mujika itsasondoarrak irabazi zuen, eta bigarren Alex Aranburu Deba ezkiotar-aztiarra. 15ean, Etxeaundi baserriko Juanita Iñurritegi omendu zuten auzotarrek, 91 urtekoa. Mendi lasterketan Ruben Lantz irabazle, Nerea Amilibia nesketan.

18. Sasipilotari txapelketaren 5. ekitaldia hasi zen, 28 pilotarirekin, binaka.

20tik 22ra. Alegian Madalena jaiak ospatu zituzten.

22. Josetxo Atinek 16. bukatu zuen Euskal Herriko bakarkako IV. Segala Liga, hiru jardunaldikoa, Zaldibian.

26. Herriko bertsolariek eta trikitilariek Lazkaon trikiti-bertso poteoa girotu zuten.

28. Koldo Murua txapeldunorde izan zen ehiza zakur- rren Euskadiko San Huberto lehiaketan, Kurdo setter ingelesarekin, Burgosko Ballueranesen. Espainiako txapelketarako sailkatu zen.

ABUZTUA

6. Medikuko kontsulta itxi egin zuten, oporrerengatik, abuztuaren 31ra arte.

10. San Lorenzo eguna ospatu zuten Ugarana Goikoa auzoan. Musean (33 bikote) Jose Astarbe-Inazio Mendizabal azkoitiarrak irabazle, tanto baten aldegatik Txomin Bidegain-Jose Luis Bidegain gabiriarrak gairiduta. Auzo afarian Noare-Etxeberriko Joxe Ramon Aramendi omendu zuten.

10. Udako bero handiena egin zuen: Arriarango urtegiaren 39,3 gradu hartu ziren, Zumarragako Urzabaleta estazioan 39tik gora.

13tik 17ra. Andre Mari jaiak ospatu ziren. Sasipilotariko finala (13an) Jon Ander Larrañaga-Eñaut Asurabarrrena bikoteak irabazi zuen, Iker Etxezarreta-Beriat Maizi 22-18 irabazita. Patata-tortilla onena (14an) Endika Igarzabal-Eñaut Asurabarrrenak egin zuen, zortzi bikoteraren artean. Txirrindulari igoera (15ean) Jokin Matxinandarena semeak irabazi zuen (12:08), 57 partaideren artean. Istripu larria gertatu zen, eroriko batean. Txistor lehiaketa (16an) Urkiola Joseba Arratibelen Ametsa harategiak irabazi zuen. Goi tentsioko linearen aurkako bilkura egin zuten 150 bat lagunek (16an).

20. Zirkulazioko istripua izan zen, Gi-3381 errepideko (Alegia-Gabiria) lehen kilometro puntuan.

31. Marian Bidegainek Lazkaoko Maizpide euskaltegiaren zuzendari kargua utzi zuen, 15 urte arduradun nagusi izan eta sorreratik (1988) zuzendaritzan aritu ondoren.

IRAILA

2. Goruntzek Zarauzko Dantzari Txiki egunean dantza egin zuen.

4. Jesus Mari Deba laugarren egin zuen Goierriko odolki lehiaketan, Ordizian.

5. Mikel Aizpuru historialariak Norteko ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca azterlana aurkeztu zuen, Gasteizen, Trenaren Historiaren VI. Kongresuan.

5. Karmele Muruak Seguran egiten duen Ondarre gazta Ordiziako lehiaketako finalista izan zen.

6. Urrutiko Santiago Agorreta Basategi hil zen, 93 urterekin. Alkate izan zen 1960-67 eta 1983-84 tartean.

8-9. Koldo Muruak Espainiako ehiza zakur lehiaketan parte hartu zuen, Sabiñanigon, Kurdo setter ingelesarekin. Hamar urteko aberearentzat azkeneko lehiaketa izan zen; garaipen asko lortu zuen.

9. Maialen Akizu Bidegainek bi sari jaso zituen Ordizian, Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketan.

10. Balentzategi herri eskolan ikasturtea hasi zuten 48 ikasle eta 11 irakasle.

12. Udal eraikinen eta lokalen garbiketa-lana Abanto Limpiezas SL enpresari eman zion udalak, lau urteko kontratuarekin eta beste bi luzagarri. Urteko 29.868,25 euro ordainduko dio, BEZa barne.

16. Eztanda errekan isuri kutsagarria izan zen, Palankako Lurpe hondakindegitik jariatuta. Arrainak akabatu zituen.



tegi, Aztirian omendua



Marian Bidegain, Lazkaoko Maizpide euskaltegiaren aurrean.



Plazako jolas parke berria

23. Goruntzek Lazkaoko Dantzari Txiki egunean parte hartu zuen.

26. Greba orokorra egin zen murrizketen aurka, euskal gehiengo sindikalak deituta.

29. Balentzategi herri eskolako haurrek eta gurasoek ikasturteko txangoa egin zuten, Leintz Gatzagara.

URRIA

1. Euskal Herria aldizkariak Armandegiko pikotari buruz artikulua argitaratu zuen.

3. Judo ikastaroa hasi zen, Judo Legazpi elkarteok emanda. Bi talde osatu ziren, denera 24 haur. Gisa horretako lehen ikastaroa zen herrian.

6. Herritar ugarik goi tentsioko linearen aurka Ordizatik Beasainerako manifestazioan parte hartu zuten.

9. Egur zizelkatze ikastaroa hasi zen, Jabier Arrieta tailagilearekin, abenduaren 11ra bitartean.

10. Baztarrikako Amelia Jauregi artzainak Urrezko Kaikua saria jaso zuen, Donostian, Artzai Gazta elkarteak emanda. 14an, Zizurkilan, Amelia lehendakari duen Emakume Baserritarren Elkarte (Ebel) omendu zuen hango udalak.

13. Arantzazura oinez erromesaldia egin zuten zortzi lagunek.

15. Euskara ikastaroa hasi zen, bigarren aldiz. Sei ikasle hasi ziren, ekainaren 21era arte iraungo duen kurtsuan.

19. Plazako jolas parkea berritzeko lanak hasi zituzten. Ziburu zaharrak kentzea, zoruko pinu-azala garbitzea, eta hiru zuhaitz moztea auzolanean egin zituzten.

21. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Emaizta: EH Bilduk 162; EAJk 116; PSE-EEK 4; PPK 1; Pamac 1; IUk 1; baliogabeak 3; zuriak 2. Errolda: 383.

22. Baztarrika gaztandegiko gazta zaharrak brontzezko domina lortu zuen Seu d'Urgellen (Katalunia).

22. Necochea hiriko (Argentina) euskal jatorriko 19 argentinarrak herrian izan ziren, Euskal Herrian barrena egin zuten bidaietan.

31. Ander Iurruta Oñatibiak eta Josetxo Zufiaurre beasainarrak Astigarreta auzoaren historiari buruzko liburua aurkeztu zuten, Beasainen.

31. Plazako jolas parke berria muntatzen bukatu zuten. Ziburu berriak eta goma xehetuzko zoru biguna jarri zituzten.

31. Heste-lodiko minbizia atzemateko analisi-laginak uzteko kutxa jarri zuen Osakidetza, mediku kontsultan. 50-69 urte bitartekoek utz dezakete mostra, kolorrekatleko minbizia edo luzarora tumore bihurtzeko lesio kaltegarriak atzemateko analisia egiteko.

AZAROA

3. Herrigunetik Madariagako bidegurutzerainoko herri-bidea garbitu zuten, auzolanean.

4. Jesus Mari Debak irabazi zuen Zumarragako 30. Buzkanta Lehiaketa, bederatzigarren aldiz.

6. Agerreberriko Maria Etxezarretak hirugarren saria jaso zuen Beasainen, udazkeneko azoka bereziko sagar lehiaketan.

9. Artista Gaua ospatu zen, Osinalde elkartearen. Afal ondoren, kantu saioak eta musika kontzertuak izan ziren, herritarren partetik.

9. Ostatuak Gabiriako I. Futbolin Txapelketa antolatu eta izena emateko epea ireki zuten.

11. Herriko muga ezagutzeko bigarren irteerara, Atagoititik Zumarragako mugara arte, ez zen bisitaririk joan.

11. Joxe Benantzi Bilbaok organo kontzertua egin zuen, Andre Mari elizan.

12. Astore kirol arropa enpresak Gabiria izeneko elastikoa aurkeztu zuen, Euskal Selektzioaren 2013ko ekipamendu ofizialeko joko kamiseta.

14. ETB1ek Iñaki Muruarekin grabatutako Bisitari programa eman zuen.

14. Foru Aldundiak jakinarazi zuen Gabiriako Udalarik 18.561 euro gutxiago egokitu dakizkiokeela 2012ko UFFFTik, itxiera aurreikuspenaren arabera.

15. Asiar liztorraren edo liztor beltzaren (Vespa velutina) habia bat kendu zuten, Mandiola Zahar baserriko txabola batetik. Espezie kaltegarri horren aurkitutako lehenbiziko habia zen.

17. Landetako Felix Untzuruntzaga Sasieta hil zen, 84 urterekin.

17. Iñaki Muruak Usurbilgo II. Udarregi Bertso Sariketa irabazi zuen.

18. Errezil sagarraren eguna ospatu zen. Sagar lehiaketan 18 baserri partaide, sagar-goxotan 17. Nekazariak 13 salpostu jarri zituzten, plaza inguruko aterpeetan. Sarituak: erreziletan Maria Isabel Zumalakarregi (Izar Aundi), Pedro Iztueta (Katarain) eta Miren Agirrezabala (Oñatibi Txiki); sagar-goxoarekin, Maria Jesus Garcia (Oñatibi Aundi). Urtetan epaile ibilitako Ramon Aseginolaza idiazabaldira, Jose Antonio Iparragirre zeraindarrara eta Martin Irazustabarrena (2011n hila) omendu zituzten.

19. Haur abesbatza sortu zuten herrian, 12 kantarirekin.

20. Udalak Espainiako bandera jarri zuen udaletxeko balkoian, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak hartara behartuta, ikurrinarekin eta herrikoarekin batera.

22. Foru Aldundiak behin betiko onartu zuen Bekoerota baserriaren inguruko plan berezia, 21.212 metro koadro lur antolatuzko. Aterpetxearen jardura zabaldu ahalko zuen, beste zortzi bungalow eta zerbitzu-azpiegiturak eraikitzeke aukerarekin.



Artista Gaua, herriko gazteen musika emanaldia



Bilbaoren organo kontzertua



Bisitari batzuk Errezil sagarraren

24. Emakumeentzako defentsa pertsonaleko ikastaroa egin zuten 11 lagunek, Judo Legazpi taldeko J.M. Paternainekin.

24. Gazte talde batek antzerkia estreinatu zuen, Zarautzen, Euskal Herriko bertso eskolen topaketan. Independentzia lortu duen Euskal Herrian, gizartearen txertatzeko bertsoari bidea hartu duten guardia zibilek gorabeherak antzeztu zituzten. Abenduaren 31n egin zuten antzeztan bera, herriko antzokian.

24. Balentzategi herri eskola dagoen Oroitz-Ona etxea inauguratu zutela ehun urte bete ziren.

28. Jesus Mari Debak bigarren egin zuen Gipuzkoako XIV. Odolki Lehiaketan, Ordizian.

29. Berazadi Larrea familiak agiri sorta bat dohaintzan eman zion udalari. Eskolaren eraikuntza proiektuak, Eustakio Balentzategik emandako aginduak, eta haren eskribau Meliton Larrea idazkariak egin zituen kontu-liburuak, memoriak eta oharra dira.

29. Elurra egin zuen Aizalekun, negu-aroan lehenbiziko aldiz.

30. Agerberri baserrikoek lehen saria jaso zuten, Eibarren, San Andres nekazaritza azoka bereziko fruta lehiaketan.

ABENDUA

1. Euskal Telebistako Sustrai nekazaritza programan Gabiriako errezil sagarrari eskainitako erreportajea eman zuten.

1. Deikaztelu-Itsaso goi tentsioko argindar linearen aurka mendi martxa egin zuten, Zeraindik Mutiloara, tarrean hainbat gabiriak zirela.

2. Ormaiztegiko odolki lehiaketan Murua harategiak bigarren egin zuen. Odolki osagaien lehiaketan, Agerberrikoek tipula eta porru onenen saria jaso zuten.

2. Goruntzek Ormaiztegin saioa egin zuen, San Andres festetan.

6. Mikel Aizpuruk Amets baten oinordeko gara liburua argitaratu eta Durangoko liburu azokara eraman zuen, EHUren sorrerari buruz.

8. Gipuzkoako Bolari Eguna ospatu zen, herrian. Bola eta toka lehiaketak (Joakin Izagirre segurarra eta Antonio Amundarain tolosarra irabazle) eta bazkaria (80 lagun) izan ziren. Joxe Maiz bolari gabiriara omendu zuten Federazioak eta Osinalde elkarteak, baita Pedro Agirre legazpiar bolaria eta Prudentzio Olano tokalaria ere.

8. Luzio Gabiria zenaren omenezko 25. Bertso jaialdia egin zuten, Zumarragan. Amets Artzallus, Sebastian Liza-so, Julio Soto eta Iker Zubeldia ziren kantuan.

8. Gorka Maizek Xenpelar bertso sariko finalean kantatu zuen, Erreterian. Seigarren egin zuen.

9. Gueñes-Itsaso goi tentsioko argindar linea (72 km) eraikitzeko baimena jaso zuen REE Red Eléctrica de España enpresak Espainiako Gobernuarengandik. Gabiriako lurretatik igaroko da. 400.000 voltteko indarra garraiatuko du, Deikaztelu-Itsaso proiektuko lineak adina.

9. Olentzerori bisita egin zioten haurrek eta gurasoek, Aizaleku magaleko txabolara.

13. Urretxuko eta Zumarragako Santa Luzia azokan herriko nekazariak hamabi sari lortu zituzten. Errezil sagarretan, adibidez, lau sariak herrira ekarri zituzten.

14. Eskola txikiei buruzko Eskola bizia, herri bizia dokumentala eman zuten, Iñaki Alcalde egilea bertan zela. Udalak saio horrekin hasi zuen apirilera bitarteko film emanaldien egutegia.

14. Ander Geresta presoa Idiazabalera eraman zuten Darocako espetxetik (Espainia), jaiotze berria zen alaba ikustera.

14tik 16ra. Eskola-etxearen eraikuntzaren men-deurren ospatu zen. Argazki eta material erakusketa, antzinako jolasen erakustaldia, solasaldia eta ekitaldia egin ziren.

17. Osinalde elkartearen atzeko sarbidea egokitzeko lanak hasi ziren. Arrapala berria eraiki zuten.

18. Gaztelu baserrian jaiotako Pako Goia Iza hil zen, Aretxabaletan, 78 urterekin.

21. Udalak Gabiri Agiri informazio buletinaren bigarren zenbakia argitaratu zuen.

21. Hiru herritarrek jaso zituzten sariak Donostiako San Tomas azokan. Bekoetxeko Anttoni Murgiondok barazkitan lehen saria, frutatan bigarrena eta Jose Salaberria Memoriala; Oñatibi Txikiko Aitor Elosegik frutatan hirugarrena; eta Legorburuko Jose Benito Debak Euskal Herriko XVII. Txistor Lehiaketan hirugarren saria.

22. Julen Murua eta Iñaki Rezusta ormaiztegiarra Gipuzkoako pilota txapelketan txapelkunorde izan ziren, jubenilen 3. Mailan, finala Eibarko Ruiz-Larrauren aurka 16-22 galduta, Zestoan.

22. Arrasateko Santamas ferian, fruta lehiaketan Agerberriko Maria Etxezarretak lehenengo saria eta Etxeberriko Pakea Galdosek bigarrena jaso zituzten.

24. Gabon eskean lau talde ibili ziren: Osinalde elkarteak, Balentzategi eskolakoena, Aztirikoena eta Murua-tarrena.

28. Udalak herri batzarra egin zuen, bigarren urtez jarraian. Urteko ekitaldien eta lanen errepaso egin zuten udal gobernuak lau zinegotziak.

29. Etxeberri Bengoko zubitik Aztiria alderako bidea auzolanean garbitu zuten.

29. Atagoiti baserriko Francisco Zufiria Goiburu hil zen, 96 urterekin. Gabiriak zaharrena zen.

31. Gazteek antzerkia egin zuten, antzokian, azaroan Zarautzen estreinatutakoa.

Aimar Maiz



En azokan

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa



Herriko gazteen antzerkia, Zarautzen

MAKILAKIKI

GABIRIAKO

JAKINDURIAREN TESTA

1-Zer ezin daiteke egin, gaur egun, herrian?

- a) Autobus linea erregularrean zuzenean Zumarragako Ospitalera joan.
- b) Judoa ikasi.
- c) Kutxazain automatikotik dirua atera.

2-Balantzegi eskola eraikitzeko dirua Eustaquio Balantzegatik eman zuen, eta 1912an ireki zuten. Baina, aurretik, non zen herriko eskola?

- a) Gero Pasiotarren Eskola egon zen eraikinean
- b) Gaur egun udaltea den eraikinean.
- c) Etxeberri etxean (gaur egun kultur etxea).

3-Gaur egun daudenak eta proiektuetan direnak batuta, tentsio altuko zenbat argindar lineak zeharkatuko dute aurki herria?

- a) Hiruk.
- b) Lauk.
- c) Seik.

4-Zer zerikusi ote dute eliza bueltako harresi-euskarriak eta Nogueira Pallaresa trenbideak?

- a) Harresirako harria trenbide hartako tunelak zulatetik atera eta ekarri zuten.
- b) Trenbide harentzat finantzazioa pilotzeko, Espainiako Gobernuak ez zuen lagundu Gabiriako obra, eta ezin izan zen egin lehen saiakeran.
- c) Bien kasuan, lehen proiektuak Joaquin Garin ingeniari gabiriarrak egin zituen.

5-Zein errezil sagar mota zen ohikoena bertako sagastietan duela hogeit bat urte arte?

- a) Frankoa.
- b) Enanoa.
- c) Mokotxo.

6-Zein da Gabiriako urteko festa egun ofiziala?

- a) Abuztuaren 10a, San Lorentzo.
- b) Abuztuaren 15a, Andre Mari eguna.
- c) Abuztuaren 16a, San Roke eguna.

7-2013an mendeurren seinatu bat izango da. Zer gertatu zen, bada, 1913an?

- a) Plazako iturria jarri zuten.
- b) Julian Alustiza **Aztiri** idazlea jaio zen.
- c) Ostatuan taberna zabaldu zuten.

8-Abenduan langabezia tasa %8,9koa zen herrian. Langabetu kopuruak zenbateko proportzioan egin zuen gora 2011ko abendutik 2012ko abendura?

- a) %10. Ia bere horretan geratu zen, nahiz urtean zehar gora-beherak izan.
- b) %40: hamar lagunetik hamalaura.
- c) %100, bikoiztu egin zen.

9-Idatziz eta modu jasoan emateko, honako zein aukera dago zuzen?

- a) Aztiritik Aizalekura igo, eta Alegiaraino jaitsi, Gabirian barrena.
- b) Aztiritik Aizelekura igo, eta Alegiaraino jaitsi, Gabirin barrena.
- c) Aztiritik Haizelekura igo, eta Alegiaraino jaitsi, Gabirian barrena.

10-Amelia Jauregi artzainak honako elkarteetan parte hartu izan du:

- a) Ebel-en, ELEn, EHNEn.
- b) EHNEn, EHEn eta Ernen.
- c) EH-n, Enban eta Emakunden.

11-Zein gabiriari azaltzen da Ignacio F. Iquino zuzendariaren 'Un enredo de familia' filmean (1943)?

- a) Aita Gabino Zugazaga, Pasiotarren eskolako zuzendaria.
- b) Pepe Azarola piano jotzailea.
- c) Basilio Mendia 'Kaskante', soldadu zegoela desfilatzen.

12-Oparaldiaren azken urtean, 2008an, herrian 36 enpresa edo sozietate zeuden, pribatuak zein publikoak. Zenbateko BPG Barne Produktu Gordina zeukan herriak orduan, biztanleko?

- a) 22.588,2 euro
- b) 29.271,6 euro
- c) 32.715,9 euro

13-Trapalatan dagoen Zumalakardi parajea, Arizbakar lepotik beheraxeago, bada hiru zenbakiarekin zerikusia duen zerbait. Zer?

- a) Hiru soldadu hil zirela gogoratzeko gurutzea, Zumalakarregi jenerala buru zuen guda batekoa.
- b) Hiru haritzeko zuhaitz-lerroa, antzinako ardi-bide zahar baten norabidea adierazten duena.
- c) Hiru puntako herri-mugarria, Zumarragak, Legazpik eta Gabiriak han bat egiten dutelako.

14-Zertarako ziren San Antonio, San Isidro, San Roke eta herrian ziren gisa bereko beste hainbat elkarte?

- a) Baserrietako ganaduaren aseguru elkargoak ziren, nekazarien artean osatuak.
- b) Aste Santuko liturgian, egun seinatu bakoitzeko gaubeilak egiteko sortutako anaidiak.
- c) Zozkera bakoitzeko auzo-gaiak herriko udal nagusira eramateko antolatutako komunitateak.

15-Bukatu herriko esaera hau: "Izazpik txapela jantzita duenean..."

- a) Onddo beltzetara joateko garaia.
- b) Biharamunean euria.
- c) Antzarak hegala zabaldua.

16-Estatistikoki, Gabirian mila biztanleko 590 daude. Zer?

- a) Autoak.
- b) Jubilatutak.
- c) Mila euro, udal aurrekontuan.

17-Abizenaz gain, zer lotura du Julen Gabiria idazleak gure herriarekin?

- a) Jose Mari Iparragirre biografia idatzi zuen.
- b) Aitona Bekoetxe baserrikoa zuen.
- c) 'Gabiri, zuri-niri' izeneko poema berea da.

18-Honako zer ospakizunetan ez da sekula festarik egin, ohituraz, herrian?

- a) Inauterietan etxek etxe dantza-eskea.
- b) San Esteban egunean erromeria (abuztuak 3).
- c) Errege bezperan zamalkada (urtarrilak 5).

19-Zer ezin daiteke ikusi herriko kaskotik?

- a) Segura.
- b) Kizkitza.
- c) Ataungo Domoa.

20-Irazola baserriak zer beste izen du?

- a) Txantxangorriñekoa, han jaioa den Jose Luis Uribe-Etxeberria artzainak bezala, bere aurreko guztiek izengoit hori zutelako
- b) Agirre-Imaz, abizen horiek batek eraikia delako XVIII. mendearen bukaeran.
- c) Atabeiti, gorago dagoen Atagoiti herriko azken baserriaren aurrekoa denez, analogia horrekin ezagutzen zutelako.

Aimar Maiz

ERANTZUNAK:

9 - 20	9 - 51	10 - a	5 - a
9 - 19	14 - a	6 - a	4 - c
8 - 18	13 - c	8 - c	3 - c
17 - a	12 - c	7 - b	2 - b
16 - a	11 - b	6 - c	1 - a

Vital
kutxa
bbk

kutxabank 

2013

bidaiak

%100 Kutxabank



GABIRIAKO ESKOLAKO NESKATOAK 1933-34 IKASTURTEAN

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Bixenta Zabaleta (Jauregi), Enkarna Garziandia (Sekretarioenea), Maria Agirre (Etxetxogoikoa), Jesusa Peñagarikano (Gabirizarraundi), Joxepa Urkiola (Aunditegi), Maria Angeles Igarzabal (Merkategi), Juana Urbistondo (Arroaga), Antonia Oria (Gabirizartxiki), Agustina Lasa (Zantegi), Maria Kristina Jauregi (Agerretxemendi), Dominika Lasa (Etxeberribengoa), Maria Kruz Añorga (Izargoena) eta Maria Luisa Jauregi (Agerretxemendi).

Bigarren ilaran ezkerretik eskuinera: Dominika Txintxurreta (Txoko), Bixenta Alustiza (Landeta), Inaxi Txintxurreta (Txoko), Karmen Pikasari (Baztarrika), Maria Sarriegi (Isastegi), Feliziana Agirrebengoa (Otsategi), Pilar Urkiola (Aunditegi), Eugenia Salsamendi (Astiazaran), Mikaela Garziandia (Sekretarioenea), Epifania Arratibel (Zuazolagarakoa) eta Asunzion Arbiza Etxebeste (maistra Hernanikoa).

Hirugarren ilaran ezkerretik eskuinera: Dominika Urbistondo (Arroaga), Inaxi Zelaia (Zuazolazpikoa), Trinidad Pikasari (Baztarrika), Engraxi Apaolaza (Olalkiaga), Maria Txintxurreta (Txoko), Segunda Goitia (Gabirizarraundi), Luzia Urbistondo (Arroaga), Juana Oria (Gabirizartxiki) eta Dolores Salsamendi (Astiazaran).

Lurrean eserita ezkerretik eskuinera: Ramona Zabaleta (Jauregi), Anita Gabilondo (Igoarangarakoa), ezezaguna eta Natibidad Azarola (Mandiola).